

eman ta zabal zazu




Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

*Bordetella* CyaA toxinaren  
eta kolesterolaren  
arteko ezagutza molekularra

Jone Amuategi Aulestiarte  
Doctoral Thesis 2024







*Amelia Basabe eta Jose Antonio Amuategi gogoan,*



Doktorego Tesia

***Bordetella* CyaA toxinaren  
eta kolesterolaren  
arteko ezagutza molekularra**

Jone Amuategi Aulestiarte  
2024

Zuzendaria: Helena Ostolaza Etxabe katedraduna

Biofisika Institutua (CSIC, UPV/EHU)  
Biokimika eta Biologia Molekularra Saila (UPV/EHU)



## ACKNOWLEDGEMENTS

The present thesis was performed at Biofisika Institute (CSIC, UPV/EHU) under the supervision of Prof. Helena Ostolaza Etxabe. The work was supported by the Basque Government (grant number IT1264-19 and IT1720-22) and the Spanish MINECO (grant number BFU2017–82758-P (AEI/FEDER, UE)). The author was a recipient of a predoctoral fellowship from the University of the Basque Country (UPV/EHU) and an EMBO Scientific Exchange Grant for a three-month stay in Prof. Gunnar von Heijne's lab at Biochemistry and Biophysics Department (Stockholm University, Sweden).

## AITORTZA

Tesi hau Biofisika Institutuan (CSIC, UPV/EHU) burutu da, Helena Ostolaza Etxabe katedradunaren gidaritzapean. Lanak Eusko Jaurlaritzaren (IT1264-19 eta IT1720-22 diru-laguntzak) eta Espainiako MINECO-ren (BFU2017–82758-P (AEI/FEDER, EB)) laguntza izan ditu. Autoreak Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) ikertzaile ez-doktoreen prestakuntzarako doktoratu aurreko laguntza eta EMBO Scientific Exchange Grant beka bat jaso ditu, Gunnar von Heijne katedradunaren laborategian, Biokimika eta Biofisika Sailean (Stockholmeko Unibertsitatea, Suedia) hiru hilabeteko egonaldia egiteko.





# AURKIBIDEA

LABURPENA .....	i
SUMMARY .....	ii
TAULEN ZERRENDA .....	vi
LABURDUREN ETA SINBOLOEN ZERRENDA .....	vii
1. SARRERA.....	1
1.1. MINTZ PLASMATIKOA: MINTZEKO TOXINEN ELKARGUNEA .....	2
1.1.1. Mintzeko lipidoak.....	3
1.1.1.1. Glizerofosfolipidoak eta esfingolipidoak .....	3
1.1.1.2. Esterolak .....	4
1.1.2. Mintzen heterogeneotasuna .....	5
1.2. <i>REPEAT-IN-TOXIN</i> (RTX) PROTEINA FAMILIA.....	8
1.2.1. RTX toxinen eta mintzaren arteko elkarrekintzaren ezaugarriak .....	12
1.2.1.1. Proteina-hartzaile espezifiko bidezko lotura .....	12
1.2.1.2. Proteina-hartzaile espezifikorik gabeko lotura .....	14
1.2.2. Kolesterolaren beharra RTX toxinen jardura zitolitiko/zitotoxikorako .....	16
1.2.2.1. RTX toxinen eta mintzeko kolesterolaren arteko lotura .....	17
1.2.2.2. CRAC/CARC motiboak RTX toxinen eta mintzeko kolesterolaren arteko elkarrekintzaren determinatzaile molekular posible gisa.....	19
1.3. ADENILATO ZIKLASA TOXINA (CyaA) .....	23
1.3.1. Egiturazko ezaugarriak .....	23
1.3.1.1 Adenilato ziklasa (AC) domeinua.....	24
1.3.1.2. Translokazio-eskualdea (TR).....	25
1.3.1.3. RTX domeinua.....	26
1.3.2. CyaA-k zelula ostalarietan eragindako efektuak .....	29

1.3.2.1. AC domeinuaren translokazioa eta AC aktibitatea.....	29
1.3.2.2. Aktibitate poro-eragilea .....	31
1.3.3. Kukutxeztula, gainditutako gaitz baten itzulera.....	32
2. HIPOTESIA ETA HELBURUAK .....	37
3. MATERIALAK ETA METODOAK .....	39
3.1. TOXINEN ADIERAZPENA ETA PURIFIKAZIOA .....	39
3.2. PEPTIDOEN EZAUGARRIAK .....	41
3.3. LIPIDOETAN OINARRITUTAKO SISTEMA EREDUAK .....	42
3.3.1. Besikulak prestatzeko erabili diren lipidoen propietateak .....	42
3.3.2. MLV-en prestatketa .....	44
3.3.2.1. LUV-en prestatketa .....	45
3.3.2.2. SUV-en prestatketa .....	45
3.3.2.3. Peptidoen errekonsituzioa mintzetan .....	46
3.3.3. Fosfolipido-kontzentrazioaren determinazioa .....	47
3.3.4. Besikulen tamainaren zehaztapena .....	47
3.3.5. Sakarosa gradiente bidezko besikulen flotazioa .....	48
3.3.5.1. CyaA-ren txertaketa konposizio desberdinetako besikuletan .....	49
3.3.5.2 CyaA proteina mutanteen txertaketa kolesteroldun besikuletan.....	49
3.3.5.3. CyaA eta kolesterolaren arteko lotura inhibitzea peptido sintetikoak erabiliz ...	49
3.4. ESPEKTROSKOPIA-TEKNIKAK.....	50
3.4.1. Askapen-saiakuntzak .....	50
3.4.1.1. Kolesterola erabiltzea CyaA-k eragindako besikulen iragazkortasuna inhibitzeko .....	51
3.4.1.2. Peptidoak erabiltzea CyaA-k eragindako besikulen iragazkortasuna oztopatzeko .....	51
3.4.2. Triptofanoaren intrintseko fluoreszentzia-espektroskopia.....	51

3.4.2.1. Triptofanoaren fluoreszentzia-titulazioak.....	52
3.4.2.2. Peptidoen partizioa mintzetan.....	53
3.4.3. Dikroismo zirkularreko espektroskopia (CD).....	55
3.4.4. Espektroskopia infragorria (IR).....	57
3.4.4.1. Fourier-en transformatutako espektroskopia infragorria (FTIR).....	58
3.4.4.2. Islapen total indargabetuko FTIR espektroskopia (ATR-FTIR).....	59
3.5. MIKROSKOPIA ELEKTRONIKOA.....	60
3.6. PROTEINA AKTIBITATEEN AZTERKETA.....	61
3.6.1. CyaA-ren jarduera hemolitikoa.....	61
3.6.1.1. Odol-laginak garbitzea eta estandarizatzea.....	61
3.6.1.2. Kolesterolak eragindako hemolisiaren inhibizioa.....	62
3.6.1.3. CyaA toxinak eragindako hemolisia oztopatzea LUV-ekin.....	62
3.6.1.4. CyaA WT eta mutanteekin eragindako hemolisi-zinetikak.....	63
3.6.1.5. CyaA-ren jarduera hemolitikoa blokeatzea peptido sintetikoak erabiliz.....	63
3.6.1.6. Peptido sintetikoekin eragindako hemolisi-saiakuntzak.....	63
3.6.2. cAMP kuantifikazioa J774A.1 makrofagoetan.....	64
3.6.2.1. J774A.1 makrofagoen hazkuntza.....	64
3.6.2.2. CyaA WT eta mutanteek eragindako cAMP ekoizpena.....	64
3.6.2.3. AC domeinuaren translokazioa inhibitzea peptido sintetikoak erabiliz.....	65
3.7. ANALISI BIOINFORMATIKOA.....	65
3.7.1. TM helizeen predikzioa CyaA-ren aminoazido-sekuentzian.....	65
3.7.2. CRAC/CARC motiboen identifikazioa eta sekuentzia anitzen lerrokatzea.....	66
3.8. GLIKOSILAZIO-SAIKUNTZA.....	67
3.8.1. Zelularik gabeko <i>in vitro</i> sistemak.....	67
3.8.2. DNA manipulazioak.....	69
3.8.2.1. DNA-ren PCR bidezko linearizazioa.....	70

3.8.3. <i>In vitro</i> transkripzio/itzulpen-erreakzioa.....	71
3.8.4. Endo H tratamendua .....	71
3.8.5. Analisia eta kuantifikazioa.....	72
4. POSSIBLE MOLECULAR DETERMINANTS FOR THE CHOLESTEROL DEPENDENCE OF THE BIOLOGICAL FUNCTIONS OF CyaA TOXIN.....	75
4.1. ABSTRACT.....	76
4.2. INTRODUCTION .....	76
4.3. RESULTS .....	77
4.3.1. Specificity in the interaction of CyaA with cholesterol.....	77
4.3.2. Identification of potential CRAC/CARC motifs in CyaA .....	81
4.3.3. Functional characterization of CARC <sup>415</sup> , CRAC <sup>485</sup> , CRAC <sup>521</sup> and CARC <sup>532</sup> motifs	86
4.3.3.1. Mutations in the putative CRAC/CARC motifs affect CyaA-induced hemolysis .....	87
4.3.3.2. Effect of mutations in putative CRAC/CARC motifs in the AC activity .....	88
4.3.3.3. Mutations in CRAC/CARC motifs do not alter CyaA binding to lipid bilayers	90
4.3.4. Early steps in the structural analysis of CyaA in lipid bilayers .....	91
4.4. DISCUSSION .....	92
4.5. SUPPLEMENTARY MATERIAL.....	97
4.5.1. Supplementary tables .....	97
5. MEMBRANE-INTERACTING PROPERTIES OF A SYNTHETIC PEPTIDE DERIVED FROM THE TRANSLOCATION REGION OF CyaA TOXIN .....	103
5.1. ABSTRACT.....	104
5.2. INTRODUCTION .....	104
5.3. RESULTS .....	105
5.3.1. Cholesterol binding study of the P454–487 peptide .....	105
5.3.2. Membrane-partition of the P454–487 peptide .....	107

5.3.3. Conformation of P454–487 in a low-polarity medium.....	109
5.3.4. Conformational changes of P454–487 into cholesterol-containing lipid bilayers...	112
5.3.5. Conformations adopted by P454–487 <sup>F485A</sup> in cholesterol-containing bilayers.....	116
5.3.6. Membrane-insertion angle of the P454–487 peptide .....	118
5.3.7. Glycosylation mapping of helix h2 within the translocation region of CyaA .....	119
5.3.8. P454–487 blocks CyaA binding and inhibits toxin-induced activities.....	124
5.4. DISCUSSION .....	128
5.6. SUPPLEMENTARY MATERIAL.....	134
5.6.1. Supplementary figures .....	134
5.6.2. Supplementary tables .....	135
6. EZTABAIDA OROKORRA ETA ONDORIOAK.....	139
ERREFERENTZIAK .....	143
ARGITALPENAK .....	187
ESKER EMATEA .....	189



# LABURPENA

Toxina poro-eragileen txertatzeari eta mihizatzeari buruzko ehunka ikerketa argitaratu dira, besteak beste, solugarriak diren proteinak mintzean integratutako egitura egonkor nola bihurtzen diren ulertzeko; batez ere, haien ekintza-mekanismoa ornodunen immunitate-sistemako zenbait proteinaren edo proteina amiloideen antzekoa delako.

Hainbat toxina poro-eragilek haien toxikotasuna modulatzeko mintzeko lipidoak erabiltzen dituzte eta hala, mintzean-zeharreko helizeak egonkortzen dituzte. Adibidez, mintzeko kolesterola funtsezkoa da bakterio patogenoek jariatutako zenbait RTX toxinaren ekintza-mekanismorako. Hain zuzen, gero eta RTX toxina gehiagok kolesterola ezagutzeko CRAC eta CARC motako motibo funtzionalak erabiltzen dituztela deskribatu da.

Besteak beste, mintzeko kolesterolak *Bordetella pertussis* kukutxeztularen bakterioak jariatutako adenilato ziklasa toxinaren (CyaA) jarduera zitotoxiko eta zitolitikoak modulatzeko ditu. Hala ere, oraindik ez zegoen argi kolesterolaren zuzeneko loturak edo esterol honek fosfolipido bigeruzaren egoera fisikoan dauzkan zeharkako ondorioek eragindakoa ote zen. Lan honetan, kolesterolak eta CyaA-k espezifikoki elkarreragiten dutela eta horrek toxinaren mintzeko lotura hobetzen duela argitu dugu. Izan ere, CyaA toxinaren aminoazido-sekuentziaren azterketak erakutsi zuenez, beste RTX toxina batzuek bezala, CRAC eta CARC motiboak ditu. Kolesterolarekiko sentikortasuna gutxienez mintzarekin elkarreragin dezaketen bi domeinutan (translokazio-eskualdea eta domeinu poro-eragilea) dauden kolesterola ezagutzeko lau motibok (CARC<sup>415</sup>, CRAC<sup>485</sup>, CRAC<sup>521</sup> eta CARC<sup>532</sup>) gutxienez ematen dutela proposatzen dugu. Gainera, peptido sintetiko bat erabiliz frogatu dugu motibo horietako bat, CRAC<sup>485</sup>, kolesterola CyaA-rekin lotzeaz arduratzen dela. Peptido horrek mintzekin elkarreragiteko dauzkan ezaugarriak ere aztertu ditugu. Garrantzitsua da nabarmentzea peptidoak ez duela zelula-lisirik eragiten CyaA-ren jarduera inhibitzen duen kontzentrazio-tartean. Horrenbestez, peptido hori erabiltzea metodo ez-toxiko baliagarria izan daiteke CyaA zelula ostalariei lotzea oztopatzeko eta CyaA-k eragindako zitotoxikotasuna murrizteko. Beraz, horrek esan nahi du etorkizunean *Bordetella* infekzioa kontrolatzeko erabil daitekeela klinikoki.



## SUMMARY

Insertion and assembly of pore-forming toxins have been subject of growing investigations to understand protein conversion from water-soluble forms to stable membrane-integrated structures, especially considering the resemblance of their mechanism of action to proteins of the vertebrate immune system, or to amyloid proteins.

A great variety of pore-forming toxins requires lipid-mediated stabilization of TM helices to modulate toxicity. For example, cumulative evidences show that membrane cholesterol is essential for the mechanism of action of several RTX toxins secreted by pathogenic bacteria. In fact, increasing number of RTX toxins present various functional cholesterol-recognition motifs of the CRAC and CARC type, which appears to be another common feature shared in the family.

Amongst others, it was documented that the cytotoxic and cytolytic activities of the adenylate cyclase toxin-hemolysin (CyaA) secreted by the whooping cough bacterium *Bordetella pertussis* are modulated by the membrane cholesterol concentration. Yet, it was still unclear whether this was due to direct binding to cholesterol, or to indirect effects of the sterol on the physical state of the phospholipid bilayer. We provide here an ample set of evidences clarifying that cholesterol enhances the membrane binding of CyaA, primarily due to preferential toxin-cholesterol interaction. Examination of the deduced amino acid sequence of CyaA revealed that, together with other RTX toxins, it contains putative CRAC and CARC motifs. We report herein that such cholesterol sensitivity is provided by at least four cholesterol-recognition motifs (CARC<sup>415</sup>, CRAC<sup>485</sup>, CRAC<sup>521</sup> and CARC<sup>532</sup>) in key membrane-interacting domains (the translocation region and pore-forming domain). Moreover, we use a synthetic peptide to demonstrate that one of those motifs, the CRAC<sup>485</sup>, is responsible for the cholesterol binding by CyaA and we establish the membrane-interacting characteristics of such peptide. Importantly, we show that the peptide does not itself exhibit lytic properties in the range of concentrations in which inhibits CyaA activity on cells, all of which allows affirming that the use of this peptide may represent a valid non-toxic method for blocking binding of CyaA to host cells and minimize Cya-induced cytotoxicity. Hence, this indicates that it may have a potential clinical applicability in controlling infection of *Bordetella*.

# IRUDIEN ZERRENDA

1.1 irudia. Ugaztunen zelula-mintza. ....	2
1.2 irudia. Glizerofosfolipidoen eta esfingolipidoen egitura orokorra.....	4
1.3 irudia. Kolesterolaren egitura kimikoa.....	5
1.4 irudia. Lipido bigeruza baten eskema sinplifikatua Ld, Lo eta So faseetan.....	6
1.5 irudia. RTX toxinen sintesia, itzulpen-osteko eraldaketa, jariaketa eta tolestea.....	9
1.6 irudia. Zenbait RTX toxinen egiturak.....	10
1.7 irudia. $\alpha_M\beta_2$ integrina heterodimerikoaren ektodomeinua.....	13
1.8 irudia. Gangliosidoen adibide batzuk.....	15
1.9 irudia. Kolesterolaren ezagutzarako/interakziorako aminoazido-adostasun motiboak.....	21
1.10 irudia. <i>B. pertussis</i> -en CyaA toxinen egitura-antolaketa.....	24
1.11 Irudia. AC domeinuaren kristal-egitura, CaM-ren C-muturreko domeinuari lotua.....	25
1.12 irudia. CyaA-ren translokazio-eskualdearen NMR egitura DPC mizeletan.....	26
1.13 irudia. CyaA-ren 500–706 hondarren TM helizeen topologia.....	26
1.14 irudia. CyaA-ren 751–1488 hondarren cryo-EM egitura.....	28
1.15 irudia. CyaA-ren zelula eukariotoak intoxikatzeko prozesua azal lezakeen eredu bat.....	31
1.16 irudia. <i>B. pertussis</i> -en birulentzia-faktoreak.....	33
3.1 irudia. Liposomen oinarriko egitura eta sailkapenaren irudikapen eskematikoa.....	42
3.2 irudia. DOPC-ren egitura.....	43
3.3 irudia. Kolesterolaren eta ergosterolaren arteko egitura-desberdintasunak.....	43
3.4 irudia. MLV-ak prestatzeko metodoa.....	44
3.5 irudia. DOPC/ERG LUV-en prestakuntza-protokoloa.....	45
3.6 irudia. Lipido-peptido formulazioak (LPF) eratzeko protokoloa.....	46
3.7 irudia. CyaA-ren mintz-txertaketaren analisia besikulen flotazioaren bidez.....	49
3.8 irudia. Agente litiko batek eragindako askapen-saiakuntzaren adierazpen eskematikoa.....	50
3.9 irudia. Fluoreszentiaren oinarriko printzipioak.....	52
3.10 irudia. CD erreferentzia-espektroak % 100 egitura sekundario bakoitzerako.....	56
3.11 irudia. ATR-FTIR neurketen oinarriko printzipioak.....	60
3.12 irudia. Hemolisi-saiakuntzaren marrazkia.....	63
3.13 irudia. Clustal Omega lerrokatzerako <sup>330</sup> erabilitako parametroak.....	67
3.14 irudia. Erribosomari lotutako Sec61 translokoia ER mintzean.....	68
3.15 irudia. Glikosilazio-patroiaren azterketak erakusten du helize jakin batek ER mintzean orientatzeko izan dezakeen joera.....	69
3.16 irudia. Diseinatutako konstruktuen irudikapen eskematikoa.....	70

## IRUDIEN ZERREDA

3.17 irudia. Endo H-ren jarduera erakusten duen irudi eskematikoa. Manosa zirkulu berdeekin eta GlcNAc karratu urdinekin adierazi dira. ....	71
Figure 4.1. Toxin association to liposomes.....	77
Figure 4.2. CyaA incubation with cholesterol in solution reduces toxin-induced vesicle permeabilization.....	79
Figure 4.3. CyaA incubation with cholesterol in solution reduces the lytic activity of the toxin on erythrocytes.....	80
Figure 4.4. Effect of CyaA incubation with liposomes on CyaA-induced maximum hemolysis. ....	81
Figure 4.5. Alignment of the translocation region of CyaA with other RTX toxins.....	84
Figure 4.6. Alignment of the hydrophobic domain of CyaA against other RTX toxins. ....	85
Figure 4.7. Location of different CRAC/CARC sites in the primary sequence of CyaA. ....	86
Figure 4.8. F/A substitutions in the putative CRAC/CARC motifs significantly affect the hemolytic activity of CyaA.....	88
Figure 4.9. Key F/A substitution in the putative CRAC motifs has significant impact in the cAMP elevation.....	89
Figure 4.10. Vesicle flotation analysis of mutant CyaA toxins. ....	90
Figure 4.11. Lipid vesicles decorated with CyaA. ....	91
Figure 4.12. Schematic model of the membrane topology for the h1-h2-HI-HII helices. ....	95
Figure 5.1. Amino acid sequence of the synthetic peptides used in this work.....	105
Figure 5.2. Tryptophan cholesterol titration spectra. ....	106
Figure 5.3. Analysis of the fluorescence intensity changes at the maximum wavelength (340 nm). .	107
Figure 5.4. P454–487 and P454–487 <sup>F485A</sup> membrane partition followed by fluorescence. ....	108
Figure 5.5. Structural analysis of P454–487 in a low polarity medium.....	111
Figure 5.6. Reconstitution of P454–487 in DOPC lipid bilayers.....	113
Figure 5.7. Conformations adopted by P454–487 as function of cholesterol content in membranes. .	114
Figure 5.8. 2D-COS-IR analysis of P454–487 <sup>F485A</sup> reconstituted in DOPC with increasing cholesterol concentrations. ....	118
Figure 5.9. Angle of insertion of the main conformations adopted by P454.....	119
Figure 5.10. Predicted protein structure for the constructs designed. ....	120
Figure 5.11. LepB membrane targeting efficiency of constructs containing h1 helix. ....	121
Figure 5.12. Maximum glycosylation efficiency of C5 glycan acceptor-site. ....	122
Figure 5.13. Degree of membrane integration of h1, h2 and HI helices analyzed by SDS-PAGE.....	122
Figure 5.14. Potential membrane association models.....	124
Figure 5.15. P454–487 peptide inhibits CyaA binding to DOPC/CHOL vesicles. ....	125
Figure 5.16. Incubation of DOPC/CHOL vesicles with P454–487 decrease CyaA-induced vesicle permeabilization.....	126

Figure 5.17. Hemolytic capacity of the P454–487 peptide and comparison with the full-length CyaA toxin. .... 126

Figure 5.18. P454–487 peptide blocks CyaA binding to erythrocytes and the subsequent toxin-induced lysis. .... 127

Figure 5.19. Incubation of P454–487 with J774A.1 macrophages inhibits toxin-induced cAMP production. .... 128

Figure 5.20. The use of a CRAC peptide to inhibit the cholesterol binding of a bacterial toxin. .... 133

Figure S.5.1. Structural analysis of P454–487<sup>F485A</sup> in a low polarity medium. .... 134

Figure S.5.2. Normalized FTIR spectrum of the amide I' region for the P454–487<sup>F485A</sup> peptide reconstituted in DOPC lipid bilayers. .... 135

# TAULEN ZERRENDA

1.1 taula. Zenbait RTX toxinek kolesterolarekiko duten afinitatea ( $K_D$ , $M$ ). .....	19
3.1 taula. Erabilitako peptidoei buruzko xehetasunak. ....	41
3.2 taula. Amida-I' banden esleipen arruntena $D_2O$ -n. ....	58
3.3 taula. Lan honetan erabili diren primerrak. ....	70
Table 4.1. Summary of CRAC/CARC motifs identified in several RTX toxins. ....	82
Table S.4.1. Putative CRAC motifs identified in the pore-forming domain of several RTX toxins. Central phenylalanine and tyrosine residues are highlighted in green and red, respectively. ....	97
Table S.4.2. Putative CARC motifs identified in the pore-forming domain of several RTX toxins. ... Central phenylalanine and tyrosine residues are highlighted in green and red, respectively. ....	99
Table 5.1. Membrane-partition of the P454–487 peptide and its variants. ....	109
Table 5.2. Secondary structure assignation for the main components of P454–487 decomposed spectra and the area percentages for each one (rounded off the nearest integer). ....	115
Table 5.3. Secondary structure assignation for the main components of the decomposed P454– 487 <sup>F485A</sup> spectra and the area percentages for each one of the components. ....	117
Table 5.4. $\Delta G_{pred}$ and $\Delta G_{app}$ free energies of TM insertion. ....	123
Table S.5.1. Membrane partitioning of P454–487 and its variants P454–487 <sup>F485A</sup> , P454–487 <sup>Scr</sup> and P454–484 in DOPC or DOPC:CHOL (1:1 molar ratio) LUVs. ....	135
Table S.5.2. ATR-FTIR data of the P454–487 peptide. ....	136
Table S.5.3. ATR-FTIR data of the P454–487 <sup>F485A</sup> peptide. ....	137

## LABURDUREN ETA SINBOLOEN ZERRENDA

2D-COS	Two-dimensional correlation spectroscopy / Bi-dimentsioko korrelazio espektroskopia
AC	Adenylate cyclase / Adenilato ziklasa
ACP	Acyl carrier protein / Proteina azilo garraiatzailea
ANTS	8-aminonaphthalene-1,3,6-trisulfonic acid, disodium salt / 8-aminonaftaleno-1,3,6-azido trisulfonikoa, disodio gatza
ATR	Attenuated total reflection / Islapen total indargabetua
CaM	Calmodulin / Kalmodulina
cAMP	Cyclic adenosine monophosphate / Adenosina monofosfato ziklikoa
CD	Circular dichroism / Dikroismo zirkularra
CD11a/CD18	$\alpha_L\beta_2$ integrin / $\alpha_L\beta_2$ integrina
CD11b/CD18	$\alpha_M\beta_2$ integrin / $\alpha_M\beta_2$ integrina
CHOL	Cholesterol / Kolesterola
CM	Center of mass / Masa-zentroa
CRAC	Cholesterol recognition/interaction amino acid consensus / Kolesterolaren ezagutza/interakziorako aminoazido adostasuna
CRM	Canine rough microsomes / Txakur-pankreako mikrosoma pikortsuak
Cryo-EM	Cryogenic electron microscopy / Mikroskopia kriogeniko elektronikoa
CyaA	Adenylate cyclase toxin / Adenilato ziklasa toxina
D <sub>2</sub> O	Deuterated water / Ur deuteratua
DLS	Dynamic light scattering / Argiaren sakabanatze dinamikoa
DMEM	Dulbecco's modified Eagle's medium / Dubelcco-k eraldatutako Eagle-ren Media
DOPC	1,2-Dioleoyl-sn-glycero-3-phosphocholine / 1,2-Dioleoil-sn-glizero-3-fosfokolina
DPX	P-xylene-bis-pyridinium bromide / P-xileno-bis-piridinio bromuroa

## LABURDUREN ETA SINBOLOEN ZERRENDA

DSC	Differential Scanning Calorimetry / Ekorketa diferentzialeko kalorimetria
EDTA	Ethylenediaminetetraacetic acid / azido etilenodiaminotetrazetikoa
EHEC	enterohemorrhagic <i>Escherichia coli</i> / <i>Escherichia coli</i> enterohemorragikoa
ELISA	Enzyme-linked immunosorbent assay
EndoH	Endoglycosidase H / H endoglikosidasa
ER	Endoplasmic reticulum / Erretikulu endoplasmatikoa
EtOH	Ethanol / Etanola
FBS	Fetal bovine serum / Behi fetu gazura
FTIR	Fourier transformed infrared / Fourier-en transformatutako espektroskopia infragorria
HEPES	4-(2-hydroxyethyl)piperazine-1-ethanesulfonic acid / 4-(2-hidroxietyl)piperazina-1-azido etanosulfonikoa
IPTG	Isopropyl-D-thiogalactopyranoside / Isopropil-D-tiogalaktopiranosidoa
IR	Infrared / Infragorria
ITC	Isothermal Titration Calorimetry / Titulazio isotermikoko kalorimetria
Ld	Liquid disordered / Likido desordenatua
LepB	<i>E. coli</i> leader peptidase / <i>E. coli</i> -ren lider peptidasa
Lo	Liquid ordered / Likido ordenatua
LPF	Liposome-peptide formulation / Liposoma-peptido formulazioak
LUV	Large unilamellar vesicle / Lamela bakarreko besikula txikiak
MLV	Multilamellar vesicle / Lamela anitzeko besikulak
MSA	Multiple Sequence Alignment / Sekuentzia anitzen lerrokatzea
NMR	Nuclear Magnetic Resonance / Erresonantzia magnetiko nuklearra
OD	Optical density / Dentsitate optikoa
-OH	Hydroxyl group / Hidroxilo taldea

## LABURDUREN ETA SINBOLOEN ZERRENDA

ON	Over night / Gaeuz
Opti-MEM	Improved minimal essential medium / Hobetutako medio minimo esentziala
ORF	Open reading frame / Irakurtarau ireki
OST	Oligosaccharyl transferase / Oligosakaril transferasa
PC	Phosphatidylcholine / Fosfatidilkolina
PCR	Polymerase chain reaction / Polimerasaren kate erreakzioa
PDI	Polydispersity index / Polidispertsio-indizea
PE	Phosphatidylethanolamine / Fosfatidiletanolamina
PFT	Pore-forming toxin / Toxina poro-eragilea
POPC	1-palmitoyl-2-oleoyl-sn-glycero-3-phosphocholine / 1-palmitoil-2-oleoil-sn-glizero-3-fosfokolina
PTM	Post-translational modifications / Itzulpen-osteko eraldaketa
Rho	Lissamine rhodamine B sulfonyl chloride / lisamina rodamina B sulfonil kloruroa
RD	Repeat domain / errepikapen domeinua
RBD	Receptor binding domain / Hartzaileari lotzeko domeinua
RT	Room temperature / Giro tenperatura
RTX	Repeat-in-toxin
SDS	Sodium dodecyl sulfate / sodio dodezil sulfatoa
SDS-PAGE	Sodium dodecyl sulfate polyacrylamide gel electrophoresis / sodio dodezil sulfato poliakrilamida gel elektroforesia
SM	Sphingomyelin / Esfingomielina
So	Solid gel / Gel solido
SPR	Surface Plasmon Resonance / Gainazaleko plasmoi erresonantzia
SS	Secretion signal / Jariatze-seinale
SUV	Small Unilamellar Vesicle / Lamela bakarreko besikula txikiak




## LABURDUREN ETA SINBOLOEN ZERRENDA

T1SS	Type I secretion system / I motako jariatze-sistema
TFA	Trifluoroacetic acid / Azido trifluoroazetikoa
TFE	2,2,2-trifluoroethanol / 2,2,2-trifluoroetanola
Tm	Melting temperature / Fusio tenperatura
TM	Transmembrane / Mintzean zeharreko
TR	Translocation region / Translokazio-eskualdea
UPEC	Uropathogenic <i>E. coli</i> / <i>E. coli</i> uropatogenikoa
WT	Wild-type / basatia



# KAPITULUA



**1**

**Kapitulu honen jatorrizko bertsioa Helena Ostolaza Etxabek eta Jone Amuategi Aulestiartek argitaratu dute hemen:**


Ostolaza, H., & Amuategi, J. (2024). Membrane Interaction Characteristics of the RTX Toxins and the Cholesterol-Dependence of Their Cytolytic/Cytotoxic Activity. *International Journal of Molecular Sciences*, 25(6), Article 6. <https://doi.org/10.3390/ijms25063131>

## 1. KAPITULUA: SARRERA

### 1.1. MINTZ PLASMATIKOA: MINTZEKO TOXINEN ELKARGUNEA

Mintz biologikoak dira zelularen funtzionamendu egokirako egiturarik funtsezkoenak, eta beraz, bizitzaren eboluzioari estuki loturik egon dira<sup>1</sup>. Mintzak zelulen osotasuna mantendu eta haien egitura egonkortzen duten aldamio sendo eta dinamikoak dira. Adibidez, mintz plasmaticoak (**1.1 irudia**) zelula barneko espazioa kanpoko ingurunetik bereizten du. Hala, zelula babesten eta mantenguzaien fluxua arautzen du, zelula barnera eta handik kanpo<sup>2</sup>. Ondorioz, mintza kaltetzeak zelularen heriotza eragin dezake<sup>3-5</sup>. Horrexegatik, mikroorganismo- eta bakterio-produktu askok, toxina poro-eragileek (ingelesez *pore-forming toxins*, PFT) esaterako<sup>6</sup>, mintzak erasotzen dituzte.

Mintz plasmatico eukariotoaren matrizea lipido anfilikoz<sup>7</sup> (glizerofosfolipido, esfingolipido eta esterolak) osatutako geruza bikoitz bat da eta fosfolipido bigeruzan esaten zaio. Mintzak espontaneoki sortzen dira, lipidoen isats hidrofobikoak elkartu, buru hidrofilikoei ingurune urtsuarekin elkarrengaitan dutenean<sup>2</sup>. Lipidoak, proteinak eta azukreak egitura horren funtsezko osagaiak dira. Mintzean zeharreko proteinek (ingelesez *transmembrane*, TM) nukleo hidrofobikoa zeharkatzen dute; eta proteina periferikoak edo beste biomolekula batzuk gainazal hidrofiliko kargatura lotzen dira<sup>8</sup>.



**1.1 irudia. Ugaztunen zelula-mintza.** Zenbait lipido- eta proteina-espeziek eratzen dute mintz plasmaticoaren osaera konplexua. Lipido anfilikoa (glizerofosfolipidoak, esfingolipidoak eta kolesterola) bigeruzan-itxurako egitura batean mihizatzen dira. TM proteinek nukleo hidrofobikoan txertatuta daude. Bestalde, proteina periferikoak edo beste biomolekula batzuk gainazal hidrofiliko kargatuarekin lotzen dira<sup>8</sup>. Mintzaren bolumenaren % 50 TM proteinek, proteina periferikoek eta lipidoek osatzen dute<sup>9,10</sup>. Azpimarratu behar da kolesterola ugaztunen zelulen funtsezko esterola dela<sup>11</sup>. BioRender erabiliz marraztuta.

1972an proposatutako Singer-Nicolson eredua<sup>12</sup> baliagarria izan den arren, 50 urte baino gehiago igaro ostean, zenbait ezaugarri gehitu zaizkio eta eredua eguneratu da<sup>9,10</sup>. Zelula-mintzaren osagaiak hainbat domeinutan funtzionatzen dutela deskribatu da<sup>13</sup>; domeinu horiek oreka termodinamikoan daude, ez dira uniformeak, ez aleatorioak eta kooperatiboak eta dinamikoak dira<sup>14</sup>. Horrez gain, mintz plasmatico ez da osagai estatiko eta autonomo bat,

baizik eta erabat integratutako egitura bat, zitoplasmari nahiz zelulaz kanpoko matrizeari lotua dagoena<sup>9</sup>.

Mintz gehienak asimetrikoak dira, bai alboetara, bai geruzen konposizio desberdinari dagokionez<sup>15</sup>. Mintz plasmaticoaren kanpo-geruza kolina duten lipidotan aberatsa da, hala nola fosfatidilkolina (ingelesez *phosphatidylcholine*, PC) eta esfingomielina (ingelesez *sphingomyelin*, SM); barne-geruza, berriz, fosfatidiletanolamina (ingelesez *phosphatidylethanolamine*, PE) eta fosfatidilserina (*phosphatidylserine*, PS) gisako glizerofosfolipidoetan aberastua dago. Barne-geruzan dauden beste fosfolipido batzuek, hala nola azido fosfatidikoak (ingelesez *phosphatidic acid*, PA), fosfatidilinositolak (ingelesez *phosphatidylinositol*, PI), fosfatidilinositol-4-fosfatoak (ingelesez *phosphatidylinositol-4-phosphate*, PIP) eta fosfatidilinositol-4,5-bifosfatoak (ingelesez *phosphatidylinositol-4,5-biphosphate*, PIP2), zelula barneko seinaleztapen-prozesuetan parte hartzen dute<sup>16</sup>.

### 1.1.1. Mintzeko lipidoak

#### 1.1.1.1. Glizerofosfolipidoak eta esfingolipidoak

Glizerolipidoak glizerofosfolipidotan eta glizeroglikolipidotan (landareetan, alga eukariotoetan eta zianobakterioetan daude<sup>17,18</sup>) sailka daitezke. Glizerofosfolipidoak (**1.2 irudia**) zelula eukariotoen mintzetan nagusi diren lipido estrukturalak dira (% 65 mol arte)<sup>19,20</sup>. PA glizerofosfolipido guztien egitura komuna da: bi gantz-azidori lotutako glizerol molekula batek (diazilglizerola, DAG) eta fosfato-talde batek osatzen dute. Glizerofosfolipidoaren arabera, fosfato-talde hori alkohol gehigarri batekin esterifikatzen da. Gantz-azido kateei dagokienez, aseak edo *cis*-asegabeak izan daitezke eta hainbat luzera izan ditzakete<sup>19</sup>.

Esfingolipidoak (**1.2 irudia**) ere lipido anfipatikoak dira eta N-azilatutako zenbait gantz-azido izan ditzakeen esfingosina daukate oinarrian<sup>21</sup>. Zeramidak hidroxilo (-OH) sinplearen bidez bereiz daitezke; SM fosforilkolina-hondarra du; eta zerebrosido eta gangliosido (**1.8 irudia**) deritzen glikoesfingolipidoek azukre bakarra edo zenbait oligosakarido (muturreko azido sialikoa<sup>22</sup>) dituzte, hurrenez hurren. Gantz-azidoaren kateak luzeak eta aseak (edo *trans*-asegabeak) izan ohi dira. Beraz, luzera bereko PC-ek baino zilindro handiagoak eta estuagoak sortzeko gai dira<sup>8</sup>.

## 1. KAPITULUA: SARRERA




**1.2 irudia. Glizerofosfolipidoen eta esfingolipidoen egitura orokorra.** Glizerofosfolipidoek glizerol talde bat (berdea), *sn-1* posizioan gantz-azido ase bat eta *sn-2* posizioan gantz-azido asegabe bat (laranja), fosfato-talde bat (gorria) eta buru polarraren ordezkoa (X, beltza) dituzte. Esfingolipidoek esfingosina (2-amino-4-trans-octadezeno-1,3-diol) molekula dute oinarrian (magenta), gantz-azido saturatu bat (laranja) eta buru polarraren ordezkoa (X, beltza) dituzte. Molview.org-rekin marraztuta.

### 1.1.1.2. Esterolak

Zelula-mintzen matrizea fosfolipidoek eta esfingolipidoek osatzen badute ere, esterolak, oro har, kantitate handitan ageri dira (% 20–40)<sup>23</sup> animalien mintzetan (kolesterola, CHOL<sup>11</sup>), landareetan (estigmasterola, STIG<sup>24</sup>) eta legamietan (ergosterola, ERG<sup>25</sup>).

Kolesterolaren egitura eta glizerolipidoen eta esfingolipidoen egitura nahiko desberdinak dira<sup>11,19</sup>. Kolesterola esteranotik eratorritako molekula anfipatikoa da. Haren zati polarra hidroxilo talde bakar batera mugatzen da ( $3\beta$ -OH) eta bi hidrogeno-lotura mota sor ditzake (hartzailea eta emailea) mintzeko lipido edo proteina baten talde polarrarekin<sup>26</sup>. Kolesterolaren zati apolarra, era berean, bi aurpegiko egitura asimetrikoa du:  $\alpha$  aurpegi laua eta  $\beta$  aurpegi zimurra. Bigarrenak azalera nabarmen zimurragoa du, zenbait talde alifatiko baitaude (bi metilo talde eta muturreko isooktilo-katea) esteranoari lotuta (**1.3 irudia**).

Kolesterola mintz plasmaticoaren eraikuntzarako ezinbestekoa da eta haren osotasuna mantentzen eta jariakortasuna doitzen ditu, besteak beste<sup>27</sup>. Mintz jariakorretan lipido-ordena handitzeko ahalmena du, baina jariakortasunari eta difusioari eusten die. Horrez gain, iragazkortasun-muga txikia ezartzen du eta koherentzia mekaniko handia eskaintzen die mintzei. Alboetarako antolakuntzan<sup>23</sup> eta mintz-proteina batzuen homeodinamikan ere parte hartzen du. Izan ere, intrintseko proteinen funtzioa modula dezake, zuzeneko loturaren bidez edota mintzaren jariakortasunean eragindako zeharkako efektuen ondorioz<sup>28–33</sup>.



**1.3 irudia. Kolesterolaren egitura kimikoa.** Kolesterolak<sup>11,19</sup> (PubChem CID 5997) forma konikoa du eta bi zatitan bana daiteke. Alde batetik,  $-OH$  taldea lotuta duen 4 eraztuneko esterano-sistemak molekularen bolumen espazialaren % 50 betetzen du eta oso malgutasun txikia du; bestetik, isooktilo albo katea oso malgua da, eta beraz, konformazio ugari har ditzake mintz-proteinekin bat egiten duenean. Eskualde polarren ( $3\beta-OH$  taldea) eta apolarren (esterano eraztuna eta isooktilo alboko katea) konbinazioak izaera anfipatikoa ematen dio kolesterolari, eta horri esker, mintzeko beste osagai batzuekin (lipidoak eta proteinak) elkarrekintzak izan ditzake. Kolesterolaren ezaugarri estrukturaletako bat da esterano-eraztunaren planoari berez dagokion asimetria, aurpegi batean metiloa ordezkatzearen ondorioz.  $\alpha$  aurpegi leuna hidrogeno axialeko atomoz soilik osatuta dago, eta Van der Waals elkarrekintza faboragarriak eratu ditzake fosfolipidoen gantz-azido kateekin. Aitzitik,  $\beta$  aurpegi zimurreko metilo talde irtenek mintz-proteinekin elkarreaginean jardun dezaketeg.

### 1.1.2. Mintzen heterogeneotasuna


Biomintzak oso egitura dinamikoak dira, eta horietan lipidoek duten kokapena eta orientazioa etengabe aldatzen da (konformazio-aldaketak hidrokarbu-kateetan, lipidoen difusio laterala eta errotazionala edo *flip-flop* mugimenduak<sup>9,10</sup>).

Lipidoak ez dira beti modu uniformearen nahasten mintzean; haien geometria molekularren arabera, hainbat fase izan ditzakete (mizelak, fase lamelarrak, fase kubikoak edo alderantzizko fase hexagonalak)<sup>34,35</sup>. Mintzeko lipidoen forma haien buru polarraren azalera eraginkorraren eta haien zati hidrofobikoaren neurriaren arteko erlazioaren araberkoa da<sup>36</sup>. Forma horrek lipidoen kokapena baldintzatuko du eta kurbadura-fenomenoen arduraduna izango da<sup>37,38</sup>. PC edo PS gisako mintz-lipidoek, forma zilindrikoa dute; PE-k, berriz, forma konikoa du, eta kurbadura-tentsioa ezartzen die PC-z osatutako bigeruz lipidikoei. Fase lamelarrek, eskuarki, zilindro-formako lipidoak izan ohi dituzte eta fase ez-lamelarrek kono edo alderantzizko-kono itxurako lipidoak izaten dituzte<sup>34,35</sup>.



## 1. KAPITULUA: SARRERA

Biomintzen oinarritzko egitura lamelarra da eta osaera lipidikoaren arabera, ezaugarri uniformeak dituzten hainbat egoera fisiko izan ditzakete. Gel fasea eta fase jariakorrek mintz biologikoetan gerta daitezkeen muturreko bi egoera dira (**1.4 irudia**) eta fase trantsizio nagusia lipidoen hidrokarbuo kateen urtzearekin lotuta dago<sup>39</sup>. Fosfolipido espezie bakoitzak fusio-temperatura (ingelesez *melting temperature*,  $T_m$ ) bereizgarria du, eta hori hidrokarbuoen luzeraren, asegabetasunaren, kargaren eta buru-polarren araberakoa da<sup>40</sup>.  $T_m$ -tik behera, geruza lipidiko erabat hidratatuek fase ordenatu edo gel fasea ( $S_o$  or  $L_\beta$ ,  $L_\beta'$  eta  $P_\beta$ ), subgela ( $L_c'$ ) edo kuasikristalinoa ( $L_c$ )<sup>41</sup> hartzen dute<sup>42</sup>. Fase horietan guztietan, albo-difusioa oso txikia da, eta lipidoak oso ordenatuta daude, ia guztiak *trans* konformazioan daudelarik. Hala ere, desberdinak dira haien paketatze-dentsitatea, dinamika eta biraketa-ordena. Adibidez,  $S_o$  faseko lipidoek erabat zabalduak eta estu paketatutako gantz-azidoak dituzte, lipido-ur planoarekiko perpendikularki kokatuta daudenak;  $L_\beta'$  motako gel fasean, berriz, gantz-azidoak mintzaren planoarekiko inklinatzen dira<sup>43</sup>.  $T_m$  gainetik, geruza bikoitza fase desordenatuan edo jariakorrean dago ( $L_d$ ,  $L_\alpha$ ). Fase honetan, lipidoen difusio lateral eta errotazionala errazten da, gantz-azido kateak ausaz orientatzen dira, estuki paketatuta gabe<sup>44</sup>. Azkenik, likido ordenatu faseak ( $L_o$ )  $L_d$  eta  $S_o$  tarteko propietateak ditu: difusio laterala eta errotazionala  $L_d$  fasearen antzekoak dira, baina ordena konformazionala  $S_o$  fasearen antzekoa da<sup>45</sup>.



**1.4 irudia. Lipido bigeruza baten eskema sinplifikatua  $L_d$ ,  $L_o$  eta  $S_o$  faseetan.**  $L_d$  fase jariakorrean lipidoek paketatze irregularra izaten dute, eta asaldura eta alboko mugikortasuna areagotu egiten dira.  $T_m$  azpitik, lipido-bigeruzak gogor paketatzen dira solido antzeko fasean ( $S_o$ ) eta lipidoen alboko mugimendua eragozten da. Esterolak mintz ereduetan sartzen direnean, bigeruzek  $L_o$  fasea osatzen dute. Fase horretan, gantz-azidoak  $L_d$  fasean baino hurbilago paketatzen badira ere, baina alboko mugikortasunari eusten diote. Johnston eta kideengandik egokitua<sup>46</sup>.

$T_m$  desberdineko fosfolipidoen nahaste bitarretan, osagai bat maila baxuetan dagoenean, nahastea uniformea da, eta eskuarki, osagai nagusiak faboratutako fasean egoten da. Hala ere, osagai baten atalase-kontzentrazioaren ginetik, fase bereizketa kooperatiboa gertatzen da, eta gel fasea eta fase jariakorra batera existitu daitezke. Bi faseko sistema horietan, gel fasea  $T_m$  altuko lipidotan aberatsa da, eta fase jariakorra  $T_m$  baxuko lipidotan. Kasu horretan, temperatura altuek fase jariakorra bultzatzen dute, eta temperatura baxuek, berriz, gel fasea. Bi fase daudenean, fase bakoitzaren osaera lipidikoa ez da aldatzen<sup>47</sup>.

Glizerolipido biologikoek, oro har, oso  $T_m$  baxua izaten dute. Esaterako, glizerofosfolipido gehienak, hala nola PC *cis*-asegabeak, Ld fasean daude giro-tenperaturan (RT)<sup>19</sup>. Esfingolipidoak bezalako lipido aseak, ostera, So fasean daude<sup>21</sup>. Horrenbestez, zelula-mintzean fase-bereizketa gerta daitekeela iradoki da glizerolipido eta esfingolipido ugariko domeinuen artean (ziur aski fase jariakorraren eta gel fasearen artean, hurrenez hurren)<sup>47</sup>. Bitxia bada ere, kolesterola dagoenean, geruza bikoitzak Lo fasea har dezake (**1.4 irudia**). So fasean kolesterola gehitzeak paketamendua asaldatu eta lipidoen hidrokarburo kateen ordena murrizten du. Era berean, Ld fasean, kolesterolak erraztu egiten du hidrokarburo-kateen *trans* konformazioa<sup>45</sup>.

Ikerketa esperimentalen arabera, mintz eruedetan kolesterolak interakzio onuragarriagoa du SM-rekin PC-rekin baino<sup>48</sup>. PC-k duen kate *cis*-asegabearekin alderatuta<sup>28</sup>, SM-ren gantz-azido aseak eta esfingosinaren kate *trans*-asegabeak kolesterolarekin Van der Waals elkarreragin maximoa ezarri dezakete. Hala, mintzaren Ld fasearekin batera existitu daitezkeen Lo faseko SM/CHOL konplexu kondentsatuak eratzen dira<sup>49,50,51</sup>. Aipaturikoak *raft* nanodomeinu izenez ezagutzen dira<sup>52,51,53,54</sup>. Esterolen eta esfingolipidoen arteko lehentasunezko nahasketa aterki-efektuaren (ingelesez *umbrella effect*) ondorioz gertatzen da, esfingolipidoak esterola guztiz maskaritzen duelako<sup>55,56</sup>. Horrenbestez, kolesterolaren –OH taldeak esfingolipidoaren buru polarrarekin hidrogeno-lotura egonkortuko du. Alderdi estruktural hori garrantzitsua da, eskualde horietan zenbait proteina selektiboki sartzea edo baztertzea ahalbidetzen baitu, proteina-proteina eta lipido-proteina elkarrekintza erraztuz.

Azpimarratu behar da kolesterola *raft* delakoez gain<sup>53,57</sup>, mintz plasmaticoaren Ld fasean, PC moduko glizerofosfolipidoz aberastuta dagoena (% >50 mol<sup>28</sup>), ere agertzen dela<sup>58</sup>. PC-k, SM-k ez bezala, hidrogeno-loturen hartzaile gisa balio duten karbonilo-taldeak ditu, baina ez du SM-ren amino-taldea bezalako hidrogeno-loturako talde emailerik. Ondorioz, kolesterolaren eta PC-ren arteko lotura Van der Waals indar ahuletan eta hidrogeno-loturaren gaitasun mugatuan oinarritzen da.


## 1. KAPITULUA: SARRERA

### 1.2. REPEAT-IN-TOXIN (RTX) PROTEINA FAMILIA

PFT-ak patogenizitateari lotutako era askotako exotoxinak dira<sup>6</sup>, eta mota guztietako organismo biziek jariatzen dituzte: bakterioek nahiz organismo handiagoek, besteak beste, landareek eta animaliek<sup>59</sup>. Proteina horiek zenbait itu-zelulatan “zulo” hidrofiliakoak sortzeko gaitasuna dute eta hala, solutuak (ura, ioiak edo beste biomolekula batzuk) igaro daitezke. Lan honetan, RTX (ingelesez *repeat-in-toxin*) familiari buruzko informazioa eguneratu dugu. Oso talde zabala da eta oraindik ezezaguna zentzu askotan<sup>60,61</sup>. Hemen, toxina horien eta mintzen arteko elkarreragina aztertu dugu eta haien jarduera zitotoxiko/zitolitikoak kolesterolarekiko duen menpekotasunean jarri dugu arreta.

RTX toxinak hainbat patogeno Gram-negatibok (*Actinobacillus*, *Aggregatibacter*, *Bordetella*, *Escherichia*, *Kingella*, *Mannheimia*, *Moraxella*, *Morganella*, *Pasteurella*, *Proteus* eta *Vibrio*<sup>60,62</sup> generoek) jariatutako zitotoxina/zitolisina dira. Proteina handiak dira, ~100 eta 200 kDa arteko masa molekularrak dituzte (*Kingella kingae*-ren RtxA zitotoxina, 105 kDa; *Escherichia coli* uropatogenikoaren (UPEC)  $\alpha$ -hemolisina (HlyA), 110 kDa eta *Bordetella pertussis*-en adenilato ziklasa toxina (CyaA), 177 kDa) eta zisteina-hondarrik gabeko polipeptido-kate bakunak osatzen dituzte.


RTX toxinen sintesiaz, heltzeaz eta jariaketaz *rtxCABD* operoia arduratzen da<sup>60,61,63</sup>. A gene-produktua heldu gabeko protoxina bati (proRTX) dagokio eta bakterioaren zitosolean forma aktiboa hartzen du, kontserbatutako bi lisina-hondarrak itzulpen ostean azilatzen direnean. Gantz-azidoak C gene-produktuak kodetutako aziltransferasa espezifiko batek gehitzen ditu, proteina azilo garraiatzaileak (ingelesez *acyl carrier protein*, ACP) lagunduta<sup>64-69</sup>. Azilatutako RTX toxina heldua zuzenean garraiatzen da bakterioaren bi mintzak zeharkatuz, I motako jariatze-sistemaren (ingelesez *type I secretion system*, T1SS) bidez<sup>70</sup>. Sistema hori B eta D gene-produktuek eta bakterioaren kanpo-mintzean dagoen TolC-k osatzen dute<sup>71-75</sup> (**1.5 irudia**). Jariatzeko mekanismo orokor horren salbuespen txiki batzuk egon daitezke.



**1.5 irudia. RTX toxinen sintesia, itzulpen-osteko eraldaketa, jariaketa eta tolestea.** RtxB, RtxD eta TolC proteinez osatutako T1SS-ren itxurazko sinpletasuna gorabehera, makina hauek gai dira 800 kDa-tik gorako polipeptidoak jariatzeko, segundo gutxiren buruan. Etenik gabeko kanal estua ABC proteina-garraiatazaile batek osatzen du, proteina multimeriko bati konektatua dagoena, eta aldi berean, bakterioaren kanpo-mintzean dagoen proteina trimeriko bati lotzen zaiona. *rtx* operoia RTX proteinak kodetzen dituzten geneak eta gene laguntzaileak dauzka; gehienetan, operoi bakarraren barruan dauden 4 gene eta handik kanpo dagoen bosgarren gene bat. Operoia barruko geneak honako hauek lirateke: aziltransferasa kodetzen duen *rtxC* genea, itzulpen-osteko eraldaketa (ingelesez *post-translational modification*, PTM) bidez toxina aktibatzeaz arduratzen dena; toxina kodetzen duen *rtxA* genea; ABC garraiatazailea eta hura kanpo-mintzeko trimeroarekin lotzen duen proteina osagarria kodetzen duten *rtxB* eta *rtxD* geneak. Azkenik, bakterio-kromosomaren beste eskualde batean dagoen *tolC* geneak kanpo-geruzako jariatze-sistemaren azken osagaia kodetzen du<sup>62</sup>. ABC garraiatazaileak ATP hidrolisiaren bidez lortutako energia mekanikoa hornitzen du aldaketa konformazionalak egiteko, eta RTX blokeak jariatze-sisteman pixkanaka sartzea errazten du. Karga negatiboen mugimendu elektroforetikoa ere lagunduko luke bakterioaren barne-mintzeko potentzial negatiboaren bidez toxina jariatzen<sup>76</sup>. Kontserbatutako 50 bat hondarreko jariatze-seinale sekuentzia bat duten peptidoak baino ezin dira igaro T1SS-tik<sup>71</sup>. Biorender erabiliz marraztua.

## 1. KAPITULUA: SARRERA

RTX toxina bakoitzaren kate polipeptidiko heldua kontserbatutako lau eskualdez osatuta dago<sup>60-63</sup> (**1.6 irudia**). N-muturreko domeinu hidrofobikoa, zenbait TM helize putatibo dituen, garrantzitsua da RTX toxina zelula ostalariaren mintzean txertatu eta poroak eratzeko<sup>62,77-84</sup>. Domeinu hidrofobiko horren ondoan azilazio-eremua dago, luzera aldakorreko segmentu bat, kontserbatutako eta azilatutako lisina hondarrak dituen<sup>64-66</sup>. RTX toxina bakoitzaren C-muturreko zatian kaltzioa ( $\text{Ca}^{2+}$ ) lotzen da, horretarako tandemean errepikatutako 9-hondarreko motiboa erabiliz<sup>62,85</sup>. Horrexegatik, errepikapen domeinua (ingelesez *repeat domain*, RD) deritzo. Errepikapen horiek, hain zuzen, RTX proteina familiaren izen historikoaren arrazoia dira<sup>62</sup>. T1SS-k toxinen C-muturreko jariatze-seinale sekuentzia (ingelesez *secretion signal*, SS) ezagutuko du<sup>86-88</sup>. RTX motako toxinen antolaketa tipikoaren salbuespen bakarra *Bordetella CyaA* toxina da, non adenilato ziklasa (ingelesez *adenylate cyclase*, AC) domeinu katalitiko gehitzen baita eremu hidrofobikoaren N muturrean, translokazio-eskualde izeneko (ingelesez *translocation region*, TR) lotura eskualde espezifiko baten bidez<sup>60</sup>.



**1.6 irudia. Zenbait RTX toxinaren egiturak.** HlyA hemolisina, RTX familiaren prototipoa, UPEC birulentziaren kausa nagusia da<sup>89</sup>. RtxA zitotoxina *K. kingae*-k jariatzen du<sup>90</sup>. Patogeno inbasiboa da, eta sistema eskeletikoaren infekzioak, bakteriemia eta endokarditis infekziosoaren forma larriak eragiten ditu maiz. LtxA leukotoxina *Aggregatibacter actinomycetemcomitans*<sup>91</sup> aho-patogenoak adierazten du. Adenilato ziklasa toxina (CyaA) *B. pertussis* kukutxeztularen bakterioak sortzen du<sup>92</sup>. RTX toxina gehienek arkitektura komuna dute: N-muturreko domeinu hidrofobikoa (H, urdin ilunez adierazitako segmentu helikoidalak dituen), errepikapen domeinua (RD, berde ilunean) eta C-muturreko jariatze-seinale sekuentzia (SS, gorria). Batzuek hartzaileari lotzeko eremu jakin bat dute (ingelesez *receptor binding domain*, RBD, urdin argia). Palmitoilazio tokiak (gezi turkesekin adierazita) deritzen barneko lisinei gantz-azidoak kobalentekei gehitzen zaizkie itzulpen ostean. Salbuespenak CyaA eta *Vibrio cholerae*-ren MARTX proteinak dira. Beste RTX toxina batzuek ez bezala, CyaA-k adenilato ziklasa domeinua (AC, berdea) eta translokazio-eskualdea (TR, laranja) ditu.

RTX toxinak, hasiera batean, protoxina inaktibo gisa adierazten dira eta itzulpen-osteko azilazioari esker heltzen dira<sup>60,65</sup>. Horretarako, 14-18 karbonoko gantz-azidoak gehitzen zaizkie domeinu hidrofobikoaren ostean kokatzen diren bi lisina hondarrei<sup>64-68</sup>. Gantz-azidoak, aseak, asegabeak eta hidroxilatuak izan daitezkeenak, kontserbatutako lisinen  $\epsilon$ -amino taldeei lotzen zaizkie lotura kobalenteen bidez<sup>65,68,93,94</sup>. RTX toxinek gantz-azido horiek behar dituzte zelula ostalarientzako zitotoxikoak izateko<sup>64,95</sup>, baina ez dago argi toxina horien ekintza-mekanismoan PTM-k zein paper jokatzeko duen. Bitxia bada ere, aktibazio hori ez da beharrezkoa RTX proteinak jariatzeko; izan ere, azilatu gabeko UPEC proHlyA eta HlyA, biak ala biak, oso modu eraginkorrean jariatzen dira<sup>96</sup>. Bi protoxina horiek bigeruzo lipidiko lauetan eratzen dituzten poroak askoz maiztasun txikiagoarekin sortzen dira; halere, toxina helduek sortutakoen antzeko propietateak dituzte<sup>97,98</sup>. Gainera, nahiko aktiboak dira liposoma biluziak iragazkor bihurtzeko<sup>99,100</sup>, honek iradokitzen du gantz-azidoak ez direla funtsezkoak toxina bigeruzo lipidikoan sartzeko. Alta, *B. pertussis* proCyaA-ren PTM erabakigarria da toxina tolestu eta bakterio-zelulatik kanpo egonkor mantentzeko<sup>101</sup>. Etorkizunean azilazioak beste RTX toxina batzuetan ere antzeko garrantzia izan dezakeela frogatu liteke.

Itzulpen-osteko aktibazioaz gain, jarduera biologikoa gauzatzeko, RTX toxinak zelulaz kanpoko ingurunean dauden  $\text{Ca}^{2+}$  ioien bidez aktibatu behar dira (**1.5 irudia**)<sup>76,102,103</sup>. Uste da bakterio-zitosolean errepikapen-domeinua desegituratuta dagoela<sup>104</sup> eta horri esker, toxina erraz pasa daitekeela T1SS makineriatik. Jariatutako toxinari  $\text{Ca}^{2+}$  gehitzen zaio errepikapen-domeinuko glizina eta aspartato ugariko nonapeptidoen errepikapenetan: G-G-X-G-X-D-X-U-X; X, edozein aminoazido izan daiteke, eta U, hondar hidrofobiko handi bat da (leuzina, isoleuzina, balina, fenilalanina edo tirozina)<sup>62,85</sup>. Hala, errepikapen-domeinuak  $\beta$ -bira tolesdura hartuko luke<sup>60-63,85,105,106</sup>, proteina tolestea eta konformazio funtzionala hartzea ahalbidetuz<sup>106-108</sup>.  $\text{Ca}^{2+}$ -ek eragindako konformazio-aldaketak funtsezkoak dira toxinak aktibatuzeko, eta beraz, RTX proteinek behar bezala jarduteko<sup>109</sup>.

Bakterio-barrutik askatutakoan, RTX toxinek, seguru asko, itu-zelularen mintzarekin elkarreaginean jardungo dute. Horren ondoren, domeinu poro-eragileko zenbait helize bigeruzo lipidikoan sartuko dira, poro hidrofobikoak sortuz<sup>78,83,84,110-112</sup>. Poro horiek eragindako kontrolik gabeko ioien fluxuak, itu-zelularen funtzioetan aldaketak eragiten ditu, eta azkenean, lisi zelularra<sup>60</sup>.

## 1. KAPITULUA: SARRERA


### 1.2.1. RTX toxinen eta mintzaren arteko elkarrekintzaren ezaugarriak

RTX toxinek itu-zelula desberdinekiko duten jarduera zitotoxiko erlatiboa aldakorra da<sup>53</sup>. Espezie- eta zelula-espezifikotasunean oinarrituta, historikoki bi taldetan banatu izan dira. Eritrozitoak lisatzeko gai diren hemolisinak hainbat espezieetatik isolatutako zelulentzat zitotoxikoak dira. Leukotoxinak, berriz, leukozitoetan adierazitako  $\beta_2$  integrina-hartzailearen bidez lotzen zaizkio itu-zelulari, eta beraz, espezie- eta zelula-espezifikotasuna dituzte<sup>60</sup>. Hala ere, txosten ugari erakutsi dutenez, ia edozein RTX toxina atxiki dakioke itu-zelularen mintzari proteina-hartzaile batekin afinitate handiko elkarrekintza ezarriz, baina baita proteina espezifikorik ez dagoenean ere<sup>60,113,114,115</sup>.

#### 1.2.1.1. Proteina-hartzaile espezifikoen bidezko lotura

RTX toxina batzuek leukozitoetan adierazitako  $\beta_2$  integrina familiako hainbat kide ezagutzen dituzte<sup>60,114,116</sup>. Esaterako, *A. actinomycetemcomitans* eta *Mannheimia haemolytica* direlakoek jariatutako LtxA<sup>117</sup> eta LktA<sup>118</sup> leukotoxinak, itu-zelulak adierazitako  $\alpha_1\beta_2$  integrinari (CD11a/CD18) batzen zaizkio<sup>115</sup>. Berrikiago, UPEC HlyA leukozitoen hartzaile berarekin elkartzen dela jakinarazi da<sup>116</sup>. *B. pertussis*-ek jariatutako CyaA toxina, aldiz, zelula mieloideekin elkartzen da  $\alpha_M\beta_2$  integrinaren bidez (CD11b/CD18)<sup>114</sup>. Horrez gain, *Actinobacillus pleuropneumoniae*-ren ApxIIIa toxina ere  $\beta_2$  integrinaren CD18 azpiunitatearekin lotzen da<sup>119</sup>. Proteina-hartzaile bati afinitate handiz lotzen direnez, toxina horiek kontzentrazio oso baxuetan eraginkorrak dira. Hala, itu-zeluletan efektu ez-litiko ugari eragiten dituzte: funtzio bakterizidak ekiditea, zitokina proinflamatorioen askatzea estimulatzea edo ezabatzea, seinaleztapen- eta proteolisi-kaskada batzuk modulatzeko, zelula-zikloaren geldialdia eragitea edota kaspasak aktibatzea, besteak beste<sup>120-127</sup>.

*B. pertussis* CyaA toxinarekin eta  $\alpha_M\beta_2$  hartzailearen arteko elkarrekintza sakonki aztertu da (**1.7 irudia**)<sup>128,129</sup>. Toxina horrek  $\alpha_M\beta_2$  integrina erabiltzen du zelula-hartzaile gisa makrofagoetan, neutrofiloetan, zelula dendritikoetan eta NK (ingelesez *natural killer*) zeluletan<sup>114</sup>. Berrikiago, eta mikroskopia elektroniko kriogenikoa (ingelesez *cryogenic electron microscopy*, cryo-EM) erabiliz,  $\alpha_M\beta_2$  integrinaren ektodomeinuari lotutako CyaA-ren zati bat (751–1488 hondarrak) ebatzi da 2.7 Å-ko bereizmenarekin (**1.14 irudia**)<sup>130</sup>. Egitura horrek erakutsi du CyaA-k interakzio ez-kanonikoa ezartzen duela  $\alpha_M$  azpiunitatearen buruarekin ( $\beta$ -helize eta thigh domeinuak) eta calf-2 domeinuarekin, kurbatutako  $\alpha_M\beta_2$  inaktiboarekiko espezifikoa dena.



**1.7 irudia.  $\alpha_M\beta_2$  integrina heterodimerikoaren ektodomeinua.** 2.7 Å-ko bereizmeneko egiturak  $\alpha_M$  azpiunitatea horiz erakusten du eta  $\beta_2$  azpiunitatea gorriz. Marrazkian zelula-mintza erakutsi da, fosfolipido-molekulak (purpura) eta kolesterol-molekulak (laranja) adieraziz. Goldsmith-ek eta kideek ebatzitako integrina-egituratik ateratako irudia (PDB ID: 7USL)<sup>130</sup>. ChimeraX erabili da irudikatzeke<sup>131</sup>.

Era berean, CyaA-k  $\alpha_M$  katigatzen du kaltzioa lotzeko domeinuko I-II eta II-III blokeak elkartzen dituzten L1 eta L2 lotura-eskualdeak erabiliz. Toxina integrinari batzean RTX domeinuko K860<sup>97</sup> eta K983<sup>95</sup> palmitoilazio-tokiak itu-zelularen mintzaren planoan kokatzen dira, lisinen albo kateak mintzerantz begira daudelarik. Horrek esan nahi du RTX toxinen azilazioak itu-mintzean zuzenean txertatzearekin zerikusia izan dezakeela. Deigarria da ikerketa honetan azilatu gabeko RTX domeinuaren zati bat erabili zela integrinari lotzeko<sup>130</sup>. Aitzitik, beste ikerketa batean frogatu zen azilazioa beharrezkoa zela toxinak CD11b adierazten zuten zelulekin elkarreagin produktibo eta estua izateko<sup>128</sup>. Gainera, jakina da gantz-azidoek domeinu hidrofobikoko eta azilazio-domeinuko segmentu apolarren egonkortzea eragiten dutela; beraz, CyaA-ren azilazioa funtsezkoa da proteinak konformazio aktiboa har dezan<sup>101</sup>.

A. *actinomycescomitans*-en LtxA toxinari dagokionez, Gainazaleko plasmoi erresonantzia (ingelesez *surface plasmon resonance*, SPR) bidez erakutsi zuten toxinak afinitate handia zuela CD11a eta CD18 azpiunitateen eremu zitosolikoekin; aldiz, CD11b eta CD11c azpiunitateen eremu zitoplasmaticoekin afinitatea nabarmen txikiagoa izan zen<sup>132</sup>. Berrikiago, U-937 zelula-liburutegi mutante batean egindako genoma osoko alboratu-gabeko hautapen positibo



## 1. KAPITULUA: SARRERA


batek erakutsi zuen CD18 azpiunitatea bera beharrezkoa eta nahikoa dela UPEC HlyA-ren jarduera zitotoxikorako, eta lau alfa azpiunitateak, berriz, ez direla inola ere beharrezkoak<sup>133</sup>. Ikerketa lan berean frogatu zuten *A. actinomycetemcomitans*-en LtxA  $\beta_2$  integrinaren  $\beta$  azpiunitatearekin elkartzen dela. Puntu interesgarri bat da, *B. pertussis*-en CyaA-k ez bezala<sup>130</sup> beste RTX toxinen lotura-eremuek ez dutela blokeen arteko lotura eskualderik. Horri dagokionez, berriki ikusi da UPEC HlyA-ren RTX domeinua *B. pertussis*-en CyaA-ren RTX domeinuarekin trukatzek toxinen espezifikotasuna aldatzen duela, eta ondorioz,  $\alpha_L\beta_2$  hartzaileari lotzen zaiola  $\alpha_M\beta_2$  hartzaileari ordez<sup>134</sup>.

### 1.2.1.2. Proteina-hartzaile espezifikorik gabeko lotura

$\beta_2$  integrinarekin ezarritako afinitate handiko elkarrekintza espezifikoari esker, leukozitoak RTX toxinen itu-zelularik probableenak dira. Hala ere, dosi handiagoetan RTX toxina gehienak zitotoxikoak dira  $\beta_2$  integrinarik gabeko zeluletan ere. Horietako batzuk (HlyA, CyaA eta LtxA) proteinarik gabeko liposomekin eta lipido-bigeruza lauekin elkarreragiteko gai dira<sup>135-138</sup>. Horrez gain, zenbait RTX toxina fosfolipidoz soilik osotutako liposomei lotu eta horiek iragazkor bihurtzeko gai ere badira<sup>139-141</sup>.

Giza leukozitoak 100 aldiz sentikorrangoak dira UPEC HlyA-rekiko, maskuri- edo giltzurrun-zelula epitelialak baino<sup>133</sup>. Hala ere, kontzentrazio altuagoetan HlyA zitotoxikoa da giltzurrun-zelula horientzat, baita beste ostalari- eta zelula- mota askorentzat ere (eritrozito, granulozito, monozito, endotelio-zelula edo arratoi, hausnarkari eta primateen giltzurrun-zelula epitelialentzat)<sup>142-148</sup>. Era berean, kontzentrazio handietan *A. actinomycetemcomitans*-en LtxA eta *M. haemolytica*-ren LktA toxinen jarduera hemolitikoa ere hauteman daiteke eritrozitoetan<sup>113,149</sup>. Bestalde, *B. pertussis*-en CyaA kantitate handiek zelula epitelialak, fibroblastoak eta eritrozitoak intoxikatu ditzakete<sup>60</sup>; *K. kingae*-ren RtxA, berriz, zitotoxikoa da zelula sinobial, hezurretako osteosarkoma, arnas zelula epitelial eta ardien eritrozitoetarako<sup>150,151</sup>. Horrek guztiak iradokitzen du, beraz, RTX toxinek zelula-hartzailearekiko modu independentean ere jardun dezaketela zelula-mintzean. UPEC HlyA-ren eta bigeruza lipidikoaren arteko elkarreragina bi urratsetan gertatzen dela dirudi. Hasteko, indar elektrostatiokoekiko sentikorra den adsortzio-urrats itzulgarri bat dago, eta ondoren, mintzean txertatzeko urrats itzulezin bat<sup>152,153</sup>. RTX toxinen adsortzioa toxinekiko sentikorrak diren zeluletan nahiz toxinekiko erresistenteak diren zenbait zelulatan hauteman daiteke<sup>154</sup>. HlyA-ren errepikapen domeinu isolatuarekin egindako azterketek erakutsi dutenez, proteina mintzean adsorbatzen da mintz-interakzioaren lehen etapetan<sup>155</sup>.

Zenbait RTX toxinen kasuan, zelula-mintzarekin lotzeko toxinek glikosilatutako lipido edo proteinetan dauden glikanoekin elkarrekintzak ezartzen dituzte. Adibidez, *A. actinomycetemcomitans*-en LtxA eritrozitoekin lotzeko, zelula ostalarian dagoen osagaien batekin afinitate txikiko elkarrekintza bat zegoela deskribatu zen<sup>113</sup>. Garrantzitsua da nabarmentzea gangliosidoek eritrozitoetan hartzaile funtzional gisa jarduten dutela, baina ez leukozitoetan edo beste zelula batzuetan<sup>156</sup> (**1.8 irudia**). Gainera, iradoki zen azido sialiko hondarrak<sup>157</sup>, zelulen gainazaleko glikoproteina, glikolipido eta gangliosidoen parte direnak, gangliosidoen beharrezko osagaiak direla toxinak induzitutako zelula-lisirako<sup>156</sup>, berdin dio horiek  $\beta_2$  integrinei edo beste egitura batzuei lotuta egon<sup>158</sup>. Esaterako,  $\beta_2$  integrinarik gabeko zeluletan azido sialiko hondarrek LtxA-rentzat oso espezifikoak ez diren lotura-gune gisa jardun dezakete<sup>159</sup>.  $\beta_2$  integrina adierazten duten globulu zurien kasuan, pentsa daiteke integrina-molekulei lotutako sakarido batzuk garrantzitsuak izan daitezkeela LtxA-rekiko elkarrekintzan.



**1.8 irudia. Gangliosidoen adibide batzuk.** Azido sialiko (azido N-azetilneuraminikoa, Neu5Ac) bakarria duten GM1 (PubChem CID 20057297) eta GM3 (PubChem CID 9812294) gangliosidoen egitura kimikoaren adierazpen eskematikoa.

Hasierako zenbait txostenek ere adierazi zuten *B. pertussis*-en CyaA eta mintz zelularren arteko elkarrekintzan gangliosidoek parte hartzen zutela, baita integrina adierazten duten zeluletan ere<sup>159,160,161</sup>. Adibidez, frogatu zen GM1-ekin lotzen den kolera toxinen B azpiunitatea (ingelesez *cholera toxin subunit B*, CTB) CyaA-rekin lehiatzen dela GM1-en

## 1. KAPITULUA: SARRERA

lotura gune berdinari batzeko<sup>161</sup>. Bestalde, CyaA-ren batura jaitsi egin zen  $\alpha_M\beta_2$  adierazten duten hainbat zelulei muturreko azido sialiko hondarrak eta zelula-gainazaleko beste glikoproteina batzuk neuraminidasaz ezabatu zitzaizkienean<sup>159</sup>. CyaA lotura ia guztiz deuseztatu zen gainazaleko glikoproteinen N-motako oligosakaridoak kendu zirenean edota proteina sintetizatu berrien N-glikosilazioa oztopatu zenean<sup>159,162</sup>. Hala, autoreek ondorioztatu zuten  $\alpha_M\beta_2$  integrinaren N-glikosilazioa funtsezkoa dela CyaA-k integrina-hartzailea ezagutzeko eta haren ondorengo jarduera zitotoxikoetarako. Beraz, CyaA-k selektiboki hauteman ditzake integrinari loturiko oligosakaridoen N-motako azukre-hondarrak<sup>159</sup>. Bitxia bada ere, duela gutxi cryo-EM bidez ebatzi den konplexu tertziarioaren mapan (Fab M1F5-RTX751- $\alpha_M\beta_2$  ektodomeinua) ondo ebatzitako N-motako glikano ligatua agertzen da  $\alpha_M$  calf-2 domeinuko N1.059 posizioan. Glikanoaren erdiguneko fukosa hondarra RTX751 zatiko L1124 eta F1125 hondarren artean paketatuturik dago<sup>130</sup>. Lehenago frogatu zuten asparagina hondarrak bakarka glutaminaz ordezkaturik, CD11b azpiunitatearen 469, 692, 801, 900, 978, 1021 eta 1075 posizioetan, CyaA-ren lotura murrizten zutela. Gainera, CyaA-k eragindako itu zelula barneko adenosina monofosfato ziklikoaren (cAMP) ekoizpena murriztu egin zen integrina mutanteak adierazten zituzten zeluletan, CD11b azpiunitateko 469, 801, 978 eta 1075 posizioetan ordezkapenak egindakoan. Ebatzitako egiturak, ordea, ez du adierazten aipaturiko asparagina hondar horiekin elkarrekintzarik dagoenik eta horrek iradokitzen du glukano horiek ez liratekeela guztiz beharrezkoak izango CyaA  $\alpha_M\beta_2$  integrinarekin lotzeko.

Berriki argitaratutako lan baten arabera, *K. kingae*-ren RtxA toxinak zelula ostalariari lotzeko gainazalean dauden oligosakaridoak behar ditu (azido sialiko hondarrak eta zelula-gainazaleko glikoproteinen beste sakarido-unitate batzuk)<sup>163</sup>. Emaitza horien guztien ondorioz, hainbat autorek planteatu dute zenbait zelulatan RTX zitotoxinen hasierako lotura asegabea glikosilatutako osagaien bidez gerta daitekeela, hala nola glikoproteinak eta gangliosidoak erabiliz.

### 1.2.2. Kolesterolaren beharra RTX toxinen jarduera zitolitiko/zitotoxikorako

Mintzeko kolesterola hainbat RTX toxinen ekintza-mekanismorako funtsezkoa dela frogatu izan da<sup>135,138,150,164,165</sup>. Toxinen hartzaile espezifikoa den  $\beta_2$  integrina adierazten duten itu-zeluletan ere, toxina horiek kolesterolarekiko mendekotasuna erakutsi dute.

Esate baterako, *A. actinomycetemcomitans* LtxA-ren kasuan, zelula ostalariaren mintzetik kolesterola kentzeak nabarmen inhibitzen du toxinak Jurkat (Jn.9) eta THP-1 zelulak (monozito eta T linfozito zelula-lerroak, hurrenez hurren) hiltzeko duen gaitasuna<sup>166,167</sup>. Alta, mintz

plasmatikoa berriz kolesterolez bete ondoren, LtxA immunitate-zelula horiek kutsatzeko gai da<sup>107</sup>.

Era berean, J774A.1 makrofagoen mintz plasmatikoko kolesterol-edukia gutxitzeak nabarmen jaitsi zuen *B. pertussis* CyaA-ren translokazio ahalmena<sup>165</sup>. Askoz lehenago, liposoma barneko edukiaren askapena neurtuz, beste talde batek jakinarazi zuen kolesterolak nabarmen handitzen duela CyaA-k eragindako lisi zelularra, menpekotasuna dosiaren arabera izanik<sup>135</sup>. Berrikiago, gure taldeak azaldu zuen eritrozitoak kolesterol oxidasarekin tratatzeak nabarmen murrizten duela CyaA-k eragindako hemolisia, eta 1,2-Dioleoil-sn-glizero-3-fosfokolina (DOPC) puruz osatutako liposometan kolesterola gehitzeak handitu egiten duela CyaA-ren ahalmen litikoa<sup>168</sup>.

Mintzeko kolesterola kendu zaien eritrozitoak ere ez dira hain sentikorak UPEC HlyAren jardura hemolitikoarekiko<sup>169</sup>. Horrez gain, fosfolipido-bigeruzetan kolesterola gehitzeak toxina mintzean modu itzulezinean sartzea eragiten zuela eta horrek haren jardura litikoa areagotzen zuela frogatu zuten<sup>164</sup>.

Azkenik, kolesterola *K. kingae* RtxA-ren jardura zitotoxikorako ere garrantzitsua da<sup>150</sup>. Hortaz, baliteke RTX familiako toxinek kolesterola behar izatea mintzetan jardura egokia izan dezaten.

### 1.2.2.1. RTX toxinen eta mintzeko kolesterolaren arteko lotura

Proteinen eta kolesterolaren arteko elkarreraginen karakterizazioa zaila da, kolesterolak proteinen funtzioak modulatu dituelako zuzeneko loturaren bidez (i.e. espezifiko) edota zeharka (i.e. ez-espezifiko) mintzaren jariakortasuna aldatuz<sup>28-33</sup>.

Gero eta argitalpen gehiagok adierazi dute mintzeko kolesterola funtsezkoa dela zenbait RTX toxinen ekintza-mekanismoarako eta toxina horiek zuzenean elkarreragiten dutela kolesterolarekin<sup>138,150,164,166-168,170</sup>. Besteak beste, UPEC HlyA-k interakzio zuzena du kolesterolarekin, baina ez SM-rekin<sup>164</sup>. Era berean, *A. actinomycetemcomitans*-en LtxA toxinak ere kolesterola duten mintzekiko duen afinitatea, kolesterolik gabeko mintzekiko duena baino lau magnitude-ordena handiagoa da<sup>138</sup>. *K. kingae*-ren RtxA zitotoxinak kolesterolarekin espezifiki bat egiten duela ere iradoki zuten; izan ere, toxina kolesterolarekin aurreinkubatzeak nabarmen murriztu zuen toxinen eritrozitoak lisatzeko ahalmena<sup>150</sup>. Gainera, toxina honek geruza bakarreko besikula erraldoietara (ingelesez *giant unilamellar vesicles*, GUV) batzeko afinitate handia zuela ere hauteman zen, 1-palmitoil-2-oleoil-sn-glizero-3-fosfokolina (POPC) eta kolesterola (POPC:CHOL, 3:1 erlazio molarra)

## 1. KAPITULUA: SARRERA

erabiliz. Aldiz, POPC puruz osatutako GUV-ekiko lotura ahula izan zen. Azkenik, egileek erakutsi zuten toxina gai dela kolesterolarekin elkarreraginean aritzeko, mintzaren beste osagai batzuk edozein direla ere<sup>150</sup>.

RTX toxinek kolesterolarekin duten interakzio zuzenari dagokionez, bi gauza nabarmendu behar dira. Lehenik eta behin, orekako disoziazio-konstantearen ( $K_D$ ) balioak, batez ere SPR bidez zehaztu direnak, oso aldakorrek dira, magnitude-ordena  $10^{-5}$  M-tik  $10^{-12}$  M-ra aldatzen baita (**1.1 Taula**). Bigarren puntua da kolesterolarekin lotzeko zehaztutako oreka-konstanteen ( $K_d$ ) balioak txikiagoak direla (beraz, afinitate handiagoa) toxinek  $\beta_2$  integrina-hartzaile espezifikoa lotzeko zehaztutako  $K_d$  balioak baino.

*A. actinomycetemcomitans* LtxA-rentzat, eta SPR erabiliz, afinitate maximoa % 40 kolesterola zuten mintzekin lortu zen ( $K_D \sim 10^{-12}$  M); kolesterolik gabeko mintzekin alderatuz ( $K_D \sim 10^{-8}$  M) afinitatea lau magnitude-ordena baino handiagoa izan zen<sup>138</sup>. Titulazio isotermikoko kalorimetria (ingelesez *isothermal titration calorimetry*, ITC) erabiliz, talde berak LtxA eta POPC-ren arteko interakzioaren  $K_D$  balioa zehaztu zuen ( $8,75 \times 10^{-4}$  M). LtxA eta POPC/CHOL arteko interakziorako  $K_D$  balioa, berriz,  $2,31 \times 10^{-10}$  M izan zen, 6 magnitude-ordena faboragarriagoa zena. Konparazioz, SPR bidez zehaztutako LtxA eta  $\alpha_L$  eta  $\beta_2$  integrina-kateen eremu zitoplasmatikoen arteko  $K_d$  balioak, hauek izan ziren, hurrenez hurren:  $1,50 \times 10^{-8}$  M eta  $4,20 \times 10^{-9}$  M, eta beste integrina batzuen ( $\alpha_M$ ,  $\alpha_X$  eta  $\beta_3$  azpiunitateen) eremu zitoplasmatikoetarako,  $4,00 \times 10^{-7}$ ,  $1,80 \times 10^{-7}$  eta  $2,30 \times 10^{-7}$  M, hurrenez hurren<sup>171</sup>.

*K. kingae*-ren RtxA toxina eta POPC mintzen arteko  $K_D$ -a  $1,5 \times 10^{-9}$  M ingurukoa izan zen, eta kolesterola duten mintzekikoa (POPC/CHOL 3:1, erlazio molarra)  $1,71 \times 10^{-10}$  M<sup>150</sup>.

UPEC HlyAren kasuan,  $1,6 \times 10^{-5}$  M-ko  $K_D$  balioa zehaztu zen DOPC/CHOL (4:1 erlazio molarra) liposomekin elkarrekintzan aritzeko. Konparazioz, talde berak HlyA-glikoforina elkarrekintzak afinitate handiagoa ( $K_D = 6,1 \times 10^{-7}$  M) zuela zehaztu zuen HlyA-kolesterol interakzioak baino<sup>164</sup>. Glikoforina HlyA-ren afinitate handiko lotura-bikotea da eritrozitoetan<sup>172</sup>.

**1.1 taula. Zenbait RTX toxinek kolesterolarekiko duten afinitatea ( $K_D$ , M).**

RTX TOXINA	LIPIDO KONPOSIZIOA	$K_D$ (M)	NEURKETA METODOA	ERREFERENTZIA
<i>A. actinomycetemcomitans</i> LtxA	POPC/CHOL (3:2 erl. molarra)	$1,00 \times 10^{-12}$	SPR	Brown eta kideak <sup>138</sup>
	POPC/CHOL (3:2 erl. molarra)	$2,31 \times 10^{-10}$	ITC	Koufos eta kideak <sup>171</sup>
<i>K. kingae</i> RtxA	POPC/CHOL (3:1 erl. molarra)	$1,71 \times 10^{-10}$	SPR	Osickova eta kideak <sup>150</sup>
UPEC HlyA	DOPC/CHOL (4:1 erl. molarra)	$1,60 \times 10^{-5}$	SPR	Vazquez eta kideak <sup>164</sup>

### 1.2.2.2. CRAC/CARC motiboak RTX toxinen eta mintzeko kolesterolaren arteko elkarrekintzaren determinatzaile molekular posible gisa

Proteinen eta kolesterolaren arteko elkarreragina karakterizatzea zaila bada, interakzio horren determinatzaile molekular zehatzak deszifratzea are zailagoa da. Kolesterola ezagutzeko motiboek molekula-mailan zenbait RTX toxinen eta kolesterolaren arteko elkarrekintza zehaztu dezaketela adierazten duten ebidentziak daude<sup>138,150,164</sup>.

Mintzeko kolesterolari zuzenean lotzen zaizkion PFT-en kasuan, lotura egiteko erabil daitezkeen lipidoaren atomoak –OH taldera mugatzen dira, eta Ld fasean baino ezin dira erabili. Lo fasean, aterki-efektuaren ondorioz<sup>173,174</sup> esfingolipidoen talde polarrek erabat maskaritzen dute kolesterola. Beraz, probabilitate gutxi dago *raft*-ei elkartutako kolesterolaren –OH taldea proteina baten TM domeinuarekin edo zelulaz kanpoko proteina batekin lotzeko<sup>32,50</sup>. Esfingolipidoek, normalean, kolesterolaren  $\alpha$  aurpegiarekin elkarreragiten dute, eta  $\beta$  aurpegia erabilgarri uzten dute TM domeinuetarako. Aitzitik, PC/CHOL konplexuetan, kolesterolaren  $\alpha$  eta  $\beta$  aurpegiak erabilgarri daude TM domeinuekin elkarrekintzan aritzeko<sup>175</sup>. Gainera, kolesterolaren –OH taldea ez dago konplexuan murgilduta eta beraz, TM domeinuekin hidrogeno-loturak eratzeko erabil daiteke.

Mintzeko kolesterolarekin interakzio zuzena duten hainbat egitura proteiko dokumentatu dira, bai mintzeko proteina integraletan<sup>176</sup>, zein kolesterolarekin elkarreragiten duten hainbat bakterio-toxina<sup>177–179</sup> eta birus-proteinatan<sup>180–184</sup>. Bakterio- eta birus-proteinek kolesterolarekin elkarreragin zuzena izateak iradoki dezake motibo horiek zelula eukariotoen mintzak errekonozitzeko eboluzionatu izana.

Kolesterolari lotzen zaizkion motiboen artean CRAC, kolesterolaren ezagutzarako/interakziorako aminoazido-adostasuna, deritzona eta alderantzizko CARC motiboa dira sakonean aztertu direnak<sup>33,185,186</sup> (**1.9 irudia**). CRAC motiboa 5–13

## 1. KAPITULUA: SARRERA


aminoazidoko segmentu lineal labur bat da, normalean TM helizeen amaieran egoten dena, eta oso arau biokimiko sinpleak betetzen dituena kolesterolarekin lotzeko. Honako algoritmo honen bidez definitzen da N-muturretik C-muturrera: leuzina edo balina hondar apolar adarkatua, ondoren, edozein 1–5 hondar dituen segmentu bat, **tirosina** hondar aromatikoa; jarraian, beste segmentu bat edozein 1–5 hondar dituen, eta azkenik, lisina edo arginina basiko bat ((L/V)-X<sub>1-5</sub>-(Y)-X<sub>1-5</sub>-(R/K))<sup>185</sup>. CARC motiboa, berriz, (R/K)-X<sub>1-5</sub>-(Y/F/W)-X<sub>1-5</sub>-(L/V)<sup>33</sup> patroiarri dagokio. CRAC motiboek ez bezala, CARC motiboek **tirosina, fenilalanina** edo **triptofanoa** onar ditzakete motiboen erdigunean<sup>187</sup> eta lisina edo arginina hondar polarrak N-muturrean kokatzen dira. Hala ere, bi motiboek antzeko antolamendua dute, eta beraz, CRAC-kolesterola elkarrekintzei aplikatzen zaizkien arau biokimikoak CARC guneentzat ere aplikatzen dira<sup>32,188–190</sup>.

Azken hamar urteetan, gero eta CRAC/CARC motibo gehiago identifikatu dira hainbat RTX toxinen egitura primarioan<sup>138,150,164,191</sup>. Lehenbizi, *A. actinomycetemcomitans* LtxA toxinen aminoazido sekuentziaren azterketak bi CRAC motibo identifikatu zituen<sup>138</sup>. Bata CRAC<sup>336</sup> gunea (<sup>333</sup>LEEYSKR<sup>339</sup>), domeinu poro-eragilean kokatzen da eta RTX toxinetan kontserbatuta dago, *B. pertussis*-en CyaA toxinan izan ezik; bestea, CRAC<sup>503</sup> gunea (<sup>501</sup>VDYLK<sup>505</sup>), domeinu hidrofobikotik gora kokatzen da eta LtxA-n bakarrik identifikatu da<sup>138</sup>. Bilaketa-algoritmoan CARC guneak ere sartzen badira, CRAC<sup>336</sup> motiboaren ostean dagoen CARC<sup>346</sup> gunea (<sup>340</sup>RFKFGYNGDSL<sup>351</sup>) ere aurreikus daiteke.

2014an, kolesterolari lotzeko 20 motibo (zazpi CRAC eta hamahiru CARC) identifikatu ziren UPEC HlyAren sekuentzia osoan. Horietatik, lau CRAC eta hiru CARC motibo HlyA-ren domeinu poro-eragilean daude<sup>164</sup>.

*K. kingae*-ren RtxA toxinen kasuan, kolesterolari lotzeko bost leku potentzial identifikatu ziren domeinu poro-eragilean edo haren ondoan (140–410 hondarrak)<sup>150</sup>. Horietako bi, CRAC<sup>54</sup> (<sup>48</sup>LTIPKDYEK<sup>58</sup>) eta CRAC<sup>352</sup> (<sup>349</sup>LAEYQR<sup>354</sup>) guneak dira, eta hiru CARC<sup>285</sup> (<sup>280</sup>KAISSYVL<sup>287</sup>), CARC<sup>343</sup> (<sup>340</sup>KFGYDGDLS<sup>348</sup>) eta CARC<sup>448</sup> (<sup>444</sup>RHAHYLERNL<sup>453</sup>).

2017an, bost CRAC motibo iragarri ziren *B. pertussis*-en CyaA toxinen domeinu poro-eragilean: CRAC<sup>632</sup> (<sup>627</sup>VQQSHYADQLDK<sup>638</sup>), CRAC<sup>658</sup> (LAQLYRDK), CRAC<sup>725</sup> (<sup>721</sup>LANDYARK<sup>728</sup>) eta CRAC<sup>738</sup> (<sup>732</sup>LGGPQAYFEK<sup>741</sup>) motiboak<sup>170</sup>.



**1.9 irudia. Kolesterolaren ezagutzarako/interakziorako aminoazido-adostasun motiboak.** (A) CRAC/CARC motiboen ispilu-topologia, hainbat TM domeinu ageri dira proteina beraren barruan. Lerro etenek mintzaren barnealdea eta kanpoaldea bereizten dituzte. Kolesterola garraiatzen duten proteina askok CRAC (L/V)-X<sub>1-5</sub>-(Y)-X<sub>1-5</sub>-(K/R) edo CARC (R/K)-X<sub>1-5</sub>-(Y/F/W)-X<sub>1-5</sub>-(L/V) motiboren bat dute mintzaren aldameneko eskualdean. (B) Kolesterol-molekularen eta CRAC/CARC motiboen aminoazido partikularren arteko elkarrekintzaren ilustrazio eskematikoa. CRAC/CHOL konplexuak buru-buru/isats-isats geometria paraleloa dauka<sup>190,192</sup>. N-muturreko leuzina edo balina hondar apolar adarkatuak isooktilo-kateari lotzen zaizkio Van der Waals interakzioen (Londonen indarrak) bidez; nahitaezko hondar aromatikoa (tirosina, fenilalanina edo triptofanoa) lau esterano eraztunetako batean pilatzen da (CH- $\pi$  pilaketa); eta C-muturreko lisina edo argina hondar polarrek kolesterolaren -OH taldearekin hidrogeno zubiak eratzen dituzte. Hondar aromatikoa gai dira kolesterolaren  $\alpha$  aurpegi leunean pilatzeko edo  $\beta$  aurpegi zimurtsutik ateratzen diren punta alifatikoen artean tartekatze. Haien kokapena X<sub>1-5</sub> lokailuen luzerak zehazten du<sup>190,192</sup>. Fantini eta kideengandik moldatua<sup>190</sup>.



## 1. KAPITULUA: SARRERA

Bi ebidentzia-lerro erabili dira nagusiki CRAC/CARC segmentuek funtzioarekin duten erlazioa frogatzeko. Batetik, motibo potentzial bat mutatzeko eta horrek proteinaren funtzioa eta/edo kolesterolarekin duen interakzioa aldatzen duen zehaztea. Estrategia alternatibo bat dagokion CRAC/CARC motiboa daukan peptido sintetiko bat erabiltzea da eta peptidoak kolesterolarekin elkarreraginean aritzeko gaitasunik ba ote duen aztertzea.

Adibidez, *A. actinomycetemcomitans*-en LtxA proteina osoaren CRAC mutanteak erabiliz (LtxA-Y336P eta LtxA-Y503P), Brownek eta kideek frogatu zuten identifikatutako bi CRAC motiboetatik CRAC<sup>336</sup> gunea bakarrik zela funtsezkoa toxinen zitotoxikotasunerako. Gainera, bi motibo horiei dagozkien peptido motzak aztertu zituzten SPR eta ekorketa bidezko kalorimetria diferentziala (ingelesez *differential scanning calorimetry*, DSC) erabiliz. Bi peptidoek kolesterola lotzen zutela jakinarazi zuten, baina CRAC<sup>336</sup> guneari dagokion peptidoak bakarrik inhibitzen zuen LtxA-kolesterol lotura eta hortaz, toxinak Jn.9 zelulak hiltzeko zeukan gaitasuna<sup>138</sup>. Autoreek ITC erabiliz  $5,05 \times 10^{-8}$  M-ko  $K_D$  balioak eman zituzten CRAC<sup>336</sup> peptidoaren eta POPC/CHOL (3:2 erlazio molarra) liposomen arteko elkarrekintzarako<sup>171</sup>.

UPEC HlyA-ren kasuan, bi peptido aztertu ziren, bata domeinu poro-eragilean kokatutako CARC<sup>347</sup> gunetik (<sup>341</sup>RFKKLGYDGDSLL<sup>353</sup>) eratorria, eta bestea azilatutako bi lisinen artean zegoen CRAC<sup>641</sup> gunetik (<sup>639</sup>VVYYDK<sup>644</sup>) eratorria<sup>193</sup>. Autoreek bi peptidoen eta lipido-konposizio desberdineko mintzen (POPC eta POPC/CHOL, 4:1 eta 2:1 erlazio molarra) arteko elkarrekintza aztertu zuten, SPR eta dinamika molekularreko (ingelesez *molecular dynamics*, MD) simulazio bidez. Bi peptidoek kolesterola duten mintzekin elkarreragiten dutela erakutsi zuten, baina CRAC<sup>641</sup> guneko peptidoak  $K_D$  balio txikiagoa izan zuen. Gainera, azken peptido hori bakarrik izan zen gai HlyA-k eragindako jarduera hemolitikoa inhibitzeko<sup>193</sup>.

2018an, Osickovak eta kolaboratzaileek *K. kingae* RtxA-ren eremu hidrofobikoan identifikatutako bost CRAC/CARC gunetako tirocina hondarrak (Y54, Y285, Y343, Y352 eta Y448) ordeztu zituzten fenilalaninarengatik. Autoreek erakutsi zuten Y54F, Y285F eta Y448F ordezkapenek ez zutela eragin nabarmenik izan toxinak eragindako eritrozitoen lisian. Aitzitik, Y343F eta Y352F ordezkapenek jarduera litikoa % ~50era jaitsi zuten RtxA basatiarekin (WT) alderatuz<sup>150</sup>.

Masin eta kolaboratzaileek argitaratutakoaren arabera, *B. pertussis*-en CyaA toxinan lau CRAC motibotako tirocina hondar zentralak (Y632, Y658, Y725 eta Y738) fenilalaninagatik ordezkatzeko ez zuen translokazioan ezta jarduera hemolitikoan eraginik izan<sup>170</sup>. Hala ere,

CyaA-k kolesterolarekiko duen mendekotasuna oraindik identifikatu gabeko CRAC/CARC motibo batzuekin lotuta egon liteke.

Azken batean, badirudi RTX familiako hainbat toxinek CRAC/CARC motiboak erabiltzen dituztela kolesterola zuzenean lotzeko determinatzaile molekular gisa. Hurrengo atalean, *B. pertussis*-en CyaA-ri, doktorego-tesi honetan aztertutako RTX familiako toxinari, buruzko informazioa eguneratu dugu.


### 1.3. ADENILATO ZIKLASA TOXINA (CyaA)

CyaA *Bordetellae* patogenoek (*B. pertussis* eta estuki lotutako beste espezie batzuk) jariatutako adenilato ziklasa/hemolisina bifuntzionala da. Leukotoxina poro-eragile hau funtsezkoa da *B. pertussis*-en, kukutxeztularen bakterioaren, birulentziarako. CyaA 1706 aminoazidoz osatutako kate-polipeptidiko bakarra da eta garrantzitsua da bakterioak gizakien arnas traktua kolonizatzeko eta gaixotasuna finkatzeko<sup>194,195</sup>. Duela ia 50 urte aurkitu zuten *B. pertussis* hazkuntzen gainjalkinetan<sup>92</sup>, eta ondoren, kalmodulina eukariotikoaren (CaM)<sup>196</sup> bidez aktibatzen zela deskribatu zen. Zelula eukariotoak inbaditzeko gai da, eta erregulatu gabeko cAMP gehikuntza eragiten du itu-zelularen zitosolean<sup>120,197</sup>. Kromatografia-tekniken bidez purifikatu zen, eta proteina termolabiltzat hartu zen. 30 °C-an eta pH 7–8an adierazten du jarduera maximoa, eta magnesio-ioiak (Mg<sup>2+</sup>) behar ditu<sup>92</sup>. CyaA-ren ezaugarri estrukturalak, funtzionalak eta kimikoak jarraian deskribatu dira.

#### 1.3.1. Egiturazko ezaugarriak

RTX familiako beste kideekin alderatuz, CyaA-k egitura-homologia du<sup>198</sup>. Hala ere, baditu bere berezitasunak, jarduera independenteak dituzten bi domeinu baititu<sup>199,200</sup> (**1.10 irudia**). N-muturreko AC domeinuak zelula ostalariaren zitosoleko ATP cAMP bihurtzen du; C-muturreko gainerako hondarrak, berriz, domeinu poro-eragilearen parte dira (RTX domeinua)<sup>201</sup>. Ebidentzia horrek aditzera ematen du *cyaA* genea RTX toxina bat eta adenilato ziklasa bat kodetzen zituzten bi gene elkartzearen ondorioz sortu zela<sup>202</sup>.

## 1. KAPITULUA: SARRERA




**1.10 irudia.** *B. pertussis*-en CyaA toxinarene egitura-antolaketa<sup>203</sup>. Toxinaren AF2 modelo<sup>204,205</sup> eta domeinuen adierazpen eskematikoa. Kolore-kodea **1.6 irudian** erabilitako berdina da. ChimeraX erabili da irudikatzen<sup>131</sup>.

### 1.3.1.1 Adenilato ziklasa (AC) domeinua

CyaA-ren N-muturrak, ~1–400 aminoazidoak, (~40 kDa) aktibitate entzimatikoa du (**1.11 irudia**) eta bi azpi-domeinuz (T25 eta T18) osatuta dago, *in vitro* lor daitezkeenak proteolisi partzialaren bidez<sup>206</sup>:

T25 (1–224 hondarrak): ATP lotzen duten proteina gehienetan dagoen G-X-X-X-G(A)-K-S adostasun-motiboa du. K58 eta K65 hondarren mutazioek (**1.11 irudia**, beltzez adierazia) toxinarene jardura katalitiko nabarmen murriztea eragiten dute. Beraz, hondar horiek zentro katalitikoaren parte direla uste da, baina beste batzuk ere egon daitezke inplikaturatuta<sup>207</sup>.

T18 (225–399 hondarrak): CaM lotzen duten  $\alpha$ -helize anfiptikoek osatzen dute azpidomeinu hori. Mutagenesi zuzenduak erakutsi zuenez, CaM lotzeko gunea W242 hondarretik gertu egon behar da (laranjaz), triptofano hori ordezkatzeko nabarmen murrizten baitu CaM-rekiko afinitatea<sup>208</sup>. Lau eskualde diskretu eta 49 hondar elkartzen dira CaM-rekin eta CaM inguratzen duten gatz-zubien, hidrogeno-loturen eta interakzio hidrofobikoen sarea osatzen dute. CaM-ren 41–70 hondarrak AC domeinuarekin kontaktu estuan daude. Lotura horrek zentro katalitiko dagoen *loop*-a egonkortzen du.



**1.11 Irudia. AC domeinuaren kristal-egitura, CaM-ren C-muturreko domeinuari lotua.** CyaA-ren AC domeinuaren egitura sekundarioa (1–364 hondarrak) berdez ageri da, eta CaM gorriz adierazi da  $\text{Ca}^{2+}$ -ri lotuta (esfera purpurak). W242 laranja eta K58 eta K65 beltzez adierazi dira. Elkarrekintza AC domeinuaren positiboki kargatutako gainazalaren bidez gertatzen da, CaM proteina azidoa baita (pI 4.1), metalentzako lau lotura-gunerekin.  $\text{Ca}^{2+}$ -en loturak 400 aldiz handitzen du AC domeinuarekiko afinitatea<sup>209</sup>. Hiru  $\text{Mg}^{2+}$ -k parte hartzen dute konplexuan. Guok eta lankideek ebatzitako kristal-egituratik eratorritako irudia (PDB ID: 1ZOT<sup>210</sup>). ChimeraX erabili da irudikatze<sup>131</sup>.


CaM-rekin elkartzeak gutxieneko konformazio-aldaketak eragiten ditu AC domeinuaren egitura sekundario eta tertziarioan, eta eragin handia du haren propietate hidrodinamikoetan. AC domeinu isolatua esferikoa eta hidratatua da, baina CaM-rekiko elkarrekintzak luzatu, trinkotu eta deshidratatu egiten du. Zelula barneko CaM-k bat egingo luke AC domeinuarekin, afinitate subnanomolarrarekin, eta hein handi batean, toxinen jarduera katalitikoa bultzatuko luke ( $K_{\text{cat}} > 2000\text{s}^{-1}$ )<sup>196</sup>.

### 1.3.1.2. Translokazio-eskualdea (TR)

AC eta RTX domeinuak lotzen, 400–500 hondarren artean, translokazio-eskualdea (TR) deritzona dago, AC domeinuaren mintzean zeharreko garraioan zuzenean inplikaturik dagoena<sup>211</sup>. 375–485 hondarrak kentzeak erabat ezabatu zuen toxinak itu-zelula barneko cAMP maila emendatzeko duen gaitasuna; aldiz, toxinak fenotipo “hiperhemolitikoa” erakutsi zuen<sup>212</sup>. Horrez gain, antigorputz monoklonal bat 373–399 aminoazidoen artean dagoen epitopoarekin elkartzeak ere inhibitu egin zuen AC domeinuaren translokazioa<sup>213</sup> eta hemolisi-jarduera hirukoitz edo lauhoitza eragin zuen<sup>212</sup>. Azkenik, translokazio-eskualdean dauden positiboki kargatutako hondarrek mintzaren ezegonkortzean eta AC domeinuaren translokazioan parte hartzen dutela dirudi<sup>214</sup>. 419–448 arteko karga neto negatibodun hondarrek, berriz, poroaren tamaina eta maiztasuna kontrolatzen dituzte<sup>214</sup>.

## 1. KAPITULUA: SARRERA

Erresonantzia magnetiko nuklear (ingelesez *nuclear magnetic resonance*, NMR) bidez zehaztu zen translokazio-eremua bi  $\alpha$ -helizek (h1 eta h2) osatzen dutela<sup>215</sup> (**1.12 irudia**); hala ere, orain arte ez zegoen argi bi helizeek mintzarekin elkarreragiten ote duten translokaziorako. Helize bakoitzari dagozkion bi peptido sintetiko erabiliz, talde batek frogatu zuen h2 simulatzen duen peptidoa (454–484 hondarrak) lipido anionikoak dituzten mintzekin baino ez dela lotzen, eta bigerua lipidikoarekiko planoan orientatutako  $\alpha$ -helize egitura hartzen duela<sup>216</sup>. Duela gutxi, h2 helizea AC domeinuaren translokazioan inplikaturatuta zegoela proposatu zen<sup>211,216</sup>.




**1.12 irudia. CyaA-ren translokazio-eskualdearen NMR egitura DPC mizeletan**<sup>215</sup>. CyaA-ren 411–490 hondarrak irudikatatu dira, h1 eta h2 helizeak urdinez eta berdez koloreztatuz, hurrenez hurren. Irudia Sukova eta kideek argitaratutako NMR egitura (PDB ID: 6RFM)<sup>215</sup> erabiliz prestatu da, ChimeraX-n<sup>131</sup>.

### 1.3.1.3. RTX domeinua

RTX domeinua zenbait azpidomeinuk osatzen dute. AC domeinuaren translokazioaz eta toxinari fenotipo poro-eragilea emateaz arduratzen da<sup>211</sup>:

- Domeinu hidrofobikoa (H, 500–700 hondarrak): eskualde hori aminoazido hidrofobikotan aberatsa da. Hidrofobiko/anfipatikokoak diren bost TM  $\alpha$ -helize aurrean ziren bertan<sup>81</sup>: HI (502–522), HII (529–549), HIII (571–591), HIV (607–627) eta HV (678–698). Phillius algoritmoaren ([TOPCONS](#) zerbitzaria<sup>217</sup>) arabera, HI eta HII TM helizeek,  $N_{kan}-C_{bar}$  eta  $N_{bar}-C_{kan}$  topologiak jarraituko lituzkete, hurrenez hurren. Horrenbestez, HIII–HIV–HV helizeek  $N_{kan}-C_{bar}$ ,  $N_{bar}-C_{kan}$  eta  $N_{kan}-C_{bar}$  topologiak izango lituzkete, hurrenez hurren (**1.13 irudia**).




**1.13 irudia. CyaA-ren 500–706 hondarren TM helizeen topologia.** Phillius algoritmoak sei TM helize iragarri zituen: TM1 (500–521 hondarrak), TM2 (528–552 hondarrak), TM3 (571–592 hondarrak), TM4 (599–621 hondarrak), TM5 (663–688 hondarrak) eta TM6 (690–706 hondarrak). Predikzioarako [TOPCONS](#) zerbitzaria<sup>217</sup> erabili zen (20-02-24an atzitu).

Badirudi eremu hidrofobikoa CyaA-ren jarduera zitotoxikoan inplikatur dagoela, bai poroa eratuz<sup>218</sup>, bai mintza desegonkortuz<sup>219</sup>. Lehenik eta behin, eskualde horretako delezio-mutazioek toxinarekin jarduera poro-eragilea erabat murriztu zuten eritrozitoetan eta geruza artifizialeetan. Hori dela eta, hondar horiek poroaren eraikuntzan parte hartzen dutela ondorioztatu zen<sup>220,221</sup>. Beste ikerlan batzuen arabera, eskualde hori funtsezkoa izan daiteke translokaziorako eta poroaren eraikuntzarako<sup>82,83,222</sup>. Adibidez, badirudi HI, HII eta HIII helizeek CyaA-ren bi jardueretan eta poroaren katioikiko selektibitatean ere parte hartzen dutela<sup>81-83</sup>.

- Palmitoilazio tokiak (K860 eta K983): RTX familiako beste kide batzuek bezala, CyaA proteina ez-aktibo gisa sintetizatzen da (proCyaA)<sup>223</sup>, eta ondo funtzionatzeko azilatu egin behar da. Kasu horretan, CyaC aziltransferasak, CyaA-rekin batera adierazten denak<sup>67</sup>, K860 eta K963 hondarretara transferitzen ditu azido palmitikoak<sup>224,225</sup>, ACP-ren laguntzarekin<sup>226</sup>. K983 hondarraren palmitilazioa, luzera egokituko azilo kate bat gehituta, ezinbestekoa da domeinu poro-eragilea mintzean txertatzeko eta toxinak poroak eratzeko<sup>227</sup>. K860 hondarraren palmitilazioa itxuraz ez da hain garrantzitsua; alta, bi PTM-ak beharrezkoak dira toxinarekin jarduera hemolitikorako eta toxina zelula-mintzetara lotzeko<sup>97</sup>, baina ez AC domeinua translokatzeko<sup>81,225</sup>. Gainera, CyaA-k disoluzioan oligomeroak eratzeko duen gaitasuna, hemolisirako erabakigarria dena, azilazioaren menpe dago<sup>228</sup>.
- Errepikapen domeinua (RD, 1014–1612 hondarrak): eskualde horretan daude glizina eta aspartato ugariko taldeak, 40–45 tandem errepikapen osatzen dituztenak eta RTX familiaren bereizgarria direnak<sup>229</sup>. Errepikapen horiek elkarren segidako  $\beta$ -xafla egitura komuna dute, eskuinerantz biratzen den espirala osatuz, azkenik  $\beta$ -bira motibo paralelo bat eratzeko. Errepikapen bakoitzeko lehen sei aminoazidoak  $\text{Ca}^{2+}$  lotzeko biratzen dira, eta beste hirurek  $\beta$ -orri txiki bat osatzen dute<sup>230</sup>.  $\text{Ca}^{2+}$  ioiak bi laminen arteko itzulietan batzen dira; horrek esan nahi du nonapeptido motibo bakoitzak bi gune dituela katioia lotzeko<sup>85</sup>. **1.14 irudian** erakusten den bezala, CyaA-ren errepikapen domeinua bost bloketan banatzen da, ondorengo aminoazidoei dagozkienak: 1014–1087, 1138–1210, 1247–1352, 1377–1489 eta 1529–1612<sup>105</sup>. Errepikapen domeinuaren barruan, hartzailea lotzeko gunea (RBD, 1166–1286 aminoazidoak) dago eta toxina  $\alpha_M\beta_2$  integrinarekin elkartzeaz arduratzen da<sup>128</sup>.

## 1. KAPITULUA: SARRERA



**1.14 irudia. CyaA-ren 751–1488 hondarren cryo-EM egitura.** Errepikapen domeinuko lau blokeak kolore turkesaz irudikatu dira; RBD urdinez ageri da, eta  $\text{Ca}^{2+}$  esfera moreekin adierazi da. IV. blokearen goiko eta alboko bistak ere erakusten dira. Irudia Goldsmith eta kideek ebatzitako cryo-EM egituratik moldatu da (PDB ID: 7USL)<sup>130</sup>, ChimeraX<sup>131</sup> erabiliz.

Bakterio-zitosoleko  $[\text{Ca}^{2+}]$  baxuak toxina tolestea eragozten du<sup>104</sup>, eta negatiboki kargatutako hondarrek barne-aldarapen indar elektrostatiakoak sustatzen dituzte eta egitura-malgutasun handia ematen diote RTX domeinuari<sup>231</sup>. Beraz,  $\text{Ca}^{2+}$ -rik ez badago, eremu horrek egitura desordenatua, ezegonkorra eta oso hidratatua du. Tolestura jariaketaren ondoren gertatzen da,  $\text{Ca}^{2+}$  loturak errepikapen domeinuaren trinkotzea eta deshidratazioa eragiten dituzten, eta egitura sekundario eta tertziario egonkorak eratzen dituzten<sup>229,232,233</sup>. Horri esker, bakterio-mintzean dagoen  $\text{Ca}^{2+}$  gradientek zehazki doi dezake tolesteko-prozesua. Nahitaezkoa da V. blokeko C-muturreko tapoia egonkortzea, zeinaren sekuentzia ez baita gainerako blokeen berdina, egitura osoa  $\beta$ -xafletan egonkortzeko. Izan ere, egitura horietako hondar batzuen mutagenesiak tolestu gabeko toxina ez-aktiboak ekoizten ditu. V. blokea jariatu eta  $\text{Ca}^{2+}$ -ek egonkortzen dutenean, RTX eskualdeko gainerako beste blokeentzako nukleazio-puntu gisa balio du.  $\text{Ca}^{2+}$  ez da beharrezkoa toxinen oligomerizaziorako, baina bai mintz plasmaticoari lotzeko konformazio egokia emateko<sup>107</sup>.

- Jariatze-seinalea: CyaA-ren jariatze-mekanismoa UPEC HlyA-ren T1SS-en oso antzekoa da<sup>202</sup> (**1.5 irudia**), baina kasu honetan CyaBDE proteinek osatzen dute kanal trimerikoa<sup>235</sup>. Analogiaz, CyaB-k ABC garraiatzailearen funtzioa beteko luke.

Toxinaren 74 hondarreko jariatze-seinalea ezagutuko luke, eta polipeptidoa kanaletik zelulaz kanpoko ingurunera bideratuko luke<sup>236,237</sup>. Toxina zuzenean destolestuta garraiatzeak erraztu egiten du jariatze-seinalea ezagutzea eta toxina kanal estuan zehar pasatzea<sup>233</sup>. Jariatze-seinalea C-muturrean dagoenez, jariaketa norabidea polipeptidoaren C-muturretik N-muturrera gertatzen dela suposatzen da. Horrenbestez, errepikapen domeinuko V. blokea izango litzateke irteten lehena<sup>229</sup>.

### 1.3.2. CyaA-k zelula ostalarietan eragindako efektuak

CyaA-k itu-zeluletan eragindako zitotoxikotasuna zelularen zitosolean sortutako doitu gabeko cAMP mailaren eta poro-oligomerikoek eragindako plasma-mintzaren iragazkortasunaren ondorioz gertatzen da<sup>206</sup>. Toxina batez ere zelula fagozitiko mieloideetara zuzentzen da<sup>123,239</sup>, eta beraz, erantzun immunea aldatzeko gai da *B. pertussis* bakterioaren kolonizazioaren hasierako faseetan, organismo ostalariaren defentsak aldi baterako neutralizatuz<sup>194,195</sup>. Gaur egun, uste da CyaA-k itu-zeluletan eragindako efektu zitotoxikoak bi jarduera independenteen ondorio direla, eta biek batera ostalariaren defentsak ahultzen lagun dezaketela<sup>240,241</sup>.

#### 1.3.2.1. AC domeinuaren translokazioa eta AC aktibitatea

AC domeinuak cAMP maila altuak sortzen ditu itu-zelularen zitosolean, eta seinaleztapen zelularra asaldatzen du<sup>120,196</sup>. Domeinu hori itu-zelulen mitokondrioetan edota nukleoan kolokalizatuta aurkitu da eta badirudi zelula barneko ituak dituzten beste adenilato ziklasa batzuen antzera jardun dezakeela<sup>242</sup>. Hasieran, ikusi zen CyaA-k apoptosia eragiten zuela makrofagoetan<sup>123</sup>, mintz mitokondrialaren alterazioengatik eta ATP maila jaisteagatik (baina ez erabateko deplezioagatik)<sup>243</sup>. Horrez gain, CyaA-k T linfozitoen eta MAP kinasak adierazten dituzten beste zelula batzuen aktibazioa eta kimiotaxia ekiditen ditu; MAP kinasa A kinasak bideratutako jarduera immunosupresoreen itu izan ohi da<sup>244</sup>. Toxina hori gai da, halaber, zelulaz kanpoko neutrofilo tranpen eraketa inhibitzeko<sup>245</sup>. Neutrofilo horiek hainbat mikroorganismo immobilizatzen dituzte, ondoren ezabatzeko. Arnas ezstandaren inhibizioa ere eragiten du cAMP ekoizpenak<sup>246</sup>, erantzun immunea gutxituz. Gainera, CyaA gai da fagozitoen bakterizitate-funtzioak<sup>247</sup> eta neutrofiloek eragindako bakterio-fagozitosia gutxitzeko, *B. pertussis*-en hemaglutinina haritsuarekin lankidetzan<sup>248</sup>. *B. pertussis* bakterioaren inbasioak eragin kaltegarriak izan arren, badirudi organismo ostalariak CyaA-k eragindako efektu zitotoxikoak bere alde erabiltzen dituela berezko eta hartutako hantura-erantzunak aktibatuz. Adibidez, T<sub>h17</sub> zelulen produkzioa induzitzen du, zeinak funtsezkoak baitira hartutako erantzun immunean<sup>249</sup>.




## 1. KAPITULUA: SARRERA

Proteina-toxina honek N-muturreko AC domeinu katalitikoa zuzenean garraiatzen du zelula ostalari eukariotoaren mintzean zehar<sup>250</sup>. Prozesu hori  $\alpha_M\beta_2$  hartzailearekiko independentea da<sup>194,203</sup> eta ez du endozitosi urratsik behar<sup>251</sup>. Mintz-potentzial negatibo batek zuzentzen duela dirudi, bai zeluletan<sup>252</sup>, bai mintz-ereduetan<sup>253</sup>. Gainera, prozesuak segundo gutxiko bizitzar-erdia duela, 15° C baino tenperatura altuagoak behar dituela<sup>230</sup> eta  $[Ca^{2+}]^{234}$  milimolarra behar duela dokumentatu da. Hala ere, mekanismo zehatza ez da oraindik deskribatu<sup>203</sup>.

Bide endozitikoaren inhibitzaileak erabiliz egindako azterketek iradoki zuten translokazio-prozesuaren aurretik ez zegoela toxinarek endozitosirik<sup>251</sup>. Ondoren, toxinarek C-muturrak mintzean poro bat sortzen duela ezarri zen, eta poro horretatik garraiatzen dela N-muturra. Hala ere, hipotesi hori baztertu egin zen CyaA-ren poroa ~40 kDa-ko polipeptido bat pasa ahal izateko estuegia dela (0,6-0,8 nm-ko diametroa) ezarri ondoren<sup>221,254</sup>.

Proposatutako translokazio-ereduetako bat makrofagoen intoxikazioan oinarritzen da<sup>165</sup> (**1.15 irudia**). Itu-fagozitoen integrina-hartzaileari lotu ondoren<sup>114,128</sup>, eskualde hidrofobikoa mintz plasmatikora ainguratu eta AC domeinua zitosolera garraiatzen dela iradoki zen<sup>255</sup>. Horretarako, CyaA-k translokazioko bitartekari bat eratuko luke, eta AC domeinuak berak parte hartuko luke kanal iragankor bat sortzen, zelula barnaranzko  $Ca^{2+}$  isuria ahalbidetuko lukeena<sup>256,257</sup>.  $Ca^{2+}$ -en fluxuak kalpaina aktibatuko luke eta honek talina ebakiko luke, toxina-hartzaile konplexua zitoeskeletotik askatzeko. Toxina-hartzaile konplexua, orduan, *raft* ingurunera mugituko litzateke, eta translokazioko azken urratsa esteroletan aberatsa den inguru horretan gertatuko litzateke. Beste ikerketa batean proposatu zuten, AC domeinua zelula ostalariaren zitosolera garraiatu ondoren, kalpainak CyaA polipeptidoa ebakiko luke, translokazio-eskualdeko lekuren batean, gutxi gorabehera 480 hondarraren inguruan, eta zelula ostalariaren zitosolean AC domeinu disolbagarria askatuko luke. Aldiz, hemolisina domeinua zelula ostalariaren mintzean txertatuta geratuko litzateke<sup>165</sup>.



**1.15 irudia. CyaA-ren zelula eukariotoak intoxikatzeko prozesua azal lezakeen eredu-tako bat<sup>165</sup>.** Tolestutako toxina zelularen hartzailearekin lotu daiteke (edo ez), eta poroak sortzen eta AC domeinua translokatzeko dituzte. CyaA domeinuen kolore-kodea **1.6 irudikoaren** antzekoa da. O'Brien eta kideengandik egokitua<sup>258</sup>. Biorender-en marraztua.

### 1.3.2.2. Aktibitate poro-eragilea

CyaA-k eraginkorki intoxika ditzake  $\beta_2$  integrinarik ez duten zelulak, hala nola eritrozitoak edo epitelio-zelulak, mintz plasmatikoko lipidoekin zuzeneko elkarrekintzaren bidez<sup>203</sup>. cAMP kontzentrazioa handitzeaz gain, CyaA-k jardura hemolitikoa du, mintza iragazkortzen duten katioiekiko poro selektiboak sortzeko gaitasuna duelako eta zelularen lisi osmotikoa eragin dezakeelako<sup>199,221,259</sup>. Beste toxina poro-eragile batzuekin analogia eginez, pentsa daiteke CyaA bidezko zelula-lisi osmotikora daraman prozesuak zenbait etapa dituela: mintzarekiko lotura (hartzaile espezifiko bidezkoa edo ez), geruza bikoitz lipidikoan txertatzea eta poro-egituraren mihiztatzea. Poroak eratzeko jarduerari eta sortutako poroen ezaugarriei buruzko ezagutza nahiko mugatua da, eta galdera asko, adb. poroen estekiometria erreala, mihiztadura-mekanismoa etab., behin betiko erantzunik gabe egon dira ia hiru hamarkadaz<sup>260</sup>.

AC domeinuaren translokazioa eta cAMP ekoizpena eritrozitoetan azkarra eta maximoa da 30–60 minutuan, 1  $\mu\text{g}/\text{mL}$  inguruko toxina-kontzentrazioetan. Aldiz, hemolisiak luzaro irauten du (orduak), 60 min baino gehiagoko lag fasearekin, baita 10  $\mu\text{g}/\text{mL}$  toxina-kontzentrazioekin ere<sup>254</sup>. Translokazio prozesuak eta poro-eraketak zenbait elementu estruktural dituzte amankomunean<sup>200</sup>, esaterako, domeinu hidrofobikoko  $\alpha$ -helizeak<sup>81–83</sup>. Horrexegatik, postulatu

## 1. KAPITULUA: SARRERA

zen domeinu katalitikoaren garraioa ekiditeak toxina-konformazio hobea eragiten zuela hemolisirako.

Denbora luzez, CyaA potentzia litiko txikiko hemolisina ahula dela pentsatu izan da, oso poro txikia eratzen duelako, UPEC HlyA-k edo *A. pleuropneumoniae* ApxI-ek eratutako poro handietatik (~2-3 nm) urrun<sup>84,261</sup>. Hala ere, CyaA poroen nanoeskalako irudiek erakutsi zuten ezen, diametro finkoa izan beharrean, toxina-kontzentrazioaren eta inkubazio-denboraren arabera, poro horiek zenbait nanometro zabaleko “zulo” handi baterantz eboluzionatu dezaketela, eta beraz, zitosoletik proteina txikien kanporatzea ahalbidetu dezaketela<sup>259</sup>. Poro horiek bezain handiak dira kolesterol-menpeko zitolisinek (ingelesez *cholesterol-dependent cytolysins*, CDC), O listeriolisinak edo O estreptolisinak esaterako, sortzen dituztenak eta  $\beta$ -egitura dutenak<sup>262,263</sup>. Irekidura horiek mekanismo lipidiko baten bidez eratu daitezke. Bai fosfolipido molekulek, bai proteina-segmentuek (seguruenik helikoidal eta anfipatikoak direnak) arkitektura heterogeneodun poroen paretak delineatzen laguntzen dute<sup>260</sup>.

CyaA toxinak itxura trinko eta egonkorra hartzen du soluzioan, ~14–15 nm batezbesteko diametroarekin<sup>264</sup>. Hala ere, mintzera lotu ondoren, disoluzioan daukan itxura konpaktutik gainazal lipidikoaren gainean daukan itxura ireki eta hedatura pasatuko litzateke<sup>259</sup>. Litekeena da hasierako loturaren eta monomeroaren irekieraren ondoren, proteinen eta lipidoen arteko interakzioak izatea, eta ondoren, toxina berrantolatzea, pixkanaka mintzean txertatzen joateko. Monomero-katearen pixkanakako barneratze horrek partikulak elkarrengana hurbildu ditzake, proteina-proteina elkarrekintzak errazteko. Estekiometria bereko unitateak bata bestearen atzetik gehituko lirateke, oligomerizazio-modu sekuentzialean<sup>265</sup>. Mikrobioen aurkako peptidoen edo poroa eratzen duten beste proteina batzuen antzera (adb. Bax proapoptotikoa edo aktinoporinen familia<sup>266–268</sup>), CyaA-k ere poroak eratu ditzake kontzertatu-gabeko bidezidorra erabiliz<sup>265</sup>. Monomero hidrosolubleak lehenik mintzari lotuko lirateke, segur aski azkar, eta oligomerizazioaren aurretik (edo aldi berean) txertatuko lirateke. Era berean, jakinarazi da UPEC HlyAren poroa ere handitu egiten dela denborarekin, tenperaturarekin eta toxina kontzentrazioarekin<sup>269</sup>, eta proteinaz eta lipidoz osatzen dela<sup>270</sup>.


### 1.3.3. Kukutxeztula, gainditutako gaitz baten itzulera

CyaA *B. pertussis* kukutxeztularen kokobazilo Gram-negatiboek jariatzen dute<sup>92</sup>. Kukutxeztula edo kukurruku-eztula gizakien arnas bideetako gaixotasun akutu eta oso kutsakorra da<sup>195</sup>, eta hilgarria izan daiteke adibidez, urtebetetik beherako haurretan<sup>271</sup>. Eritasun horren ezaugarri dira agerpen kliniko ugari, besteak beste, bronkopneumonia, hipogluzemia, leukozitosis eta

eztul paroxisomala<sup>194</sup>. Eztula etapa goiztiar batean gaintu ez duten pazientek konplikazioak izan ditzakete, eta kukutxeztulagatik hiltzen diren pertsonen % 90 bigarren mailako pneumoniagatik hiltzen dira<sup>271</sup>.

*B. pertussis* giza patogeno hertsia da, animalia- edo ingurumen-erreseboriorik gabea<sup>272</sup>, eta aireko tantatxo bidez transmititzen da. Hamasei *Bordetella* espezie ezberdin identifikatu dira orain arte<sup>273</sup>, eta beste hiru baino ez dira lotu ugaztunen arnasketa-infekzioekin: *B. bronchiseptica*, *B. parapertussis* eta *B. holmesii*<sup>272,274</sup>.

Kukutxeztula nagusiki toxinekin lotuta dago<sup>194</sup>. Labur esanda, bakterioak arnas zelula epitelialei atxikitzen zaizkie, eta zenbait toxina sortzen dituzte, zilioak geldiarazten dituztenak eta arnas traktuaren hantura eragiten dutenak. Horrek biriketako jariakinen ezabatzea ekiditen du<sup>271</sup>. Gainera, pertussis-antigenoek linfositosa sustatzen dute baina kimiotaxia eragozten dute, eta horri esker, bakterioek ostalariaren defentsak saihesten dituzte. *Bordetella*-ren birulentzia-faktoreen artean (**1.16 irudia**)<sup>275</sup>, CyaA funtsezkoa da infekzioa garatzeko. Pertussis toxinarekin (PT) batera, eginkizun garrantzitsua du ostalariaren immunitate- eta hantura-erantzunak ekiditen eta modulatzeko<sup>194</sup>.



**1.16 irudia. *B. pertussis*-en birulentzia-faktoreak.** Kokoide- edo oboide-itxurako bakterio Gram-negatibo txikia da (gutxi gorabehera 0,8  $\mu\text{m}$  bider 0,4  $\mu\text{m}$ ). Derrigorrezko aerobioa da, kapsulatuta dago eta ez du esporarik sortzen. Biologikoki aktiboak diren antigeno eta egitura-osagai ugari daude gaixotasunaren garapenean. Atxikitze-faktoreek, hala nola hemaglutinina haritsuak (Fha) eta finbriek, bakterioei arnas traktuko zelula epitelialekin lotzen laguntzen diete. Trakeako zitotoxina (TC) zelula-paretako peptidoglikanotik askatutako zati bat da, eta arnas epitelio ziliatuaren paralisia eta suntsitzea eragiten du, gaixotasunaren bereizgarria dena<sup>276</sup>. Gainera, bakterioak hiru toxina proteiko nagusi sortzen ditu: pertussis toxina (PT), adenilato ziklasa toxina (CyaA) eta toxina dermonekrotikoa (DNT), zeinentzat ekintza molekularrak argitu baitira. Jakina da lehenengo bi toxinek sintoma kliniko batzuk eragiten dituztela eta/edo bakterio-infekzioa ezartzen laguntzen dutela. Aitzitik, DNT-k duen eginkizuna ez dago argi. Pertussis entzefalopatiaren agente etiologikoa izan daitekeela iradoki da, *B. pertussis* infekzioaren konplikazio larria<sup>277</sup>. Finger eta von Koenigengandik egokitua<sup>278</sup>.

## 1. KAPITULUA: SARRERA

Beste infekzio epidemiko larri batzuekin alderatuta, adb. baztanga edo polioa, kukutxeztularen historia nahiko modernoa da<sup>195</sup>. Guillaume de Baillouk XVI. mendean deskribatu zuen lehen agerraldia<sup>279</sup>. Hala ere, *B. pertussis* ez zen isolatu 1906 arte<sup>280</sup>, Bordetek eta Gengouk patogenoa isolatzeko balio izan zuen Bordet-Gengou (BG) izeneko medio berezia egitea lortu zutenean. Immunitatearekin lotutako aurkikuntza horri eta beste batzuei esker, Bordetek Medikuntza eta Fisiologiako Nobel saria irabazi zuen 1919an.

Txertoaren garapena bakterioa isolatu eta gutxira hasi zen<sup>281</sup>; izan ere, ordura arte erikortasun-eta heriotza-tasa handiak eragin zituen, bereziki bularreko haurretan. 1940–1950 hamarkadetan, zelula osoz egindako pertussis txertoen kanpaina zabalek epidemia kontrolatzen lagundu zuten. Gaixotasunaren kontrola osagai azelularrez egindako DtaP (difteria-tetano toxoide, pertussis txerto azelularra, adsorbatutako txertoa) pertussis txertoei esker mantendu zen<sup>195</sup>.

Nahiz eta gaur egun kukutxeztularen aurkako txertaketa-programa zabalen bidez gaixotasuna nahiko ondo kontrolatzen den, bistan da mundu osoan bakterioaren zirkulazioa ez dela asko murriztu<sup>195,281</sup>. Gaixotasuna askoz ere prebalenteagoa da osagai azelularrez egindako txertoak zelula osoz osatutakoa ordezkatu zuenetik, eta agerraldiak hiru-bost urtean behin erregistratzen dira. Horrez gain, ohikoa da txertoak gutxi erabiltzen diren eremuetan, eta diru-sarrera gutxiko herrialdeetako bularreko haurren heriotza-tasa % 4raino iritsi daiteke<sup>282</sup>. 2014. urtean, herrialde industrializatuetan, 5 urtetik beherako haurren artean ekidin zitezkeen gaixotasunen artean ohikoena zen kukutxeztula<sup>282</sup>. Mundu osoan 48,5 milioi kasu zenbatetsi dira, eta urteko heriotza-tasa ia 295.000 heriotzakoa da<sup>283</sup>. Beraz, kukutxeztulak osasun arazo garrantzitsua izaten jarraitzen du mundu osoko haurren artean. Azpimarratzekoa da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak agerraldi bat iragarri zuela Gipuzkoan (Euskal Autonomia Erkidegoan) 2023ko ekainean.

Kukutxeztulari lotutako gizarte-karga (kostu medikoak eta galdutako lana) esanguratsua da (800–1950\$ nerabeek eta helduek<sup>284</sup>); hala ere, ondorio kezagarriena epidemiologikoa da<sup>195</sup>. Nerabeek eta helduek sintoma arinagoak dituzten arren, zenbait ikerketak frogatu zuten bakterioarentzako gordailu bat eskaintzen dutela eta partzialki immunizatutako haurrentzako transmisio-iturri nagusia direla<sup>195,271,282</sup>.

*Bordetella* spp.-en eta haiek eragindako gaixotasunen inguruan asko aurreratu da azken bi hamarkadetan. Egia da ezagunak diren birulentzia-faktoreei buruzko ikerketak nabarmen hobetu duela *Bordetella*-ren patogenesisia eta ostalariak infekzioaren aurrean duen erantzuna ulertzeko modua. Gainera, txerto berriak garatzen lagundu du. Hala ere, gaixotasuna berriro agertzeak areagotu egin du kukutxeztularen aurkako txertoaren eraginkortasuna murriztearen inguruko kezka<sup>285</sup>. *Bordetella*-ren proteina nagusien ikerketak arazo honi konponbidea eman diezaioke. Adibidez, hogeita hamar urte baino gehiago igaro ondoren, CyaA-k edo beste RTX toxina batzuek mintz plasmatikokoan sortzen dituzten poroen egituraren inguruan oso gutxi dakigu oraindik, eta CyaA poroetan zuzenean parte hartzen duten egitura-elementuen inguruko informazio zehatza falta da. Gainera, oraindik ez da zehaztu AC domeinua garraiatzeko mekanismo zehatza zein den. Beste proteina poro-eragile batzuen inguruan dakigunarekin alderatuz, oso gutxi dakigu RTX toxinen inguruan. Halere, oztopo izan beharrean, horrek talde desberdinei lan gogorra egitera bultzatu beharko lieke, egun batean, toxina horien sekretuak ezagutarazteko<sup>260</sup>.

# KAPITULUA



2

## HIPOTESIA ETA HELBURUAK

Doktorego-tesi honen helburua da kolesterolaren eta *Bordetella pertussis* bakterioak jariatutako adenilato ziklasa toxinare (CyaA) arteko elkarrekintza molekularra aztertzea, toxina hau kukutxeztula gaixotasunean eragiten duten birulentzia-faktore nagusietako bat baita. Lan honen hipotesia da toxinare eta mintzeko kolesterolaren arteko zuzeneko elkarreraginak toxina horren bi jarduera biologikoetarako behar den CyaA-ren egitura egonkortzen eta eraikitzen lagunduko lukeela. Toxinaren eta kolesterolaren arteko elkarrekintza ulertzeak, etorkizunean, CyaA zelula ostalariei lotzea blokeatzeko eta CyaA-k eragindako zitotoxikotasuna minimizatzeko estrategiak diseinatzea ahalbidetu dezake. Horretarako, helburu espezifiko hauek ezarri ziren:

1. Zehaztea ea CyaA-ren jarduera zitotoxiko eta zitolitikoek kolesterolarekiko duten mendekotasuna toxinare eta kolesterolaren arteko zuzeneko elkarrekintzaren ondorio den.
2. CyaA-ren kolesterolarekiko mendekotasun horren determinatzaile molekularrak aurkitzea.
3. CyaA-ren eta mintzaren arteko elkarreragina oztopatzeko moduak aztertzea.



# KAPITULUA



3

# MATERIALAK ETA METODOAK

## 3.1. TOXINEN ADIERAZPENA ETA PURIFIKAZIOA

Lan honetan zortzi CyaA proteina mutante diseinatu eta eraiki ditugu. Horretarako, aldez aurretik translokazio-eremuan eta eremu hidrofobikoan identifikatutako hainbat CRAC/CARC motiboetan mutazio bakarrak, bikoitzak, hirukoitzak eta laukoitzak sartu ditugu. Ondorengo proteina mutanteak erabili ditugu: CyaA-F415A, CyaA-F485A, CyaA-F521A, CyaA-F532A, CyaA-F415A-F485A, CyaA-F485A-F521A-F532A eta CyaA-F415A-F485A-F521A-F532A. *cyaA* genea DNA genomikotik anplifikatu zen, polimerasaren kate-erreakzioa (ingelesez *Polimerase Chain Reaction*, PCR) erabiliz. Ondoren, pET-15b plasmidoan (GenScript Biotech, Herbehereak) txertatu zen, *AsuII* eta *NcoI* errestrikzio entzimak erabiliz pME14 plasmidoa sortzeko. Agilent protokoloa jarraituz mutagenesi zuzendua erabili zen pME14 plasmidoan fenilalanina kodoiak alanina kodoiengatik aldatzeko. Azkenik, intsertudun plasmidoak sekuentziatu egin ziren, PCR-aren eta mutagenesiaren zehaztasuna baieztatzeko.

*E. coli* XL 1-Blue (Stratagene, Sigma-Aldrich, MO, AEB) anduia WT CyaA toxina eta toxina mutanteak ekoizteko erabili zen. WT CyaA-ren kasuan, bakterioak Peter Sebo katedradunak (Mikrobiologia Institutua, ASCR, Praga, Txekiar Errepublika) emandako pT7CACT1 plasmidoarekin transformatu ziren. Aldiz, CyaA toxina mutanteak adierazteko pME14 plasmidoa erabili zen.

Bakterioak transformatu, hautatu eta asetasunera iritsi arte hazi ziren gaez (ingelesez *overnight*, ON) Luria–Bertani (LB) medioan, 100 mg/l anpizilina eta irabiatze konstantea erabiliz, 37 °C-an Certomat BS-1 (Sartorius Stedim Biotech, Irlanda) inkubagailuan. Hurrengo egunean, bakterio hazkuntzak 30 aldiz diluitu ziren LB-an anpizilinarekin eta  $A_{600} = 0.6\text{--}0.8$  izan arte itxaron zen.

Proteinaren adierazpena 1 mM isopropil- $\beta$ -D-1-tiogalaktopiranosidoa (IPTG, Apollo Scientific, Erresuma Batua) gehituz induzitu zen, 37 °C-an irabiatuz 4 orduz. Proteinak purifikatzeko, Karstek eta lankideek deskribatutako metodoa<sup>286</sup> gure laborategira egokitu zen. Labor, zelula-hazkuntzak JLA 9100 errotorea erabiliz zentrifugatu ziren (Beckman Coulter, CA, AEB), 6.000x g (4 °C-an 15 min). Jalkinak 50 mM NaCl eta 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean berreseki ziren eta ondoren, 1 mM fenilmetilsulfonil fluoruroa (PMSF, Apollo Scientific, Erresuma Batua) eta EDTA gabeko koktel-konprimituak (Roche, Suitza) gehitu zitzaizkien. Jarraian laginak 150 Soniprep batean (Q Instruments Ltd, Irlanda) sonikatu ziren

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

12  $\mu$ A erabiliz (30 s piztuta, 20 s itzalita, 10 ziklo). Sonikatutako lagina JA-20 (Beckman Coulter, CA, AEB) errotorea erabiliz zentrifugatu zen, 26.000x g (4 °C-an 15 min). Proteina solugarriak kentzeko, jalkinak 50 mM NaCl eta 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean berreseki eta errotore berdina erabiliz zentrifugatu ziren 18.000x g-ra 4 °C-an, 18 minutuz. Inklusio-gorputzak desegiteko, jalkinak 50 mM NaCl, 8 M Urea eta 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean berreseki ziren. Solubilizatutako laginak 4 °C-an irabiatu ziren ON. Hurrengo egunean, laginak 23.000x g-tan zentrifugatu ziren errotore bera erabiliz, 4 °C-an 30 minutuz. Oraingoan, frakzio solugarria 150 mM-ra eraman zen 2 M NaCl ama-disoluzioa erabiliz. Lagin hori Q Sepharose Fast Flow erretxinarekin (GE Healthcare, IL, AEB) nahastu zen. Aldez aurretik erretxina 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 eta gero 150 mM NaCl, 8 M Urea eta 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailearekin nahastu zen (RT, 60 min). Inkubazio-aldia bukatutakoan, erretxina proteinarekin paketatu eta indargetzaile berarekin garbitu zen. Proteina 5 ml-ko frakziotan batu zen, 500 mM NaCl, 8 M Urea eta 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean. Proteinaren detekziorako, frakzioak SDS-PAGE desnaturalizazio-geletan kargatu eta Coomassie urdinez tindatu ziren.

Proteina purua lortzeko, lagina bigarren aldiz kargatu zen Q Sepharose Fast Flow erretxina berean. Horretarako, proteinadun frakzioak 8 M Urea eta 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean diluitu ziren NaCl 150 mM izan arte; izan ere, gatz-kontzentrazio txikiagoei esker, proteina erretxinarekin lotzen da. Erretxina aurrez 150 mM NaCl, 8 M Urea eta 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailearekin nahastu zen. Proteina kargatu ondoren, zutabea indargetzaile berarekin garbitu zen. Azkenik, proteina 2 ml-ko frakzioetan jaso zen, 500 mM NaCl, 8 M Urea eta 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean. Azkenik, proteina SDS-PAGE eta Coomassie tindaketa erabiliz detektatu zen.

Proteina gehien zuten frakzioak batu ziren, 1 M NaCl eta 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 erabiliz 5 aldiz diluitu eta iragazi ziren. Frakzio horiek errendimendu handiko HiLoad 16/10 (GE Healthcare, IL, AEB) zutabe hidrofobiko batean kargatu ziren. Erretxina aldez aurretik 1 M NaCl etag 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean jarri zen. Toxina kargatu ondoren, zutabea lehenengo indargetzaile berarekin garbitu zen, ondoren 50 mM Tris-HCl (MQ H<sub>2</sub>O-n), pH 8,0 eta azkenik % 50 isopropanol/MQ H<sub>2</sub>O (b/b) disoluzioa erabiliz. Azken garbiketa pausoa 50 mM Tris-HCl, pH 8,0 erabiliz egin zen. Azkenik, toxina 1 ml-dun frakzioetan jaso zen 8 M urea, 2 mM azido etilendiaminotetraazetikoa (EDTA) eta 50 mM Tris-HCl (MQ H<sub>2</sub>O-tan), pH 8,0 erabiliz. Frakzioak SDS-PAGE eta Coomassie tindaketa bidez aztertu ziren. Kontzentrauen zeuden alikuotak batu eta laginaren kontzentrazioa DC Protein Assay bidez neurtu zen.

### 3.2. PEPTIDOEN EZAUGARRIAK

CyaA-ren translokazio-eskualdeko h2 helizea aztertzeke, zenbait peptido sintetizatu ziren. Lehenik eta behin, 454–487 hondarrak dauzkan, eta beraz, C-muturrean CRAC<sup>485</sup> motibo potentziala duen, WT P454–487 peptidoa aztertu zen. Ondoren, CRAC<sup>485</sup> motiboak kolesterola ezagutzeko gaitasunik ba ote duen aztertzeke, bi peptido mutante, P454–487<sup>F485A</sup> eta P454–487<sup>Scr</sup>, eta laburragoa den P454–484 peptidoa diseinatu genituen. Aldaera horiek guztiak CRAC<sup>485</sup> motibo osoa falta zuten: lehenak alanina bat du erdiko posizioan, fenilalaninaren ordeiz; bigarrenak, berriz, nahastutako CRAC motiboa du (ingelesez *scramble*, Scr); eta azkenak, C-muturreko FGR aminoazidoak falta ditu.

Peptidoen ama-disoluzioak prestatzeko, lehenbizi H<sub>2</sub>O-tan zuten solugarritasuna estimatu zen [PepCalc.com](http://PepCalc.com) (Innovagen AB, Suedia) zerbitzua erabiliz. Estimazio horiek pI balioa, kargatutako aminoazido kopurua eta peptidoaren luzera izaten dituzte kontuan. Peptido liofilizatuak etanoletan (EtOH) disolbatu ziren. Erabilitako peptidoei buruzko xehetasunak **3.1 taulan** jaso dira.

**3.1 taula. Erabilitako peptidoei buruzko xehetasunak.**


Izena	Mutazioa	Hondar kopurua	Mw (g/mol)	pI	z	Solugarritasuna H <sub>2</sub> O-n	Biltegitratzea
P454–484	-	31	3.268	14	+2,2e	txikia	EtOH
P454–487	-	34	3.628	14	+3,2e	txikia	EtOH
P454–487 <sup>F485A</sup>	F485A	34	3.552	14	+3,2e	txikia	EtOH
P454–487 <sup>Scr</sup>	481-487 nahasia	34	3.628	14	+3,2e	txikia	EtOH

Peptido sintetiko guztiak Genosphere Biotechnologies-i (Frantzia) erosi zitzaizkion, eta haien purutasuna (% 99) eta konposizioa alderantzizko faseko HPLC eta MALDIen masa-espektrometriaren bidez kontrolatu ziren. Peptidoek N-muturrean daude azetilo-talde bat eta C-muturrean amida-talde bat dituzte.

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

#### 3.3. LIPIDOETAN OINARRITUTAKO SISTEMA EREDUAK


Mintz biologikoak oso sistema konplexuak dira eta konplexutasun horrek zaildu egiten du mintzaren osagai bakoitzaren propietateak eta portaera aztertzea. Beraz, nahiz eta mintz biologikoen bertsio oso sinplifikatuak izan, eta lortutako emaitzak ezin diren zuzenean sistema konplexuagoetara estrapolatu, mintzen inguruko ikerketak askotan sistema ereduetan oinarritzen dira. Lipidoetan oinarritutako sistema ereduak tamaina eta lamela-kopuruaren arabera sailka daitezke. Adibidez, lamela bakarreko besikulak geruza bikoitz lipidiko bakar batez osatuta daude (lipido bakar batez edo horien nahasketaz osatua), eta esfera bat osatzen dute. **3.1 irudian** ikus daitekeen bezala, hiru talde handitan sailka daitezke: lamela bakarreko besikula erraldoiak (ingelesez *giant unilamellar vesicles*, *GUV*), lamela bakarreko besikula handiak (ingelesez *large unilamellar vesicles*, *LUV*) eta lamela bakarreko besikula txikiak (ingelesez *small unilamellar vesicles*, *SUV*). Lamela bakarreko zenbait besikulak diametro desberdineko lamela anitzeko besikulak (*Multilamellar Vesicles*, *MLV*) eratzen dituzte. Kasu horretan, ur-geruza fin batek bereizten ditu lamelak.



**3.1 irudia. Liposomen oinarritutako egitura eta sailkapenaren irudikapen eskematikoa.** Irudian lipido-besikulak lamelartasunaren (unilamelarra eta multilamelarra) eta tamainaren arabera sailkatu dira (SUV 0.02–2 µm, LUV 0.2–1 µm eta GUV >1 µm). BioRender-en marraztutako irudia.


##### 3.3.1. Besikulak prestatzeko erabili diren lipidoen propietateak

DOPC purudun bigeruzak erabili ziren zelula mintzeko Ld *bulk* fase lipidikoa imitatzeko. **3.2 irudian** ikus daitekeenez, DOPC kate luzeko (18:1c9) azido oleiko asegabeak *sn-1* eta *sn-2* posizioetan txertatuta dituen PC bat da. Bere trantsizio tenperatura  $-16,5\text{ }^{\circ}\text{C}$  da<sup>287</sup>. Sarri erabiltzen da, bakarrik edo beste osagai batzuekin, mizelak, liposomak eta bestelako mintz artifizialak sortzeko.



**3.2 irudia. DOPC-ren egitura.** Glizerol talde bat (beltzez), bi gantz-azido asegabe (azido oleikoak), fosfato taldea (laranjaz) eta kolina talde polarra (urdinez) (PubChem CID 6437081).

Kolesterolak eta haren antzeko ergosterolak antolamendu eta kondentsazio efektuak dituzte lipido-bigeruzetan<sup>23,288–290</sup>. Lan honetan, DOPC:CHOL (1:1 erlazio molarra) nahasteak erabili dira Lo faseko<sup>45</sup> SM/CHOL konplexuak *raft* nanodomeinuak<sup>51,291</sup> imitatzen. Azkenik, DOPC/CHOL eta DOPC/ERG zuten nahasteak (3:1 erlazio molarra), Ld motako fase bakarra adierazteko erabili ziren. **3.3 irudian** ageri dira egitura-desberdintasunak.




**3.3 irudia. Kolesterolaren eta ergosterolaren arteko egitura-desberdintasunak.** Ergosterolak (PubChem CID 444679) lotura bikoitz gehigarri bat dauka esteroide nukleoko eraztun batean eta lotura bikoitz bat eta metilo talde gehigarri bat dauzka alkilo albo-katean<sup>292</sup>.

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

#### 3.3.2. MLV-en prestaketa

Lipido-besikulak edo liposomak ur-disoluzio bat kapsulatzen duten bigeruzaz osatutako egitura lipidikoak dira. Berez sortzen dira lipido molekula anfifiliko zilindrikoak ur-disoluzioetan diluitzen direnean. Tratamenduaren arabera, lamela bat edo gehiago izan ditzakete.


MLV-ak prestatzea da liposomak ekoizteko metodorik sinpleena eta azkarrena (**3.4 irudia**) Labur-labur, lipidoak Avanti Polar Lipids, Inc.-i (AL, AEB) erosi zitzaizkion. Amdisoluzioak kloroformo:metanoletan ( $\text{CHCl}_3$ :MetOH) (2:1 b/b) prestatu ziren. Lipidonahasteak zituzten alikuotak nitrogeno-gasaren ( $\text{N}_2$ ) fluxu konstantea erabiliz lehortu ziren. Disolbatzaile organikoen aztarnak 120 minutuko huts-ponpaketa bidez kendu ziren. Lipido filmak  $\sim 50^\circ\text{C}$ -ra zegoen 150 mM NaCl eta 20 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean berreseki eta 10 izozte- eta urtze-ziklo burutu ziren.



**3.4 irudia. MLV-ak prestatzeko metodoa.** Disolbatzaile organikoa lurrundu egin zen, eta gainerako geruza lipidiko lehorra ur-disoluzio batekin hidratatu zen, MLV-ak eratzeko. BioRender-en marraztutako irudia, ez dago eskalan.

Hala ere, fase-trantsizio tenperatura altua daukaten edo disolbatzeko zailtasunak dituzten lipidoz osatutako nahasketetan, DOPC:ERG (3:1 erlazio molarra) adb., lehortze- eta hidratazio-urratsak zertxobait desberdinak izan ziren (**3.6 irudia**). Zenbait muga metodologiko daude ergosterola fosfolipido asegabeekin nahastean, eta zailtasuna proportzionala da lotura-bikoitz kopuruarekiko<sup>293</sup>. Ergosterolaren solugarritasun muga fosfolipido bigeruzetan % 30–35 mol<sup>294</sup> da, hain zuzen, kontzentrazio altuagoetan kristal monoasegabeak eratzten ditu. DOPC:ERG (3:1 erlazio molarra) LUV-ak prestatzeko, lehenik, lipido lehorra huts ponpan utzi zen ON. Hidrataziorako,  $80^\circ\text{C}$ -an zegoen indargetzailea gehitu zen, apurka-apurka eta lagina

beirazko hagaxka batekin irabiatuz. Azkenik, disoluzio homogeneo bat lortzeko, besikulak 80 °C-an sartuta zegoen hodi estu batetik (0,5 mm-ko barne-diametroa, 10 cm-ko luzera) pasarazi ziren 100 aldiz, bi xiringa erabiliz.



**3.5 irudia. DOPC/ERG LUV-en prestakuntza-protokoloa.** Hidratazorako, 80 °C-an zegoen indargetzailea gehitu zen, apurka-apurka eta lagina beirazko hagaxka batekin irabiatuz. Azkenik, disoluzio homogeneo bat lortzeko, besikulak 80 °C-an sartuta zegoen hodi estu batetik (0,5 mm-ko barne-diametroa, 10 cm-ko luzera) pasarazi ziren 100 aldiz, bi xiringa erabiliz. BioRender-en marraztutako irudia, ez dago eskalan.

#### 3.3.2.1. LUV-en prestaketa

LUV-ak mintz sistema eredu gisa erabili izan dira askotan, tamaina dela eta, SUV-ek baino kurbadura-estres txikiagoa dutelako. Oro har, zenbait lipido espezie dituzten LUV-ak prestatzen direnean, bi monogeruzen artean lipido banaketa homogeneoa lortzen da.

LUV-ak estrusio mekanikoko metodoari jarraituz prestatu ziren Lipex estrusio-makina batekin (Avanti Polar Lipids, Inc., AL, AEB)<sup>295</sup>. MLV laginak 100 nm-ko poro-tamainako bi polikarbonatozko mintz metaturen artetik (Whatman polikarbonatozko mintz-iragazkiak, 0,1 µm, GE Healthcare, IL, AEB) pasarazi ziren LUV-ak sortzeko.

#### 3.3.2.2. SUV-en prestaketa

Lan honetan, 0,5 % mol Rho-PE zuten DOPC:CHOL (1:1 erlazio molarra) konposiziodun SUV-ak CyaA zuten proteoliposomak prestatzeko erabili ziren, ondoren cryo-EM bidez neurtzeko. Gainberotzea eta laginen degradazioa saihesteko, **3.2.2 protokoloan** deskribatu bezala prestatutako MLV-ak bainuan sonikatu (RT, 60 min) eta 15 izozte-urtze ziklo egin zitzaizkien SUV-ak sortzeko.




### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

#### 3.3.2.3. Peptidoen errekonsituizioa mintzetan

Mintzeko proteinen azterketa burutzea oso zaila izan daiteke, oro har, ur disoluzioan agregatzeko joera izaten baitute. Horrexegatik, hain zuzen ere, proteina horiek mintz ereduetan txertatzeak haien jatorrizko ingurunearen antzeko medio batean aztertzeak balio du. Lan honetan, lipido-peptido formulazioak prestatu ditugu Torralba eta kideek<sup>296</sup> garatutako protokoloa jarraituz.

Peptidoen errekonstituzio metodoak peptido eta lipido disoluzio homogeen bat oinarri hartuta, polipeptido ia guztia liposomekin lotuta egotea ziurtatzen du. Lehenbizi, alde aurretik disolbatzaile organikotan prestatutako lipido eta peptido kantitate egokiak nahastu ziren. Erabilitako peptido kontzentrazioa 2 mg/ml izan zen (peptido:lipido erlazio molarra 1:50). Disolbatzaile organikoaren azterketa kentzeko, nahasketa N<sub>2</sub> korrante baten azpian lehortu zen, eta ondoren 120 minutuko huts-ponpaketa egin zen. Jarraian, peptidodun besikulak sortzeko, film lipidiko lehorrak 50 °C-an zegoen 150 mM NaCl eta 20 mM HEPES-NaOH, pH 7,4 indargetzailea erabiliz hidratatu ziren. Geruza bakarreko besikulak sortzeko, MLV-ak bainuan sonikatu ziren (RT, 60 min) eta 15 izozte-urtze-ziklo egin ziren (**3.6 irudia**). Azkenik, laginak liofilizatu egin ziren.



**3.6 irudia. Lipido-peptido formulazioak (LPF) eratzeko protokoloa.** Lipido eta peptidoak modu homogeen nahasi (1:50 peptido:lipido erlazio molarra) eta lehortu ziren, disolbatzaile organikoak desagerrarazteko. LPF-ak eratzeko, film lehorrak 150 mM NaCl eta 20 mM HEPES-NaOH, pH 7,4 indargetzailean berreseki ziren, 50 °C-an. Ondoren, laginak sonikatu ziren (60 min, RT) ur-bainuan. Azkenik, 15 izozte-urtze ziklo egin eta lagin guztiak liofilizatu ziren. BioRender-en marraztutako irudia, ez dago eskalan.

DOPC eta DOPC/CHOL nahastedun (9:1, 3:1, 2:1 eta 1:1 erlazio molarrak) besikulak prestatu ziren. LPF-ez gain, lipidorik gabeko bi lagin prestatu ziren. Bata, lehortu eta indargetzaile

urtsuan berresakitako peptidoari dagokio; bigarrena, aldiz, % 25 (b/b) 2,2,2-trifluoroetanolarekin (TFE,) nahastu, lehortu eta indargetzailean disolbatutako peptidoari.

#### 3.3.3. Fosfolipido-kontzentrazioaren determinazioa

Liposoma-esekiduretan zegoen fosfolipidoen kontzentrazioa zehazteko fosforo ez-organikoa neurtu zen<sup>297</sup>, Fiske-Subbarow metodo kolorimetrikoa erabiliz. Horretarako, temperatura altuetan gertatzen den fosfolipidoen hidrolisia gauzatu zen. Fosfato libreak zenbait errektibo espezifikoekin erreakzionatzean sortutako produktu koloreztatua neurtu zen, hasierako fosfato kontzentrazioaren arabera dena.

Alde batetik, gure laginetan zegoen lipido kontzentrazio zehatza lortzeko,  $\text{NaH}_2\text{PO}_4$  erabiliz kalibratio-zuzena eraiki zen. Fosfolipidoen hidrolisirako, laginak 500  $\mu\text{l}$  (% 70 b/b) azido perklorikorekin ( $\text{HClO}_4$ ) nahastu eta 45 minutuz inkubatu ziren 205 °C-tan. Inkubazio-aldia bukatutakoan, laginak hoztu ziren (RT), eta 4 ml amonio heptamolibdato disoluzio (2,2 g/l  $[(\text{NH}_4)_6\text{Mo}_7\text{O}_{24}\cdot 4\text{H}_2\text{O}]$  eta 143 ml/l azido sulfuriko (% 95–98 (b/b)  $\text{H}_2\text{SO}_4$ ,)) eta 500  $\mu\text{l}$  (% 10 (b/b)) azido askorbiko gehitu ziren. Fosfato-taldeek molibdatoarekin erreakzionatzen dute lehenik eta azido askorbikoarekin gero, eta produktu horixka bat sortzen dute. Hodiak 10 minutuz irakin ondoren, laginek urdin kolorea hartzen dute, hasierako fosforo-kantitatearen arabera. Lagina hoztu ondoren, xurgapena neurtu zen 812 nm-ra. Laginen fosfolipido-kontzentrazioa lortzeko, estandarren absorbantzia vs. fosforo-kontzentrazioa irudikatu eta lerro zuzen batera doitu zen. Laginaren fosforo-kontzentrazioa kalkulatzeko, laginen xurgapen balioak eta kalibratio-zuzenean ordezkatu ziren.

#### 3.3.4. Besikulen tamainaren zehaztapena

Argiaren sakabanatze dinamikoa (ingelesez *dynamic light scattering*, DLS) esekiduretako partikulen tamaina estimatzeko teknika zehatza da. Horretarako, partikulen mugimendu Browndarreen oinarritzen da. Hau da, likido batean, partikula txikiak handiak baino azkarrago mugitzen dira eta beraz, partikulen abiadura neurtuz gero, erradio hidrodinamikoa ( $R_h$ ) kalkulatu daiteke, Stokes-Einsteinen ekuazioa erabiliz:

$$D = \frac{K_B \cdot T}{6 \pi \cdot \rho \cdot R_h}, \quad (3.1 \text{ Ek.})$$

non D difusio-koefizientea baita,  $K_B$  Boltzmann-en konstantea, T temperatura eta  $\rho$  ingurunearen biskositatea. DLS-ak lagin-bolumen txiki batean, denboran zehar banatutako argi-fluktuazioetatik erauzten du informazioa. Argi sorta batek partikulen esekidura bat


### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

zeharkatzen duenean barreiatutako argi intentsitateak neurtzen dira. Horretarako, laser izpiarekiko perpendikularki kokatuta dagoen fotomultiplikatzailer batek sakabanatutako argia detektatzen du. Detektatutako argi intentsitate horiek korrelazio-funtzio bat ematen dute eta zenbait algoritmo erabiliz, esekidurako partikulen tamainaren arabera banaketa estimatu daiteke. Horrez gain, polidispersio-indizeak (PDI, 0–1) partikulen tamaina homogeneoa den ala ez adierazten du. Esate baterako, soluzio homogeneoei zerotik hurbil dauden balioak dagozkie.

Tesi honetan buruturiko DLS neurketak, Malvern Zeta-Sizer Nano ZS (Malvern Instruments, Malvern, Erresuma Batua) aparatuan egin dira 0.6 nm eta 6  $\mu\text{m}$  bitarteko tamainetarako detekzio heinarekin eta 5 mW-eko He-Ne laser izpiarekin ( $\lambda = 633 \text{ nm}$ ).

#### 3.3.5. Sakarosa gradiente bidezko besikulen flotazioa

Proteoliposomen flotazioak proteina bat mintzari modu eraginkorrean lotu zaion frogatzeko balio du (**3.7 irudia**). Besikulen flotazio-entseguak<sup>298</sup> % 0,5 mol Rodamina-PE (Rho-PE, Avanti Polar Lipids, Inc., AL, AEB) duten liposomekin egin ziren, sakarosa-gradienteetan. Lagin bakoitzeko 125  $\mu\text{l}$  doitu zitzaion 1,4 M-eko sakarosa-kontzentrazioari, 300  $\mu\text{l}$ -ko bolumenean. Ondoren, sakarosa 0,8 M eta 0,5 M zituzten 400  $\mu\text{l}$  eta 300  $\mu\text{l}$ -ko bi geruza gainjarri ziren, hurrenez hurren. Gradientea 436.000x g-ra zentrifugatu zen 4 °C-an, 180 minutuz, TLA 120.2 errotorean (Beckman Coulter, CA, AEB). Zentrifugazioaren ondoren, 250  $\mu\text{l}$ -ko lau frakzio jaso ziren. Hodei atxikitako materiala 250  $\mu\text{l}$  % 1 (b/b) SDS beroarekin (100 °C) garbitu eta bosgarren frakzioan jaso zen.



**3.7 irudia. CyaA-ren mintz-txertaketaren analisia besikulen flotazioaren bidez.** Proteoliposomak sakarosa-gradientean ( $t_0$ ) kargatu eta 436.000x  $g$ -ra zentrifugatu ziren 180 minutuz. Dentsitate desberdineko lau frakzio jaso ziren ( $t_1$ ) eta jarraian, 100°C-an zegoen SDS % 1-ean (b/b) gehitu zen hodie atxikitako materiala 5. frakzioan jasotzeko. LUV-ak (proteinadunak nahizgabeak) 4. frakzioan egongo lirateke. Bestalde, proteina askea 1. eta 5. frakzioetan egongo litzateke. BioRender-en marraztutako irudia.

Frakzio guztiak % 8,5 Bis-Tris SDS-PAGE geletan kargatu ziren eta Coomassie urdinez tindatu ziren proteina detektatu ahal izateko. Liposomak Rho-PE fluoreszentsia neurtuz monitorizatu ziren ( $\lambda_{ex} = 560 \text{ nm}$ ,  $\lambda_{em} = 570\text{--}640 \text{ nm}$ ).

Geletako banden dentsitometria ImageJ softwarea<sup>299</sup> (NIH, MD, AEB) erabiliz egin zen. Besikulei lotutako proteina-ehunekoa (%) kalkulatzeko, 3. eta 4. frakzioetan neurtutako banda-intentsitatea frakzio guztietan neurtutako banden intentsitateen baturarekiko erlatibizatu zen. Besikulekin batera flotatutako proteina-ehunekoa ez gainestimatzeko, liposomarik gabeko proteina askea kargatu zen sakarosa gradientean. 3. eta 4. frakzioan atzemandako proteina-ehunekoa (% ~10) kendu zitzaion esperimentuan neurtutako lotura-ehunekoari.

#### *3.3.5.1. CyaA-ren txertaketa konposizio desberdinetako besikuletan*

Laburtuz, 750 nM CyaA eta % 0,5 mol Rho-PE-rekin markatutako LUV-ak (DOPC, DOPC:CHOL (3:1 eta 1:1 erlazio molarra) edo DOPC:ERG (3:1 erlazio molarra) inkubatu ziren (1:2.000 proteina-lipido erlazio molarra), 150 mM NaCl, 2 mM CaCl<sub>2</sub> eta 20 mM Tris-HCl, pH 8.0 indargetzailean, 37 °C-an, 30 minutuz. Jarraian sakarosa gradientea prestatu zen, besikulei lotutako eta lotu gabeko proteina askea ultrazentrifugazioz bereizteko (**3.3.5 protokoloa** jarraituz). Gutxienez hiru esperimenteren arteko batezbestekoak eta desbideraketa estandarrak kalkulatu ziren.

#### *3.3.5.2 CyaA proteina mutanteen txertaketa kolesteroldun besikuletan*

CyaA toxina mutanteek % 0,5 mol Rho-PE-rekin markatutako DOPC eta DOPC:CHOL (1:1 erlazio molarra) konposizioko besikuletara batzeko duten gaitasuna zehaztu zen **3.3.5.1 protokoloan** deskribatu bezala. Gutxienez hiru esperimenteren arteko batezbestekoak eta desbideraketa estandarrak kalkulatu ziren.

#### *3.3.5.3. CyaA eta kolesterolaren arteko lotura inhibitzea peptido sintetikoak erabiliz*

5  $\mu\text{M}$  peptido eta % 0,5 Rho-PE-rekin markatutako DOPC:CHOL (1:1 erlazio molarra) liposomak elkarrekin inkubatu ziren 25 °C-an, 10 minutuz. Jarraian, 750 nM CyaA gehitu zen, proteina:lipido arteko erlazio molarra 1:2.000 izanik, eta 37 °C-an inkubatu zen 30 minutuz. Laginak sakarosa gradientean kargatu ziren eta lotutako proteina-ehunekoak **3.3.5**


### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

**protokoloan** deskribatu bezala kalkulatu ziren. Gutxienez hiru esperimenteren arteko batezbestekoak eta desbideraketa estandarrak kalkulatu ziren.

#### 3.4. ESPEKTROSKOPIA-TEKNIKAK

##### 3.4.1. Askapen-saiakuntzak

Entsegu honetan liposomen barruan kapsulatutako edukien askapena aztertu zen. Horretarako, barruan ANTS koloratzaile polianionikoa (8-aminonaftaleno-1,3,6-azido trisulfonikoa, gatz disodikoa) eta DPX amatatzaile kationikoa (p-xileno-bis-piridinio bromuroa) (Thermo Fisher Scientific, MA, AEB)<sup>300</sup> zituzten liposomak prestatu ziren. Laburbilduz, bi molekula horiek batera kapsulatzen direnean, DPX-k ahuldu egiten du ANTS-ren fluoreszentsia. Hala ere, agente litiko bat gehitzeak besikulak iragazkortuko lituzke, eta ANTS eta DPX molekulak kanpo mediora askatuko liriateke. ANTS eta DPX medioan barreiatzean, fluoreszentsia-emisioa handitu egiten da (**3.8 irudia**).



**3.8 irudia. Agente litiko batek eragindako askapen-saiakuntzaren adierazpen eskematikoa.** DPX kapsulatuak ANTS-ren fluoreszentsia amatatzen du. Hala ere, agente litiko bat gehitzeak besikulak iragazkor bihurtuko lituzke, ANTS eta DPX molekulak ingurunean askatuz. Diluzio-efektua fluoreszentsia-igorpenaren handitze gisa neurtuko litzateke. BioRender-en marraztutako irudia.

DOPC eta DOPC:CHOL (1:1 erlazio molarra) konposiziodun liposomak 70 mM NaCl, 12,5 mM ANTS, 45 mM DPX eta 20 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean prestatu ziren, **3.3.2.1 atalean** zehaztu bezala. Kapsulatu-gabeko koloratzaile eta amatatzaileak ezabatzeke, lagina Sephadex G-75 PD-10 erretxina-zutabe batetik pasatu eta 150 mM NaCl eta 20 mM Tris-HCl,

pH 8,0 indargetzailean jaso zen. Lipidoen kontzentrazioa eta besikulen tamaina **3.3.3** eta **3.3.4 ataletan** deskribatzen den moduan zehaztu ziren.

Askapen-zinetikak 150 mM NaCl, 2 mM CaCl<sub>2</sub> eta 20 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean burutu ziren, 37 °C-an eta 30 minutuz. Bai kitzikapen- bai emisio-monokromagailuak 5 nm-tan finkatu ziren eta ANTS-ren fluoreszentsia FluoroLog-3 espektrofluorimetroarekin (Horiba, Japonia) erregistratu zen ( $\lambda_{ex} = 355$  nm;  $\lambda_{em} = 520$  nm) 30 minutuz eta etengabe irabiatuz. Askapen-ehunekoak honela kalkulatu ziren :

$$Askapena (\%) = \frac{(F_f - F_0)}{(F_{100} - F_0)} \times 100, \quad (3.2 \text{ Ek.})$$

non  $F_0$ ,  $F_f$  eta  $F_{100}$  fluoreszentsia-intentsitateak izan baitziren, ezer gehitu aurretik, toxina gehitu ondoren eta Triton X-100 xaboa gehitu ondoren. Zinetika hasi eta hurrengo 60 segundoetan gehitu zen toxina; % 0,1 (b/b) Triton X-100, berriz, azken 60 segundoetan gehitu zen.

#### *3.4.1.1. Kolesterola erabiltzea CyaA-k eragindako besikulen iragazkortasuna inhibitzeko*

200 nM CyaA inkubatu ziren 0, 0,2 eta 2  $\mu$ M kolesterol kontzentrazioekin (aldeztatik aurretik EtOH-n disolbatua), 10 minutuz. Kontrolei dagokienez, proteina inhibizio entseguan erabilitako EtOH bolumen berdinarekin inkubatu ziren. Ondoren, nahasketa hori ANTS/DPX molekular betetako 100  $\mu$ M DOPC eta DOPC:CHOL (1:1 erlazio molarra) konposizioko LUV-ei gehitu zitzaion. Fluoreszentsia-datuak 30 minutuz jaso ziren (**3.4.1 protokoloa**).

#### *3.4.1.2. Peptidoak erabiltzea CyaA-k eragindako besikulen iragazkortasuna oztopatzeko*


100  $\mu$ M DOPC eta DOPC:CHOL (erlazio molarra 1:1) LUV eta 1  $\mu$ M peptido inkubatu ziren 150 mM NaCl, 2 mM CaCl<sub>2</sub> eta 20 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean, 25 °C-an 10 minutuz. Kontrolei dagokienez, LUV-ak inhibizio entseguan erabilitako EtOH bolumen berdinarekin inkubatu ziren. Jarraian, 50 nM CyaA gehitu ziren eta beste inkubazio bat egin zen 30 minutuz 37 °C-an. Askapen-zinetika **3.4.1 protokoloan** deskribatu bezala neurtu zen.

### **3.4.2. Triptofanoaren intrintseko fluoreszentsia-espektroskopia**

Fluoreszentsia-espektroskopiak molekular energia-maila handiago batera kitzikatu ondoren igorritako argiaren uhin-kantitatea eta luzera neurtzen ditu. Ia fluoreszentsia guztia kitzikapen elektronikoaren maila baxuenean gertatzen da, egoera kitzikatuan dauden molekulek elkarren artean talka egitean, bibrazio-energiaren zati bat galdu eta egoera kitzikatuko bibrazio-mailarik baxuenera itzultzen baitira. Kitzikapen mailatik maila basalera pasatzeko, soluzioan dauden

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

molekulek bide ez-erradiatiboen bidez galdu ohi dute energia, besteak beste, argia igorritz, eta egoera basalera itzultzen dira<sup>301,302</sup> (**3.9 irudia**).



**3.9 irudia. Fluoreszentziaren oinarriko printzipioak.** Argi-izpi erasotzaileak molekula bat bibrazio-energiaren egoera handiago bat edo batzuk hartzera bultzatzen dezake, egoera kitzikatuaren daudenak barne. Molekula horiek beste molekula batzuekin talka egitean, bibrazio-energiaren zati bat galdu egiten da egoera kitzikatuko bibrazio-mailarik baxuenera itzuli arte. Azkenik, kitzikatutako egoeratik maila basalera igarotzean fotoiak igortzen dira uhin-luzera konkretuetan. Uhin-luzera hori elektroiek maila basalera itzultzean betetzen duen bibrazio-egoeraren arabera da<sup>303</sup>. Beraz, fotoien emisio-intentsitatea uhin-luzeraren arabera aldatzen da, eta igorritako argiak argi-izpi erasotzaileak baino uhin-luzera handiagoa du<sup>302</sup>.

Proteinen biokimikan, fluoreszentzia-espektroskopia proteinen (des)tolesdura, konformazio-aldaketa, lotura eta elkarrekintzak monitorizatzeko erabiltzen da. Esate baterako, ohikoa da aminoazido aromatikoaren, hala nola triptofanoaren, tirosinaren edota fenilalaninaren, kitzikapenetik sortzen den proteinen fluoreszentzia intrintsekoa neurtzea<sup>301,304</sup>. Triptofanoaren fluoreszentzia emisioa da gehien neurtzen dena; izan ere, proteinek, oro har, triptofano gutxiago dituzte tirosina eta fenilalanina hondarrak baino, eta, beraz, informazio lokal espezifikoak lor daitezke triptofanoa modu selektiboan kitzikatuz ( $\lambda_{ex} \geq 295 \text{ nm}$ )<sup>301</sup>. Triptofanoaren kitzikatutako egoeraren dipolo-momentua nahiko handia denez ( $\sim 6 \text{ D}$ )<sup>305</sup>, emisio-energia oso sentikorra da tokiko ingurune polaritate-aldaketekiko, eta, hortaz, ligando lotura zehazteko besteko sentikorra da<sup>301</sup>.

#### 3.4.2.1. Triptofanoaren fluoreszentzia-titulazioak

Kolesterola eta peptidoen arteko lotura afinitatea zehazteko, Fluorolog-3 espektrofluorimetroa (Horiba, Japonia) erabili zen, 25 °C-an zegoen Peltier-termostatoa zeukana. 295 nm-ko uhin-

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

luzeran kitzikatu ziren laginak eta emisioa 300–400 nm artean jaso zen, 5 nm-ko kitzikapen- eta emisio-zirrikituak erabiliz. Kolesterolarekin nahastutako eta kolesterolik gabeko (0–1  $\mu\text{M}$ ) 10  $\mu\text{M}$  peptidoren fluoreszentsia emisio-espektroak neurtu ziren 150 mM NaCl, % 0,004 Tween-20 eta 20 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailea erabiliz. Gutxienez hiru neurketaren batezbestekoa eta desbideraketa estandarra erabili dira.

Alde batetik, argiaren sakabanaketa zuzentzeko, lagin bakoitzeko fluoreszentsia espektroei zegokien kolesterol kontzentrazioaren espektroa kendu zitzaien. Horrez gain, diluzio efektua zuzentzeko kontrolak egin ziren, 10  $\mu\text{M}$  peptidoren gainean disolbatzailea gehitu zen eta laginei zegokien fluoreszentsia intentsitateak diluzio faktore bakoitzarekin biderkatu ziren. 340 nm-ko fluoreszentsia intentsitate erlatiboak ( $F_0/F_i$ )<sub>340 nm</sub> kalkulatu ziren,  $F_0$  eta  $F_i$  kolesterolik gabeko eta kolesterol kontzentrazio bakoitzarekin inkubatutako peptidoaren fluoreszentsia intentsitateak izanik.

#### 3.4.2.2. Peptidoen partizioa mintzetan

Triptofanoa erreportari gisa erabil daiteke, haren ingurumen-aldaketa jarraituz proteina edo peptido baten mintzeko partizioa neurtu baitaiteke<sup>306</sup>. Saiakuntza honetan, 10  $\mu\text{M}$  peptidoren gainean 0–2 mM DOPC eta DOPC:CHOL (1:1 erlazio molarra) LUV gehitu ziren. Fluoreszentsia-titulazioak FluoroLog-3 espektrofluometroarekin (Horiba, Japonia) neurtu ziren, 25 °C-an zegoen Peltier zelula-euskarri termostatudunarekin. Peptidoak 150 mM NaCl eta 20 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean disolbatu ziren. 295 nm-ko kitzikapen uhin-luzera erabili zen eta emisioa 310–400 nm artean erregistratu zen, 5 nm-ko kitzikapen- eta emisio-zirrikituak erabiliz. **3.4.2.1 atalean** zehaztu bezala zuzendutako espektroetatik 330 nm eta 370 nm-ko uhin-luzeran neurtutako fluoreszentsia-intentsitateen arteko erlazioa ( $F_{330}/F_{370}$ ) kalkulatu zen. Gutxienez hiru esperimenteren arteko batezbestekoa eta desbideraketa estandarrak irudikatu dira.

Triptofanoaren fluoreszentsia intrintsekoaren aldaketak peptidoen disoluziotik mintzerako partizio energia aztertzeko erabili ziren<sup>307,308</sup>. Frakzio molarraren partizio-koefizientea ( $K_x$ ), mintzean eta soluzioan dauden peptido-kontzentrazioen arteko proportzio gisa definitzen da:

$$K_x = \frac{[P]_{bil}/[L]}{[P]_{water}/[W]} \quad (3.3 \text{ Ek.})$$

Gure baldintzetan  $L \gg P_L$  eta  $W \gg P_W$  denez,  $K_x$  honela kalkula daiteke:



### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

$$K_x = \frac{P_L}{P_W} \cdot \frac{[W]}{[L]}, \quad (3.4 \text{ Ek.})$$

non  $P_w$  eta  $P_L$  ur-fasean eta lipido-fasean dagoen peptidoari dagozkion, hurrenez hurren;  $W$  eta  $L$  uraren eta lipidoaren kontzentrazio molarrek dira, hurrenez hurren<sup>309</sup>. Partizio esperimentuetan uraren kontzentrazio molarra beti da  $W = 55.5 \text{ M} \gg [P]_{\text{ura}} (25 \text{ }^\circ\text{C-an})$ .

Peptidoaren partizioa lipido fasean ondoko frakzioaren bidez adierazi daiteke (3.5 Ek.):

$$f_{PL} = \frac{P_L}{P_T} = \frac{1}{1 + \left(\frac{W}{LK_x}\right)^n}, \quad (3.5 \text{ Ek.})$$

non  $n$  Hill-en koefizientea den kooperatibitate kasuetan eta  $P_T = P_w + P_L$ .  $K_x$  estimatzeko datu esperimentalei **3.6 ekuazioa** doitu zitzaien. Horretarako, lehenbizi  $F_{330}/F_{370}$  erlazio erlatiboak kalkulatu ziren:

$$F_{330/370} \text{ erl.} = \frac{(F_i - F_0)_{330/370}}{(F_s - F_0)_{330/370}}, \quad (3.6 \text{ Ek.})$$

non  $F_0$  soluzioan dagoen peptidoari dagokion  $F_{330}/F_{370}$  fluoreszentsia erlazioa den,  $F_i$  liposoma-kontzentrazio espezifiko bakoitzari dagokiona, eta  $F_s$  saturatutako liposoma kontzentrazioari (2 mM) dagokiona. Azkenik GraphPad Prism 8.3.0 softwarean (GraphPad Software, La Jolla, CA, AEB) karratu txikiaren kurben doikuntza ez-linealaren prozedura erabili zen.

Partizio-koefizientea eta itxurazko disoziazio-konstantea erlazionatuta daude:

$$W = K_x \cdot K_D \quad (3.7 \text{ Ek.})$$

Partizio-koefizientea kalkulatu ostean, peptidoa uretik mintzera transferitzeko energia aske estandarra ( $\Delta G$ , kcal/mol) estimatu zen:

$$\Delta G = -R \cdot T \cdot \ln(K_x), \quad (3.8 \text{ Ek.})$$

non  $R = 1.98 \times 10^{-3} \text{ kcal} \cdot \text{mol}^{-1} \cdot \text{K}^{-1}$  eta  $T$  temperatura den Kelvinetan.

Azkenik, datuak masa-zentro espektrala (ingelesez *center of mass*, CM) kalkulatu<sup>306</sup> ere aztertu ziren. CM-k espektratu osoaren batezbesteko uhin-luzerari buruzko informazioa ematen du, eta emisio-espektraren forma- eta zabalera-aldaketekiko sentikorra da<sup>310,311</sup>. CM W458 hondarraren ingurunea zein den aztertzeko erabili da. Horretarako informazioa espektraren 310–400 nm tartetik jaso da<sup>310,311</sup>. Honela kalkulatu zen<sup>306</sup>:

$$CM = \frac{\sum_1^n I_i \cdot \lambda_i}{\sum_1^n I_i}, \quad (3.9 \text{ Ek.})$$

non  $I_i \lambda_i$  uhin-luzeran neurtutako fluoreszentszia intentsitatea den.


#### 3.4.3. Dikroismo zirkularreko espektroskopia (CD)

Dikroismo zirkularreko espektroskopia (ingelesez *circular dichroism spectroscopy*, CD) oso metodo azkarra eta sentikorra da disoluzioan dagoen proteina baten egitura sekundario eta tertziarioa aztertzeko, baita biomolekulen konformazioan eta egonkortasunean gertatzen diren aldaketak ikertzeko ere<sup>312,313</sup>. CD argiaren absortzioan oinarritzen da; izan ere, kromoforo batek ingurune asimetriko batean zirkularki eskuinerantza eta ezkererantza polarizatutako argiaren arteko absortzio diferentzia neurtzen du<sup>312</sup>. Absortzio diferentzia eliptikotasun molarreko unitateak erabiliz adierazi daiteke ( $\theta_{\text{MRE}}$ , deg·cm<sup>2</sup>·dmol<sup>-1</sup>). Esan bezala, CD absortzioari lotuta dagoenez, kromoforoek kiralak izan behar dute edo ingurune asimetrikoan egon behar dute CD seinalea sortzeko. Esate baterako, proteina-kromoforoen artean lotura peptidikoa da CD-aren urruneko UV seinaleari (250 nm-tik behera, 220–190 nm arteko absorbantziekin) ekarpen handiena egiten diona. Hala ere, amida taldeak edota tirosinaren, triptofanoaren, histidinaren eta metioninaren albo kateen ekarpena ere egon daiteke uhin-luzera hauetan. Horrez gain, absortzioaren ondoriozko trantsizio elektronikoen uhin-luzera eta intentsitatea elektroiek espazioan duten kokapenaren arabera izango da, eta honek, proteinaren egituraren inguruko informazioa eskainiko du.

Proteinetan egitura sekundarioa duten motiboek CD urruneko UV espektroak ematen dituzte (**3.10 irudia**). Adibidez,  $\alpha$ -helizedun proteinek 222 nm-ko eta 208 nm-ko banda negatiboak dituzte, eta 193 nm-ko banda positiboa.  $\beta$ -orri antiparaleloek 218 nm-ko banda negatiboa eta 195 nm-ko banda positiboa dituzte. Azkenik, proteina desordenatuek ohiko *random-coil* espektroa dute, 210 nm-ko eliptikotasun baxuarekin eta 195 nm inguruko banda negatibo indartsuarekin. Teknika honen abantaila nagusiak neurketetan behar den molekula kopuru txikia eta datuen analisi sinplea dira. Bestalde, proteinek soluzioan egon behar dute eta hori muga izan daiteke mintz-proteinak haien jatorrizko ingurunean aztertu nahi badira.

Lan honetan, peptidoen egitura sekundarioa aztertu da alde batetik mintz-lipidikoak imitatzen dituen ingurune apolar batean (TFE) eta bestetik, liposometan. Neurketak Peltier bidez kontrolatutako Jasco J-810eko espektropolarimetriko batean egin ziren. Aparatua sarri kalibratzen da azido (1 S)-(+)-10-camforsulfoniko, amonio-gatzarekin.

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK



**3.10 irudia. CD erreferentzia-espektraok % 100 egitura sekundario bakoitzerako.**  $\alpha$ -helizedun proteinek (lerro urdina) 222 nm-ko eta 208 nm-ko banda negatiboak dituzte, eta 193 nm-ko banda positiboa.  $\beta$ -orri antiparaleloek (lerro gorria) 218 nm-ko banda negatiboa eta 195 nm-ko banda positiboa dituzte. Proteina desordenatuek (lerro berdea) *random coil*-aren ohiko espektra dute, 210 nm-ko eliptikotasun baxuarekin eta 195 nm inguruko banda negatibo indartsuarekin<sup>313</sup>. Wei eta kideengandik egokitua<sup>314</sup>.

100  $\mu$ M peptido 150 mM eta 20 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean jarri zen, % 0, 2,5, 10 eta 25 (b/b) TFE-rekin. 200–260 nm-ko CD espektraok 1 mm-ko kuartzo-gelaxka batean neurtu ziren, 25 °C-an. Datuak 1 nm-ko banda-zabalerarekin jaso ziren, 100 nm/min-ko abiaduran, eta lagin bakoitzeko 40 neurketaren batezbestekoak egin ziren. Datuak prozesatzeko lehenbizi disolbatzailearen espektraori zegozkion datuak kendu ziren. Hondarren batezbesteko eliptikotasuna (ingelesez *mean residue elipcity*,  $\vartheta_{MRE}$  (deg·cm<sup>2</sup>·dmol<sup>-1</sup>)) kalkulatu zen:

$$\vartheta_{MRE} = \frac{MRW \cdot \varepsilon}{10 \cdot C \cdot l}, \quad (3.10 \text{ Ek.})$$

non erregistratutako eliptikotasun-seinalea ( $\varepsilon$ , deg), peptido kontzentrazioa (C, g/ml) eta kubetaren luzera (l, cm) baitira.

Azkenik, **3.11 ekuazioak** hondarren batezbesteko pisua definitzen du, (ingelesez *mean residue weight*, MRW (g/mol)):

$$MRW = \frac{M_w}{(\text{amino azido kopurua} - 1)} \quad (3.11 \text{ Ek.})$$

#### 3.4.4. Espektroskopia infragorria (IR)

Espektroskopia infragorria (IR) materiak xurgatutako erradiazio elektromagnetikoan oinarritzen da eta lotura kimikoen mende dago. Molekula organikoek  $10.000\text{--}100\text{ cm}^{-1}$  arteko IR erradiazioa xurgatzen dute, eta bibrazio-energia bihurtzen dute. Absortzio uhin-luzera atomoen masa erlatiboaren, indar konstantearen eta loturen geometriaren arabera da.

IR datu estrukturalen karakterizaziorako, identifikaziorako eta kuantifikaziorako oso teknika fidagarria da<sup>315</sup>. Adibidez, oso erabilgarria izan daiteke mintzeko proteinen egitura eta orientazioa zehazteko<sup>316</sup>. Gainera, aldi berean mintz-biologikoetan dauden lipido eta proteinak aztertze balio du, perturbazioaren bat eragin dezakeen zunda exogenorik sartu gabe. IR-ren uhin-luzera luzea denez, argiaren sakabanatze-arazoak ia ez dira existitzen. Horri esker, agregatutako materialak edo mintz-zati handiak ikertu daitezke<sup>315</sup>. Beste teknika espektroskopiko batzuek ez bezala, lipido-besikulek ez dute neurketen bereizmena edo sentikortasuna mugatzen, eta, beraz, mintz-proteinak ingurune naturalean aztertze aukera ematen du. IR espektroskopiari esker, zenbait egoeratan (solidoak, likidoak eta gasak barne) dauden materialak aztertu daitezke. Metodo honek peptido edo proteina baten osagaien egitura sekundarioari dagozkion elementuak era globalean azaltze balio du.

Proteina-egitura aztertzeke, lotura peptidikoaren bidez xurgatutako IR irradiazioaren ondoriozko xurgatze-bandak aztertzen dira, amida-banda deritzenak. Amida maiztasunak egitura desberdinekiko sentikorrak diren arren, amida-I banda da proteinen konformazioa zehazteko gehien erabiltzen den bibrazio-modua. Banda hori  $1600\text{--}1700\text{ cm}^{-1}$  artean dago, eta azpibanda desberdinen gainjartzeak osatzen du. Azpibanda horietako bakoitza peptidoak hartutako egitura sekundario bati dagokio. Hainbat prozedura matematiko aplikatzen dira (Fourier-en transformatua) bandaren osagai bakoitzaren posizioa zehazteko.

Peptidoekin lan egitean, maiztasun bakoitza egitura sekundario jakin batekin lotzeko, aurrez lortutako kalkulu teorikoak edo bereizmen handiko hiru dimentsioko egiturak erabiltzen dira. H<sub>2</sub>O-ren absortzio banda proteinen amida-I bandarekin gainjarri daitekeenez, lagina ur deuteratuan (D<sub>2</sub>O) neur daiteke. D<sub>2</sub>O-ri dagokion banda eta amida-I´ izenez ezagutzen da. **3.2 taulan** ageri dira amida-I´ osagaien ohiko esleipenak.

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

#### 3.2 taula. Amida-I' banden esleipen arruntena D<sub>2</sub>O-n.

Esleipen-balioak ez dira finkoak; balio-tarte bat dago peptidoen ingurunearen arabera dena.

Batezbesteko maiztasunak (cm <sup>-1</sup> )	Esleitutako egitura
1622/1685	zabaldutako kateak/destolestua
1630	helize-solbatatua
1640	<i>random coil</i>
1655	α-helizea
1660	3 <sub>10</sub> -helizea
1675	β-birak

Igor de la Arada Dk.-arekin (Biofisika Institutoa, CSIC-UPV/EHU, Leioa, Espainia) lankidetzan, IR teknika peptidoek ur-disoluzioan eta mintzetan hartutako egitura sekundarioa zehazteko erabili da.

#### 3.4.4.1. Fourier-en transformaturako espektroskopia infragorria (FTIR)

FTIR proteinen egitura sekundarioa ikertzeko metodo erabilgarria da. CD-arekin eta fluoreszentiarekin alderatuta, FTIR askoz sentikorragoa da β- edota *random coil* egiturak hautemateko.

Labur-labur, LPF-ak **3.3.1.3 protokoloan** deskribatu bezala prestatu ziren, 2 mg/ml peptido eta 1:50 peptido:lipido erlazio molarra erabiliz. Jarraian, laginak liofilizatu eta D<sub>2</sub>O-n disolbatu ziren. Kaltzio fluorurozko (CaF<sub>2</sub>) bi leihoen (BioCell, BioTools Inc., IL, AEB) artean jarri zen 25 µl-ko lagina. Espektroak Thermo Nicolet Nexus 5700 (Thermo Fisher Scientific, MA, AEB) espektrofotometroan erregistratu ziren, merkurio-kadmio-telurio detektagailu integratua eta Peltier temperatura kontrolagailua (TempCon, BioTools Inc., IL, AEB) zeuzkana. Lagin bakoitzeko 100 espektro jaso ziren, 2 cm<sup>-1</sup> bereizmen nominalarekin. Gutxienez hiru lagin neurtu dira, haien arteko batezbestekoa eta desbideraketa estandarra kalkulatzeko.

Datuen analisia burutu aurretik, disolbatzailearen eta peptido komertzialetan egon zitezteen azido trifluoroazetiko (ingelesez *trifluoroacetic acid*, TFA) arrastoen ekarpena kendu zen jatorrizko espektroetatik, espektroen arteko konparazio fidagarria egin ahal izateko. Datuen tratamendua eta jatorrizko bandaren deskonposizioa beste nonbaiten deskribatu dira<sup>317</sup>. Laburbilduz, banda kopurua eta horien kokapena espektroaren dekonboluziotik eta Fourier-en transformaturatik lortu ziren (banda-zabalera = 18 eta k = 2). Doikuntza-prozedura hasi aurretik, erreferentzia-puntua kendu zen eta hasierako altuerak jatorrizko espektroaren % 90ean finkatu ziren hegaletako eta intentsitate altueneko bandetarako, eta % 70ean gainerako osagaietarako. Bi etapatako iterazio-prozesua burutu zen i) osagaien banda-posizioa finkatu zen (hori da

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK


kurbaren doikuntzari aplikatzen zaion errestrikzio bakarra), zabalera eta altuerak amaierako balioetara hurbiltzeko aukera emanez, baina Fourier-en transformatuaren dekonboluzio-espektroetatik lortutako banden posizioa aldatu gabe; ii) aurreko (posizio finkoko) kurba-doikuntza parametroak oinarri hartuta, ezarritako errestrikzioak ezabatu eta banda-posizioei (baita zabalera eta altuerari ere) mugitzen utzi zitzaien. Bandaren formarako funtzio Gaussiarra erabili zen. Hala, amida-I' bandaren kokapenari, azalera-ehunekoari eta banda-zabalerari buruzko informazioa lortu zen. Banden deskonposizioa CURVEFIT erabiliz egin zen, SpectraCalc (Thermo Fisher Scientific Inc., MA, AEB) exekutatuaz. Doikuntzaren emaitza begiz ebaluatu zen, birmoldatutako kurba orokorra jatorrizko espektroan gainjarriz eta banden azken posizioak ez direla  $2\text{cm}^{-1}$  (eskuratutako espektroen erresoluzioa) baino gehiago mugitzen egiaztatuz. Prozedura honen bidez, emaitza errepikakorra eta doitasun matematikoa ziurtazen dira, lortutako parametroekin kurba artifizial bat eraikiz eta berriro prozedura bera errepikatuz. Banda kopurua estutze-prozeduren arabera finkatu zen. Banda desberdinen xurgapen-koefiziente molarra antzekotzat hartu zen ( $\pm\%$  3ko errorea).

2-dimentsioko korrelazio espektroskopia (ingelesez *two-dimensional correlation spectroscopy*, 2D-COS-IR) mapak eraikitzeko, kolesterol-edukia erabili zen espektro-fluktuazioak eragin eta peptidoen egitura sekundarioan espektro-aldaketa dinamikorik zegoen detektatzeko. Bi dimentsioko espektro sinkrono eta asinkronoen irudikapena beste nonbait deskribatu da<sup>318</sup>.

#### 3.4.4.2. Islapen total indargabetuko FTIR espektroskopia (ATR-FTIR)

ATR-FTIR (ingelesez *Attenuated Total Reflection*) espektroskopia mintz-proteinen eta mintzari lotutako peptidoen egitura eta antolaketa aztertzeko erabiltzen da biologikoki garrantzitsuak diren bigeruzaren ereduetan (**3.11 irudia**). Teknika sinple honi esker, peptido baten mintzeko orientazioa eta egitura sekundarioa zehaztu daiteke. Sarri erabiltzen da guztiz barne-islaturako IR izpi sorta batean gertatzen diren aldaketak neurtzeko, izpia laginarekin kontaktuan jartzen denean<sup>315</sup>. Ikerketa andana batean erabili da mintzei lotutako peptido hidrofobikoen eta proteinen egitura eta orientazioa zehazteko. Besteak beste, *de-novo* diseinatutako peptidoak, peptido natiboak edota hainbat hartzailearen TM domeinuetatik eratorritako peptidoak erabili dira<sup>315</sup>.

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK



**3.11 irudia. ATR-FTIR neurketen oinarrizko printzipioak.** Izpi infragorria angelu jakin batekin igortzen da errefrakzio-indize altua duen kristal optikoki dentsu batera. Barne-islapen horrek uhin desagerkor bat sortzen du, kristalaren gainazaletik ebakitze-puntuarekin kontaktuan dagoen laginera hedatzen dena. Shairengandik<sup>315</sup> moldatua, BioRender erabiliz.

ATR-FTIR xurgapen-espektroak perpendikularki eta paraleloki polarizatutako argia erabiliz neurtu ziren Bruker Tensor 27 espektrofotometroan (Bruker MA, AEB), merkurio-kadmio-telurio plaka-detektagailu batekin ekipatua, BioATRCell II mikro-ATR unitatea erabiliz. Germaniozko (Ge) ATR kristalaren gainazalean peptido eta lipidodun nahastearen 20  $\mu\text{l}$  gehitu eta lehortu zen, 5 orduz aire lehorra IR ganberatik pasaraziz. Espektroak lortzeko, polarizatutako ispilua (Pike Technologies, WI, AEB)  $0^\circ$ -ra eta  $90^\circ$ -ra doitu zen, hala, lipido normalarekiko paraleloa eta perpendikularra zen izpi erasotzailea sortu zen. Baldintza bakoitzean  $2\text{ cm}^{-1}$ -ko bereizmena zuten 100 IR espektro jaso ziren, eta batezbestekoa kalkulatu zen. Amida-I' loturaren xurgapen-zatidura dikroikoa kalkulatzeko argi erasotzaile paraleloa ( $0^\circ$ ) vs. perpendikularra ( $90^\circ$ ) mintz normalarekiko erlatibizatu ziren eta peptidoaren orientazioa kalkulatzeko erabili zen<sup>319-321</sup>. Gutxienez hiru lagin neurtu dira, haien arteko batezbestekoa eta desbideraketa estandarra kalkulatzeko.

### 3.5. MIKROSKOPIA ELEKTRONIKOA

Mikroskopia elektronikoek (EM) mikroskopia optikoek baino ebazpen-ahalmen handiagoa dute. Elektroien uhin-luzera fotoien uhin-luzera baino 10.000 aldiz txikiagoa denez, bereizmen-ahalmena handiagoa da. Oro har, EM-ek tentsio altuko elektro-sorta bat igortzen dute tungstenozko harizpi bat erabilita elektro-iturri gisa. 100 kV–1.000 kV arteko azelerazio-tentsioa aplikatzen da elektroiak tungsteno-harizpiaren eta anodoaren artean mugitzeko.

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

Elektroiak laginetik pasatzen direnean, laginaren lodieraren eta errefrakzio-indizearen arabera sakabanatzen dira. EM-rako laginek, alde batetik, erradiazioak eta hutsak eragindako kalteak murrizteko eta bestetik, kontrastea handitzeko tratamendua behar dute. Lagina tratatzeko teknikarik erabilienak tindatze negatiboa eta izoztea dira. cryoEM-erako lagina etano likidoan sartzen da eta momentuan izozten da, kristalezkoa ez den beirazko izotza eratuz.

Lan honetan aurkeztutako cryo-EM neurketak Igor Tascón Dk.-rekin (Biofisika Institutoa, CSIC-UPV/EHU, Leioa, Espainia) lankidetzan egin dira. Laburki, CyaA eta SUV-ak 1:1.000 proteina:lipido erlazio molarrean inkubatu ziren 37 °C-n, 30 minutuz. SUV-ak **3.3.2.2 protokoloan** zehaztu bezala prestatu ziren. Lagina 10 aldiz kontzentratu zen ultrazentrifugazioz, 436.000x g-tan, 4 °C-an 30 minutuz. Jarraian, QUANTIFOIL® R 3.5/1 200 kobrezko sareari (3,5 µm-ko zulo-diametroa/1 µm-ko tartea eta 4,5 µm-ko maiztasuna) (SPT Labtech, Erresuma Batua) distira-deskarga (ingelesez *glow discharge*) egin zitzaion 0,36 mbar-eko hutsean, 1,5 minutuz. Ondoren, laginaren 4 µL aplikatu ziren sarean eta alde batetik lehortu zen 1,9 s-an Leica EM GP2 izozkailuan (Leica Microsystems, Alemania), % 94ko hezetasunarekin. Sareak berehala etano likidoan sartu eta nitrogeno likidoan biltegitatu ziren.

Cryo-EM irudiak Isaac Santos Dk.-ak atera zituen CIC bioGUNE-ko Mikroskopia Elektronikoko eta Makromolekulen Kristalografiako Plataforman (Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea, Derio, Espainia). Neurketak JEM-2200FS/CR transmisio-mikroskopio elektronikoan (JEOL, Japonia) egin ziren, K2 elektroi detektagailu batekin (GATAN, Erresuma Batua), 200 kV-eko eremu-emisioko pistola batekin (FEG) eta zutabe barneko omega energia filtro batekin ekipatua zegoena.

### 3.6. PROTEINA AKTIBITATEEN AZTERKETA

#### 3.6.1. CyaA-ren jarduera hemolitikoa

Eritrozito-lisia, toxina poro-eragileen aktibitatea ikertzeko erabili izan da<sup>220,322–324</sup>. Lan honetan,  $\alpha\text{M}\beta_2$  integrinarik gabeko ardi-eritrozitoak erabili ziren itu-zelula ez-mieloide eredu gisa.

##### 3.6.1.1. Odol-laginak garbitzea eta estandarizatzea

Ardi-odola (Pronadisa, Espainia) bi aldiz garbitu zen uretan % 0,9 (b/b) zen NaCl-rekin. Lagina zentrifugatu egin zen 2.100x g-tan (4 °C, 10 min). Zentrifugazioaren ondoren, gainjalkina kendu eta jalkina 150 mM NaCl, 2 mM CaCl<sub>2</sub> eta 20 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean berreseki zen. Pare bat garbiketa gehiago egin ziren gainjalkina garden bihurtu zen arte.



### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

Zinetika hemolitikorako, aldeztu aurretik garbitutako eritrozito-esekidura estandarizatu egin zen, odola indargetzaile berean diluituz  $A_{700\text{nm}} = 1,2 (5 \times 10^8 \text{ zelula/ml})$  izan arte.

Hemolisi-saiakuntzetarako, berriz, aldeztu aurretik garbitutako eritrozito-suspentsioa estandarizatu zen. Horretarako, 37.5  $\mu\text{l}$  eritrozito-esekidura nahastu zen 3 ml  $\text{H}_2\text{O}$  disoluzioan,  $A_{412\text{nm}} = 0.6$  izateko eta  $5 \times 10^8$  zelula/ml kontzentrazioa lortzeko.

#### 3.6.1.2. Kolesterolak eragindako hemolisiaren inhibizioa

Lan honetan, argi dispersioan oinarritutako entsegu espektrofotometriko bat burutu da. Egoera onean dagoen eritrozito-suspentsio batek bere tamaina eta formagatik, argia barreiatzen du. Baina, PFT-ren bat gehitu eta eritrozitoak lisatuz gero, uhertasuna jaitsiko da<sup>325</sup>.


Eritrozitoak garbitu eta estandarizatu egin ziren lehenbizi, **3.6.1.1 protokoloan** deskribatzen den bezala. 100 nM CyaA eta 0–25  $\mu\text{M}$  kolesterol inkubatu ziren (RT, 30 min). Jarraian beste inkubazio bat egin zen CyaA-kolesterol nahastea eritrozitoei gehituz eta etengabe irabiatuz (37 °C, 180 min). Kontrolei dagokienez, eritrozitoak inhibizio entseguan erabilitako EtOH bolumen berdinarekin inkubatu ziren. Zinetika neurtzeko 200  $\mu\text{l}$  lagin zituzten 96 putzudun plaka lauak erabili ziren eta eritrozito-esekiduraren absorbantziaren jaitiera neurtu zen minuturo 700 nm-tan. Zinetika Synergy HTX (BioTek Instruments, Inc, VT, AEB) 96 putzuko plaka irakurgailu batean monitorizatu zen. Gutxienez hiru esperimentu independente neurtu ziren bakoitzean triplikatuak eginez (n=9).

Hemolisiaren % 0 indargetzailean berreskitako eritrozitoen absorbantziari dagokio. Aldiz, eritrozito-lisi totala (hemolisiaren % 100) Triton X-100 % 0,1 (b/b) detergentedun eritrozito lisatuei dagokie. Hemolisi-ehunekoak **3.13 ekuazioarekin** kalkulatu ziren:

$$\text{Hemolisia (\%)} = \frac{(Abs_{700\text{nm}} \% 0 - Abs_{700\text{nm}} \text{ lagina})}{(Abs_{700\text{nm}} \% 0 - Abs_{700\text{nm}} \% 100)} \times 100 \quad (3.13 \text{ Ek.})$$

#### 3.6.1.3. CyaA toxinak eragindako hemolisia oztopatzea LUV-ekin

100 nM CyaA 0–1000  $\mu\text{M}$  LUV-ekin inkubatu zen etengabe irabiatuz (37°C, 15 min). Erabilitako LUV konposizioak ondokoak dira: DOPC, DOPC/ERG eta DOPC/CHOL (3:1 erlazio molarra). Jarraian, CyaA-LUV nahastea aldeztu aurretik garbitu eta estandarizatutako (**3.6.1.1 protokoloa**) eritrozito-suspentsioari gehitu zitzaion. Ondoren, beste inkubatzeko bat egin zen etengabe irabiatuz (37 °C, 180 min) (**3.12 irudia**). Uhertasunaren galera **3.6.1.2 protokoloa** jarraituz neurtu zen.



**3.12 irudia. Hemolisi-saiakuntzaren marrazkia.** CyaA konposizio desberdinetako LUV-ekin inkubatu da lehenik, eta ondoren eritrozitoekin bigarren inkubazioa burutu da. Lehian oinarritutako esperimendu honetan, CyaA liposometara lotuz gero ezin izango da eritrozitoen mintzera lotu haiek zulatzeko. BioRender-en marraztua.

#### *3.6.1.4. CyaA WT eta mutanteekin egindako hemolisi-zinetikak*

Eritrozitoak **3.6.1.1 protokoloan** deskribatzen den bezala garbitu eta estandarizatu ziren. 50 nM toxina  $5 \times 10^8$  zelula/ml zen eritrozito-suspentsioarekin inkubatu zen (37 °C, 180 min). Uhertasunaren galera **3.6.1.2 protokoloan** zehaztu bezala neurtu zen.

#### *3.6.1.5. CyaA-ren jarduera hemolitikoa blokeatzea peptido sintetikoak erabiliz*

Aldez aurretik garbitu eta estandarizatuko eritrozitoak (**3.6.1.1 protokoloa**) 0–5.000 nM peptidorekin inkubatu ziren 150 mM NaCl, 2 mM CaCl<sub>2</sub> eta 20 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean, 4 °C-an 15 minutuz. Laginei 50 nM CyaA gehitu eta jarraian hemolisi zinetikak neurtu ziren 700nm-tan (37°C, 180 min) (**3.6.1.2 protokoloa**).

#### *3.6.1.6. Peptido sintetikoekin egindako hemolisi-saiakuntzak*

96 putzuko plaka konikoetan proteinen edo peptidoaren diluzio seriatuak prestatu ziren 150 mM NaCl, 2 mM CaCl<sub>2</sub> eta 20 mM Tris-HCl, pH 8,0 indargetzailean. Gainean  $5 \times 10^8$  zelula/ml-ko dentsitateko eritrozito-bolumena gehitu zitzairen (estandarizazioaren xehetasunak **3.6.1.1 protokoloan** adierazi dira). Nahasketa 180 minutuz inkubatu zen, etengabe irabiatuz,

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

37 °C-an. Jarraian, plakak zentrifugatu ziren (950x g, 4 °C, 5 min) eritrozito ez-lisatuak hauspeatzeko, eta gainjalkinaren absorbantzia neurtu zen 412 nm-tan 96 Synergy HTX plaka-irakurgailuan (BioTek Instruments, Inc, VT, AEB). Hemolisiaren ehunekoa **3.14. ekuazioaren** bidez kalkulatu zen:

$$Hemolisia (\%) = \frac{(Abs_{412nm} \text{ lagina} - Abs_{412nm} \%0)}{(Abs_{412nm} \%100 - Abs_{412nm} \%0)} \times 100 \quad (3.14. \text{ Ek.})$$

Hemolisiaren % 0 indargetzailean inkubatutako eritrozitoei dagokie; hemolisiaren % 100 berriz, eritrozito-esekidurari Triton X-100 (% 0,1) gehituta kalkulatu zen.

#### 3.6.2. cAMP kuantifikazioa J774A.1 makrofagoetan

Purifikatutako CyaA-ren translokazio aktibitatea aztertzeko, toxinak eragindako zelula hostalari barneko cAMP ekoizpena kuantifikatu zen<sup>165,256,257</sup>  $\alpha_M\beta_2$  integrina-hartzailea adierazten duten sagu-makrofagoetan.

##### 3.6.2.1. J774A.1 makrofagoen hazkuntza

J774A.1 makrofagoak (ATC, TIB-67 zenbakia) erabili dira fagozito mieloide eredu gisa. 1968. urtean ezarri ziren<sup>326</sup>, sagu-linfoma histiozitikoetatik (*Mus musculus*) eratorritako monozito-makrofagoak dira. 3. konplementu hartzailea (ingelesez *complement receptor 3*, CR3), hau da CD11b/CD18 heterodimeroa, eta afinitate handiko IgG1-entzako Fc hartzailea (Fc $\gamma$ R1) adierazten dituzte. Era berean, J774A.1 zelulak antigorputzen mendeko fagozitosian aktiboak dira, zitolisi txikia dute eta liozima kantitate handiak sintetizatzen dituzte, baita 1 $\beta$  interleuzina (IL1 $\beta$ ) ere. Azkenik, populazioa bikoizteko epea 17 ordu ingurukoa da.

J774A.1 makrofagoak 37 °C-an hazi ziren % 90 hezetasuna eta 5% CO<sub>2</sub> zuen atmosferan, Dubelcco-k eraldatutako Eagle medioan (ingelesez *Dubelcco's Modified Eagle Medium*, DMEM, Sigma-Aldrich, MO, AEB). Medioa osatzeko ondokoa gehitu zitzaion: bero bidez inaktibatutako % 10 (b/b) behi-fetu gazura (ingelesez *Fetal Bovine Serum*, FBS, Thermo Fisher Scientific, MA, AEB), 6 mM L-glutamina (Thermo Fisher Scientific, MA, AEB), % 0,2 (b/b) MycoZap Prophylactic (Lonza, Suitza) eta Penizilina-Estreptomizina (Sigma-Aldrich, MO, AEB) (100 U/ml eta 100 g/mL, hurrenez hurren).

##### 3.6.2.2. CyaA WT eta mutanteek eragindako cAMP ekoizpena

J774A.1 makrofagoetan sintetizatutako zelula-barneko cAMP kantitatea zehazteko, zelulak 96 putzuko plakan hazi ziren 40.000 zelula/putzu izan arte. Hazkuntza-medioa Gibco™ Opti-

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

MEM™ (Thermo Fisher Scientific, MA, AEB) medio minimoagatik aldatu eta zelulak 37 °C-an inkubatu zen, 60 minutuz. Medio Minimo Esentzial hobetu honek (ingelesez *Minimal Essential Medium*, MEM) % 50-n murriztutako FBS kantitatea du eta beraz, zelulak medio honetan jarritakoan haien hazkuntza-tasa eta morfologia ez dira aldatzen. Inkubazio-aldia bukatutakoan, zelulak 0–200 ng/ml CyaA toxinarekin (WT nahiz mutante) tratatu ziren (37 °C, 30 min).

Plaka 600x g-tan zentrifugatu zen (4 °C, 10 min) zelulak sedimentatzeko; jarraian, gainjalkina kendu eta zelulak lisatzeko 0,1 M HCl eta % 0,3 (b/b) Triton X-100 gehitu zen (RT, 10 min). Zelulak lisatu ondoren, plaka berriro zentrifugatu zen 600x g-tan 10 minutuz. Oraingoan, gainjalkina jaso eta cAMP kontzentrazioa neurtu zen direct cAMP ELISA (ingelesez *enzyme-linked immunosorbent assay*) (Enzo Lifesciences, NY, AEB) kita erabiliz. Aipaturikoa lehia oinarritutako immunoentsegu entzimatico kolorimetricoa da. Kit honek cAMP kontzentrazioa kuantifikatzeko balio du eta horretarako, absorbantzia 405 nm-tan neurtzen da. Horrez gain, cAMP kontzentrazioa putzu bakoitzeko zelula kopuruarekiko estandarizatu ahal izateko, putzu bakoitzeko proteina kontzentrazio totala kuantifikatu zen BCA (Thermo Fisher Scientific, MA, AEB) erabiliz. Emaitzak zelula-barneko proteina (mg) bakoitzeko cAMP (pmol) unitateetan adierazi dira.

#### 3.6.2.3. AC domeinuaren translokazioa inhibitzea peptido sintetikoak erabiliz

J774A.1 zelulak lehenbizi 0–7,5 µM-ko peptidorekin inkubatu ziren (4 °C, 10 min) eta jarraian 200 ng/ml CyaA gehitu zen (RT, 30 min). 40.000 zelula/putzu kontzentrazioa zuten laginen zelula barneko cAMP ekoizpena zehaztu zen, **3.6.2.2 protokoloan** deskribatzen den moduan zehaztu zen, 96 putzuko plaketan.

## 3.7. ANALISI BIOINFORMATIKOA

### 3.7.1. TM helizeen predikzioa CyaA-ren aminoazido-sekuentzian

Lehenik eta behin, CyaA-ren aminoazido-sekuentzia deskargatu (P0DKX7 UniProt kodea) eta [ΔG predicition server](#)<sup>327,328</sup> zerbitzuan proteina osoaren analisia burutu genuen, TM α-helize posibleak identifikatzeko (17-03-23an atzitua). Zerbitzu honi esker, dagokion sekuentzia bat, Sec61 translokoiaren bidez, erretikulu endoplasmaticoaren (ER) mintzean txertatzeko itxurazko energia ( $\Delta G_{\text{pred}}$ ) aurrean daiteke. Printzipioz,  $\Delta G_{\text{pred}}$  balio negatiboak adierazten du Sec61-ek sekuentzia hori TM helize gisa onartu dezakeela eta mintzean integratua izan daitekeela. Bestalde,  $\Delta G_{\text{pred}}$  balio positiboak ez du esan nahi ezinbestean TM txertaketarik ez

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

dagoenik. Predikzioak emaitza esperimentaletan oinarritzen dira<sup>327,328</sup>. Horietan, 19 hondarreko luzeradun sekuentziak adierazi eta sistematikoki probatu dira, haien TM txertaketa *in vitro* saiakuntza baten bidez neurtzeko. Emaitza horietatik abiatuta, eredu kuantitatibo bat garatu zen, segmentuaren luzera eta aminoazido bakoitzaren kokapenaren kontuan hartzen dituen.

Halaber, helize posible horien topologia aurreikusteko, [TOPCONS](#) tresna-informatikoa<sup>217,329</sup> (27-12-23an atzitua) erabili zen. TM  $\alpha$ -helize potentzial baten aminoazido-sekuentzian oinarrituz, emaitzak mintza zeharkatzen duten hondarrak zein diren eta horien mintzarekiko orientazioa zein den zehazten du. Topologia iragartzeko bost algoritmo desberdinen emaitzak uztartzen dira: OCTOPUS, Philius, PolyPhobius, SCAMPI (sekuentzia anitzeko modua) eta SPOCTOPUS. Bost iragarpen horiek ezkutuko Markov eredu (ingelesez *Hidden Markov Model*, HMM) elikatzeko erabiltzen dira. Eredu horrek proteinari buruzko adostasun-iragarpena eta fidagarritasun-puntuazioa (sekuentzian zehar erabilitako metodoen arteko akordioan oinarritua) ematen ditu. Gainera,  $\Delta G$ -eskala 19 aminoazidoetako bakoitzak sekuentziaren posizio bakoitzean daukan mintz-txertaketaren  $\Delta G$  balioa auresateko erabiltzen da<sup>327</sup>. Zerbitzari honek eraginkortasunez bereiz ditzake TM proteinak direnak eta ez direnak, eta sekuentzietan seinale-peptido potentzialik dagoen hauteman dezake.

#### 3.7.2. CRAC/CARC motiboen identifikazioa eta sekuentzia anitzen lerrokatzea

13 RTX toxinatan CRAC/CARC motiboak identifikatzeko, lehenik, honako toxina hauen aminoazido-sekuentziak deskargatu genituen: EhxA (*E. enterohemorragikoa* (EHEC), UniProt A0A2P0WL51), LktA (*M. haemolytica*, UniProt P16535), PILktA (*Mannheimia varigena*, UniProt W0Q9Z2), PaxA (*Pasteurella aerogenes*, UniProt Q9RCG8), MmxA (*Morganella morganii*, UniProt A0A2C5TL69), HlyA (UPEC, UniProt Q8G9Z4), CyaA (*B. pertussis*, UniProt P0DKX7), LtxA (*A. actinomycetemcomitans*, UniProt P16462), *A. pleuropneumoniae*-ren ApxIA (UniProt P55128), ApxIIA (UniProt Q5XUT6) eta ApxIIIA (UniProt A0A0A0QUL1), MbxA (*Moraxella bovis*, UniProt A7XER5) eta RtxA (*K. kingae*, UniProt A1YKW7).

Toxina horien aminoazido sekuentzietan CRAC ((L/V)-X<sub>1,5</sub>-(Y/F)-X<sub>1,5</sub>-(R/K)) edota alderantzizko CARC ((R/K)-X<sub>1,5</sub>-(Y/F)-X<sub>1,5</sub>-(L/V)) patroiak bilatu ziren [EMBOSS fuzzpro](#) zerbitzua erabiliz (Alan Bleasby, EBI, Cambridge, UK), 20-02-24an atzitua. Horrez gain, homologoak izan zitezkeen CRAC/CARC motiboak identifikatzeko, [Clustal Omega](#)<sup>330</sup> sekuentzia anitzeko lerrokatzea (ingelesez *multiple sequence alignment*, MSA) egin genuen

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

(EMBL-EBI, Cambridge, UK), 23-10-16an atzitua (**3.13 irudia**). Lerrokatzea CyaA-ren translokazio-eskualdeko eta eremu hidrofobikoko sekuentzietara mugatu zen. Ondoren, emaitzak [ESPrpt 3.0](#)<sup>331</sup> softwarearekin (Patrice Gouet eta Xavier Robert, Mikrobiologia Molekularreko eta Biokimika Estrukturalako Laborategia, CNRS/Lyongo Unibertsitatea, Frantzia) irudikatu ziren (23-10-16an atzitua).

STEP 2 - Set your parameters

OUTPUT FORMAT  
ClustalW with character counts

DEALIGN INPUT SEQUENCES	MBED-LIKE CLUSTERING GUIDE-TREE	MBED-LIKE CLUSTERING ITERATION	NUMBER of COMBINED ITERATIONS
no	yes	yes	default(0)
MAX GUIDE TREE ITERATIONS	MAX HMM ITERATIONS	DISTANCE MATRIX	GUIDE TREE
default	default	no	yes

ORDER  
aligned

**3. 13 irudia. Clustal Omega lerrokatzerako<sup>330</sup> erabilitako parametroak.**

### 3.8. GLIKOSILAZIO-SAIKUNTZA

#### 3.8.1. Zelularik gabeko *in vitro* sistemak

Zelularik gabeko proteinak adierazteko sistema eukariotoek, proteinak adierazi eta ER mintzean zehar translokatzeko gai den gutxieneko sistemak adb., zelula bizien prozesu konplexuetan dauden aldagai kopurua murrizteko balio dute. Hala, prozesu horietan giltzarri diren xehetasunak uler genitzake<sup>332-334</sup>.


Zelula eukariotorik gabeko adierazpen sistemarik erabiliena untxiaren erretikulozito-sistema lisatutik eratorri da<sup>335,336</sup>. Erretikulozitoak heldu-gabeko eritrozitoak dira, hemoglobinaz beteta daude eta nukleoa eta DNA genomikoa galdu dituzte jada. mRNA maila baxua dute eta estraktua prestatzean suntsitu egiten da. Horri esker, proteinen adierazpen basala baxu mantentzen da<sup>337,338</sup>. Gaur egun, erretikulozitoen lisatua proteina-adierazpen egokia bermatzen duen produktu komertzial, sendo eta erreproduzigarria da.

Sintetizatu berri den proteinari aminoazido erradiomarkatuak (adibidez, <sup>35</sup>S-metionina) gehituz gero, intereseko proteina modu espezifiko eta sentikorrean detekta daiteke. Gainera, sistema honi ER mintzak gehitzen bazaizkio, proteinen translokazioa aztertzeke erabil daiteke (**3.14 irudia**). Txakur-pankreako mikrosoma pikortsuek (ingelesez *canine pancreatic rough microsomes*, CRM) ER pikortsudun xafla oso paketatutako dituzte<sup>339,340</sup> eta proteinak jariatzeke oso espezializatuta daude<sup>341</sup>. Beraz, isolatutako ER pikortsudun mintz horiek mintz-besikula

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

gisa erabil daitezke *in vitro* azterketetarako. Proteinak translokatzeko, mintz-proteinak txertatzeko, N-motako glikosilaziorako eta proteinak prozesatzeko beste funtzio batzuetarako prestatuta daude, eta hamaika azterketatan erabili dira<sup>342</sup>.

N-X-S/T patroidun glikosilazio guneak (X edozein aminoazido izanik, prolina salbu) proteinen mintzeko txertaketa-erreportari gisa erabil daitezke. Intereseko segmentuaren aurretik eta ondoren zenbait glikosilazio-gune sar daitezke, eta N-glikosilazio patroiak erakutsiko luke helize jakin batek TM topologia hartzen duen ala ez. Adibidez, intereseko segmentua ER-ren lumenera translokaturako balitz, oligosakariltransferasa (OST) entzimak azukre bat (Glc3Man9GlcNAc2) erantsiko lioke glikosilazio guneko asparaginari. Azukre bakoitzak ~2,5 kDa-ko masa gehitzen dio proteinari, eta, beraz, peptido jakin batek ER mintzean orientatzeko daukan joera <sup>35</sup>S-metioninarekin markatutako banda elektroforetikoen migrazioa zenbatetsiz argitu daiteke.




**3.14 irudia. Erribosomari lotutako Sec61 translokoia ER mintzean.** Sec61 translokoia ER-aren mintzean kokatzen da, eta jariatutako proteinei translokatzeko eta mintz-proteinei mintzean integratzen laguntzen die<sup>343</sup>. ER lumeneko OST entzimak 2,5 kDa tamainako azukreak gehitzen dizkio N-X-S/T glikosilazio guneko asparaginari. BioRender-en marraztua.

Lan honetan, intereseko sekuentziak *E. coli* lider peptidasaren<sup>344</sup> (LepB) C-muturreko lumen-domeinuaren (P2) baitan klonatu ziren. 323 hondarreko entzima hori funtsezkoa da behin plasma-mintza zeharkatu ondoren, esportatutako proteinen amino-muturreko lider-peptidoak kentzeko, eta ezinbestekoa izan da proteinen mintz-txertaketaren eta jariapenaren inguruko zalantzak argitzeko<sup>345</sup>.

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

LepB peptidasak mintza bi aldiz zeharkatzen du, P2 domeinua periplasman duelarrik<sup>345</sup> (**3.15 irudia**). Testatu nahi ziren helizeak P2 domeinuan sartu ziren, LepB-ren TM segmentuen ostean, eta horrela, proteina mintzean zehazki txertatzen zela bermatu zen.



**3.15 irudia. Glikosilazio-patroiaren azterketak erakusten du helize jakin batek ER mintzean orientatzeko izan dezakeen joera.** LepB peptidasa aldazio-proteina gisa erabili da eta intereseko helizeak haren P2 domeinuan, bi TM segmentuen ondoren, sartu dira<sup>345</sup>.

Ikerketa-lan honetan, akoplatutako transkripzio eta itzulpen nahaste bat erabili zen, peptidoek, erribosomaren tuneletik atera ahala, mikrosoma-mintzetan integratzeko zuten gaitasuna zehazteko<sup>327,328,346</sup>. Aztertutako helizeak CyaA-ren domeinu poro-eragilearen<sup>81</sup> (HI) eta translokazio-eskualdearen<sup>215</sup> (h1 eta h2) parte dira.


#### 3.8.2. DNA manipulazioak

*E. coli* bakterioaren lider-peptidasaren *lepB* genea pGEM1 bektorean azpiklonatu zen<sup>328,346-348</sup>. Helize bakunak LepB<sup>344</sup> proteina-ereduan sartu ziren, N-glikosilaziorako gunen baten edo biren artean. Plasmidoa Ismael Mingarro katedradunak (Valentziako Unibertsitatea, Valentzia, Espainia) bidali zigun.

Helize bakoitzaren topologia zehatza deszifratzeko **3.16 irudian** adierazitako hainbat konstruktua diseinatu dira. Mutante guztiak Sanger-en sekuentziazio bidez berretsi ziren, T7 promotoreari zegokion haslea erabiliz.



### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK



**3.16 irudia.** Diseinatutako konstruktuen irudikapen eskematikoa. LepB-ren bi TM segmentuak lauki urdinez adierazi dira. Testatu beharreko helizeak, berriz, lauki zuriz marraztu dira. Puntu gorriek, aurreko helizetik zenbatzen hasita dauden, N-glikosilaziorako guneak erakusten dituzte<sup>349,350</sup>.

#### 3.8.2.1. DNA-ren PCR bidezko linearizazioa

Intereseko konstruktuak zituzten pGEM1 plasmido-bektoreak (~1 ng) erabili ziren intereseko sekuentziak PCR bidez amplifikatu eta linearizatzeko. Erreakzio-kontzentrazioak hauek izan ziren: hasle bakoitzaren 0,5  $\mu$ M, dNTP bakoitzaren 200  $\mu$ M eta 0,02 U/ $\mu$ l Q5 polimerasa (NEB, MA, AEB ).

Aurreranzko (ingelesez *forward*) haslean zintzilikako sekuentzia (ingelesez *overhang*) gehitu zen T7 promotorea, itzulpen eukariotoa hasteko Kozak-en sekuentzia eta hasiera-kodoia (ATG) PCR produktu linealetan sartzeko (**3.3 taula**). Alderantzizko haslea irakurtarau irekiaren (ingelesez *open reading frame*, ORF) C-muturreko zatiari zegokion eta 2 amaiera kodoi (TAA-TAG) gehitu ziren bata bestearen atzetik.

#### 3.3 taula. Lan honetan erabili diren primerrak.

Aurreranzko hasleak zintzilikako sekuentzia bat zeukan txertatuta (letra xeheez). T7 promotorea turkesaz, Kozak-en sekuentzia berdez eta hasiera-kodoia beltzez adierazi dira. Alderantzizko haslea ORF-aren C-muturreko zatiari zegokion (grisez) eta 2 amaiera kodoi (TAA-TAG) gehitu ziren, bata bestearen atzetik.

Norantz	Oligonukleotidoak
Aurrera (5'-3')	atagta <b>taatacgcactcactata</b> ggaaacc <b>accatgC</b> CGAATATGGCGAATATGTTTGCCCTGATT CTGG
Atzera (3'-5')	<b>AGTCGCATTGGCGGCATCCATTAATAG</b>

Anplifikazioa Mastercycler Gradient Thermocycler (Eppendorf, Alemania) batean egin zen. Lehenbizi, hasierako desnaturalizazio-urrats bat egin zen (98 °C, 1 min); ondoren, 20 ziklo

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK


egin ziren: desnaturalizazio-urrats bat (98 °C, 20 s); hibridatze-urrats bat (63 °C, 30 s); eta luzatze-urratsa (72 °C, 4 min). Jarraian, bukaerako luzatze-fase bat egin zen (72°C, 5 min). DNA agarosa-elektroforesiaren ondoren, PCR produktuak GeneJET PCR Purification kita (Thermo Fisher Scientific, Lituania) erabiliz purifikatu ziren. Ondoren, DNA kontzentrazioa kuantifikatu zen.

#### 3.8.3. *In vitro* transkripzio/itzulpen-erreakzioa

Erretikulozito-lisatua duen 5 µl Tn® T7 Quick for PCR DNA kita (Promega, WI, AEB) ~100 ng DNA linealarekin, 0,3 µl txakur-pankreako mikrosomarekin<sup>351</sup> eta 0,5 µl <sup>35</sup>S-metioninarekin (~5 µCi) osatu zen. Erreakzioa 30 °C-an burutu zen, etengabe irabiatuz. 90 minutu pasatakoan karga-indargetzailea gehitu zitzaion erreakzioa geldiarazteko<sup>328,346</sup>.

#### 3.8.4. Endo H tratamendua

OST-ak katalizatutako N-motako glikosilazioa frogatzeko, laginak Endo H-rekin tratatu ziren, aurretik deskribatu bezala<sup>346</sup>. H<sub>f</sub> endoglikosidasa (New England Biolabs, MA, AEB) birkonbinatutako fusio-proteina bat da, endoglikosidasa H eta maltosari loturiko proteina dauzkana. N-glikosilaziodun proteinetan manosen eta zenbait oligosakarido hibridoren kitobiosa-nukleoa moztu du. Beraz, proteinen glikosilazio guztiak kentzeko erabiltzen da (3.17. irudia).



**3.17 irudia. Endo H-ren jarduera erakusten duen irudi eskematikoa.** Manosa zirkulu berdeekin eta GlcNAc karratu urdinekin adierazi dira.

Proteinaren adierazpena **3.8.3 atalean** deskribatzen den moduan egin zen. Ondoren, 2 µl 50 mM sodio azetatoa (C<sub>2</sub>H<sub>3</sub>NaO<sub>2</sub>, pH 6,0), 1 µl entzima eta karga-indargetzailea nahasi ziren laginarekin (37 °C, 30 min). Nahasketa hori zuzenean kargatu zen SDS-PAGE getetan.

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK

#### 3.8.5. Analisia eta kuantifikazioa

Itzulpen-produktuak % 12 Bis-Tris Akrilamida SDS-PAGE gel bidez aztertu ziren. Gelak lehortu eta autorradiografiako film batean jarri ziren, filmak Fuji FLA-9000 fosforimager (GE Healthcare, IL, AEB) batean ikusteko, Image Reader FLA-9000/Multi Gauge V 3.0 softwarea erabiliz. Proteinen mintzeko txertatze-maila zehazteko, kale bakoitzaren dimentsio bakarreko intentsitate-profil bat sortu zen ImageJ softwarean<sup>299</sup> (NIH, MD, AEB). Azkenik, EasyQuant doitze-programa multi-Gaussiarra erabili zen profileko banda proteiko glikosilatuei zegozkien kurbaren azpiko azalerak kalkulatzeko.

Segmentu jakin baten mintzeko txertatze-maila ( $p$  balioa) kalkulatzeko, glikosilazio-gune bakarra (C5) zuten konstruktuen kuantifikazioa hartu zen oinarri.  $p$  balioak kalkulatzeko, glikosilatu gabeko banda proteikoen kurba azpiko azalera, banda proteiko guztien azaleraren baturarekin zatitu zen:

$$p = \frac{f_{0g}}{f_{0g} + f_{1g}} \quad (3.15. \text{ Ek.})$$

Datuak mintzaren forma integratuen eta integratugabeen arteko itxurazko oreka-konstante gisa ere adieraz daitezke ( $K_{app}$ ):

$$K_{app} = \frac{f_{0g}}{f_{1g}} \quad (3.16. \text{ Ek.})$$

Adierazpen horrek ez du esan nahi proteinen mintzetako integrazio-prozesuak benetako oreka termodinamikoa islatzen duenik; hala ere, erabilgarria da emaitzak itxurazko energia libre ( $\Delta G_{app}$ ) bihurtzeko eta datu biofisikoekin zuzenean konparatzeko<sup>328</sup>:

$$\Delta G_{app} = -R \cdot T \cdot \ln K_{app} \quad (3.17. \text{ Ek.})$$

Balio guztiak gutxienez hiru esperimentu independenteren batezbesteko gisa kalkulatu ziren.

### 3. KAPITULUA: MATERIALAK ETA METODOAK



CHAPTER



**4**

# POSSIBLE MOLECULAR DETERMINANTS FOR THE CHOLESTEROL DEPENDENCE OF THE BIOLOGICAL FUNCTIONS OF CyaA TOXIN

The results presented in this chapter have been published in:

**Amuategi, J.**, Alonso, R., & Ostolaza, H. (2022). Four Cholesterol-Recognition Motifs in the Pore-Forming and Translocation Domains of Adenylate Cyclase Toxin Are Essential for Invasion of Eukaryotic Cells and Lysis of Erythrocytes. *International Journal of Molecular Sciences*, 23(15), Article 15. <https://doi.org/10.3390/ijms23158703>

Ostolaza, H., & **Amuategi, J.** (2024). Membrane Interaction Characteristics of the RTX Toxins and the Cholesterol-Dependence of Their Cytolytic/Cytotoxic Activity. *International Journal of Molecular Sciences*, 25(6), Article 6. <https://doi.org/10.3390/ijms250631>

### 4.1. ABSTRACT

Binding of soluble CyaA monomers to the plasma membrane of target cells and conversion into membrane-integrated proteins are the first and last step for CyaA translocation and lytic activities. Yet, the molecular determinants in the protein or the target membrane that govern this conversion to an active toxin form are poorly understood. It was previously reported that both CyaA cytotoxic and cytolytic activities depend on membrane cholesterol. Here, we show that, indeed, this toxin specifically interacts with membrane cholesterol. In addition, we find four cholesterol-binding motifs located in two membrane-interacting domains, which are essential for both toxin activities. We hypothesize that the direct CyaA-cholesterol interaction through those four motifs drives insertion and stabilizes the TM topology of several helical elements that ultimately build the required structure for AC delivery and pore formation. The requirement for lipid-mediated stabilization of TM helices appears to be a unifying mechanism to modulate toxicity in PFTs. Particularly, cumulative evidences show that membrane cholesterol is essential for the mechanism of action of several RTX toxins. In fact, more and more RTX toxins present various functional cholesterol-recognition motifs, which appears to be another common feature shared in the family.

### 4.2. INTRODUCTION

Similar to other RTX toxins<sup>135,147,161</sup>, CyaA also depends on membrane cholesterol to exert its biological activities. It was first documented that reducing cholesterol amount yielded a significant decrease in the translocation capacity<sup>8</sup> and that the presence of this sterol substantially increases the rate of CyaA-induced membrane lysis<sup>132</sup>. More recently, we found that membrane cholesterol enhances the lytic ability of CyaA on erythrocytes and artificial lipid bilayers, by stimulating toxin insertion and oligomerization<sup>168</sup>.


Cholesterol seems to promote the irreversible insertion of UPEC HlyA into phospholipid bilayers as well, leading to an increased lytic activity<sup>152</sup>. Moreover, other four RTX toxins (*A. actinomycetemcomitans* LtxA, UPEC HlyA, *A. pleuropneumoniae* ApxIA and *K. kingae* RtxA) were previously shown to specifically bind cholesterol<sup>138,150,164,170</sup>, suggesting that this might be another common identity sign shared by RTX family members. Here, we decided to investigate whether the cholesterol dependence of CyaA activities is due to direct, specific binding to membrane cholesterol, and to explore the possible molecular determinants.

## 4.3. RESULTS

### 4.3.1. Specificity in the interaction of CyaA with cholesterol

To verify whether the cholesterol dependence of the lytic and translocation activities of CyaA is due to direct binding of the toxin to membrane cholesterol, and not, to indirect effects of the sterol on the physical state of the phospholipid bilayer, we performed different experiments.

First, we quantified CyaA binding to liposomes of different compositions following **protocol 3.3.5.1**. As illustrated in **Fig. 4.1**, binding of CyaA was notably greater in presence of cholesterol relative to the pure DOPC. The figure shows, indeed, that for the same initial toxin input, the relative intensity of the protein bands that float together with LUVs is higher (~40% and ~60%, respectively) in DOPC/CHOL vesicles, containing 25% or 50% mole cholesterol.



**Figure 4.1. Toxin association to liposomes.** CyaA was incubated with LUVs composed of pure DOPC or DOPC/STEROL (25% mole ERG or CHOL, and 50% mole CHOL) at 37 °C for 30 min (protein-to-lipid mole ratio, 1:2000). Samples were then submitted to ultracentrifugation in sucrose gradient. The presence of the protein in the floated and non-floated fractions of the gradient and in the original sample (INPUT) was revealed by Coomassie Blue analysis, after SDS-PAGE separation. Binding was quantified by densitometry. Fluorescence emission spectra reveal the presence of vesicles labelled with Rho-PE in the collected fractions. Data presented in bar graphs correspond to the mean  $\pm$  SD of at least three independent experiments. Multiple comparison test was performed vs. pure DOPC-containing samples and statistical differences were based on Welch t-test. (\*\* if  $p < 0.005$ ).


Pure DOPC vesicles represent the fluid L<sub>d</sub> bulk phase of the cell membrane; while mixtures containing 50% of cholesterol adopt a single L<sub>o</sub> phase, with tightly packed lipids and greater thickness<sup>45</sup>, mimicking the so-called lipid rafts<sup>51,289</sup>. DOPC/CHOL mixtures are completely



miscible in all proportions up to the solubility limit of cholesterol (66% mole in PC bilayers)<sup>352</sup>. Therefore, the formulations used in these assays may have a single Ld or Lo phase and do not segregate into different lipid phases<sup>51</sup> (see **section 1.1.2**). Hence, the indirect effects of cholesterol as inducer of phase segregation can be excluded as effector of the increased CyaA binding to cholesterol-containing vesicles.

Finally, the binding of CyaA to pure DOPC and DOPC/ERG vesicles was of 10%, suggesting that ergosterol, an analogue of cholesterol, could not reproduce the same effect. Cholesterol<sup>11</sup> and ergosterol<sup>25</sup> show similar functions and structure; however, ergosterol differs in having an additional double bond in a ring of the steroid nucleus and a double bond and an extra methyl group in the alkyl side chain<sup>292</sup> (**Fig. 3.3**). Even less information is available on the effects of ergosterol on unsaturated phospholipid membranes<sup>353,354</sup>, it has been reported that both sterols have ordering and condensing effects on saturated lipids<sup>293,355,356</sup>. For instance, they are both crucial in the formation and function of ordered domains, such as the Lo phase<sup>23,288-290</sup>. Hence, from these results, it is very tempting to speculate that CyaA might directly interact with cholesterol to favor toxin binding to lipid vesicles, but not with the analogue ergosterol.

In another set of experiments, CyaA was first incubated with cholesterol in solution, and then added to vesicles composed of pure DOPC or DOPC/CHOL (**protocol 3.4.1.1**). Data depicted in **Fig. 4.2** show a decrease in the extent and rate of the toxin-induced permeabilization of DOPC/CHOL vesicles. 2  $\mu$ M cholesterol was enough to decrease the leakage percentage  $\sim$ 50% compared to the control. On the contrary, incubating the toxin with cholesterol in solution barely affected the CyaA-induced permeabilization of DOPC vesicles, which was of  $\sim$ 20% in all cases.




**Figure 4.2. CyaA incubation with cholesterol in solution reduces toxin-induced vesicle permeabilization.** (A) Representative leakage kinetics. 200 nM CyaA was incubated with 0–2  $\mu\text{M}$  cholesterol in solution for 30 min and the mixture was added onto 100  $\mu\text{M}$  lipid vesicles containing pure DOPC (purple) or DOPC/CHOL (1:1 molar ratio) (yellow). Leakage kinetics were measured for 30 min at 37  $^{\circ}\text{C}$ . 0–2 numbers represent increasing cholesterol concentrations. (B) Maximum vesicle permeabilization calculated for each lipid composition and cholesterol dose. Data presented correspond to the mean  $\pm$  SD of at least three independent experiments with triplicates ( $n = 9$ ).

Similarly, **Fig. 4.3** shows that a previous incubation of CyaA with cholesterol in solution (**protocol 3.6.1.2**), reduced the toxin-induced erythrocyte lysis. Both the rate and extent of the kinetics decreased upon cholesterol concentration increase, with notable inhibitory effect for  $>5$   $\mu\text{M}$  cholesterol. The time required to lyse 50% of erythrocytes ( $t_{1/2}$ ) augmented together with cholesterol concentration, indicating that the kinetics were slower.

The maximum hemolysis yield also diminished together with cholesterol concentration augmentation. Interestingly, incubating CyaA with  $>5$   $\mu\text{M}$  cholesterol almost abrogated the toxin-induced hemolysis. Together, all these data suggest that CyaA might recognize and directly bind to membrane cholesterol.

This idea was reinforced by another experiment in which CyaA was first incubated with liposomes composed of pure DOPC or DOPC/STEROL (25% ERG or 25% CHOL), at three different final lipid concentrations, and then assayed for hemolysis (**protocol 3.6.1.3**). The rationale of the experiment is that the more toxin is bound first to liposomes, the less will remain unbound to bind to erythrocytes, and so the lower will be the hemolysis observed.




**Figure 4.3. CyaA incubation with cholesterol in solution reduces the lytic activity of the toxin on erythrocytes.** (A) Representative hemolytic kinetics. 100 nM CyaA was incubated at 25 °C for 30 min in the presence of 0–25 μM cholesterol in solution. Erythrocytes were added and 180 min hemolytic kinetics were measured at 37 °C. Increasing numbers (0–6) illustrate increasing cholesterol concentrations and the red dash line highlights the point in which each curve reaches 50% of hemolysis. (B) Maximum hemolysis extent percentages calculated for each cholesterol concentration used are shown in bar graphs. Data presented correspond to the mean ± SD of at least three independent experiments with triplicates (n = 9).

As illustrated in **Fig. 4.4**, increasing LUV concentration reduced the extent of CyaA-induced hemolysis in all cases. However, cholesterol containing LUVs were the most effective in binding CyaA molecules, since this incubation yielded the lower percentage of lytic capacity (~20% for 1000 μM liposomes).

It is also shown that the reduction in hemolysis induced by the presence of ergosterol in the liposomes was very similar to the induced by the pure DOPC vesicles (50% hemolysis). Hence, this evidence suggests that more CyaA would bind irreversibly to the cholesterol-containing vesicles, and thus, less free toxin would be available to bind and lyse erythrocytes.

Summing up, these results demonstrated that inhibiting the binding of the toxin to membrane cholesterol diminishes CyaA hemolytic activity on erythrocytes. Importantly, this was consistent with the similar lower CyaA binding to cholesterol-free liposomes (**Fig. 4.1**).



**Figure 4.4.** Effect of CyaA incubation with liposomes on CyaA-induced maximum hemolysis. 100 nM CyaA was incubated with 0–1000 µM DOPC (purple), DOPC/ERG (red) and DOPC/CHOL (blue) liposomes at 3:1 molar ratio, and 180 min hemolytic kinetics were measured. Maximum hemolytic percentages represented in the figure correspond to the mean  $\pm$  SE of at least three independent experiments with triplicates ( $n = 9$ ).

#### 4.3.2. Identification of potential CRAC/CARC motifs in CyaA

Numerous studies indicate that membrane cholesterol is essential for the mechanism of action of several RTX toxins that interact specifically with this sterol<sup>138,150,164,166–168,170</sup>. Interestingly, the last ten years, a variable number of both CRAC and CARC motifs has been documented in the primary structure of an increasing number of RTX toxins<sup>138,150,164</sup>.

In the herein presented study, we searched for CRAC ((L/V)-X<sub>1,5</sub>-(Y/F)-X<sub>1,5</sub>-(R/K)) and CARC patterns ((R/K)-X<sub>1,5</sub>-(Y/F)-X<sub>1,5</sub>-(L/V)) that contained either tyrosine or phenylalanine in the central position, in the sequences of 13 distinct RTX toxins<sup>60</sup> (**protocol 3.7.2**). As seen in **Table 4.1**, the analysis revealed that each toxin harbors at least 25 putative cholesterol-binding motifs throughout the full-length sequence. A summary of the putative motifs identified in the pore-forming domain of these toxins is displayed in **Table S.4.2** and **Table S.4.3**.

Using basic bioinformatics programs, it can be responded to the question of to what extent the functional CRAC/CARC motifs identified in the RTX toxin family are conserved and relevant for the action mechanisms. We have run Clustal Omega program<sup>357</sup> (detailed in **protocol 3.7.2**), a popular software for alignment of multiple protein sequences (MSA), for these toxins.

## CHAPTER 4: INTERACTION BETWEEN CyaA AND CHOLESTEROL

**Table 4.1. Summary of CRAC/CARC motifs identified in several RTX toxins.**

Searching input algorithms used were (L/V)-X<sub>1-5</sub>-(Y/F)-X<sub>1-5</sub>-(K/R) for CRAC (purple) and (K/R)-X<sub>1-5</sub>-(Y/F)-X<sub>1-5</sub>-(L/V) for CARC (blue) motifs, respectively. The name of the bacteria and RTX toxins, together with the number of residues of each protein and cholesterol-recognition motifs are shown.

BACTERIUM	RTX TOXIN	No RESIDUES	CRAC MOTIFS	CARC MOTIFS	TOTAL No CRAC/CARC MOTIFS
Enterohemorrhagic <i>Escherichia coli</i> (EHEC)	EhxA	997	16	15	31
<i>Mannheimia haemolytica</i>	LktA	953	15	13	28
<i>Manheimia varigena</i>	PILktA	953	21	16	37
<i>Pasteurella aerogenes</i>	PaxA	1049	19	21	40
<i>Morganella morganii</i>	MmxA	1024	13	15	28
Uropathogenic <i>E. coli</i> (UPEC)	HlyA	1023	13	13	26
<i>Bordetella pertussis</i>	CyaA	1706	22	18	40
<i>Aggregatibacter actinomycetemcomitans</i>	LtxA	1055	24	20	44
<i>Actinobacillus pleuropneumoniae</i>	ApxIA	1022	18	16	34
	ApxIIA	956	16	16	32
	ApxIIIA	1052	22	19	41
<i>Moraxella bovis</i>	MbxA	927	25	18	43
<i>Kingella kingae</i>	RtxA	956	12	14	26

We have mainly examined residues 353–759 of CyaA, corresponding to two membrane-interacting regions: the translocation region (Fig. 4.5) and the hydrophobic domain (Fig. 4.6). These regions have been directly implicated in both toxin activities<sup>81,82,110,214,222</sup> and harbor

several predicted amphipathic/hydrophobic  $\alpha$ -helices<sup>81,215</sup> that seem to be involved in membrane insertion. So far, it is unknown whether all these helical elements insert spontaneously into the membrane or whether their embedding into the lipid bilayer may require assistance from membrane lipids, such as cholesterol.

The MSA analysis confirms that the CRAC<sup>336</sup> motif firstly identified in *A. actinomycetemcomitans* LtxA<sup>138</sup> is highly conserved among several RTX toxins, including HlyA, LktA, ApxIA, ApxIIA, MbxA, EhxA, MmxA and RtxA, but not in *B. pertussis* CyaA (**Fig. 4.6**). Besides, the CARC<sup>346</sup> motif, which is immediately posterior to the CRAC<sup>336</sup> site, is also conserved in most of these RTX toxins, except in *B. pertussis* CyaA, *P. aerogenes* PaxA and *A. pleuropneumoniae* ApxIIIa. Intriguingly, CyaA only harbors the CRAC<sup>658</sup> motif, which aligns with the putative CRAC<sup>336</sup> site of LtxA. On the contrary, the CARC<sup>355</sup> site present in both PaxA and ApxIIIa only aligns with the CARC<sup>346</sup> of LtxA. Importantly, this highly conserved adjacent CRAC-CARC motif has been functionally characterized for *K. kingae* RtxA<sup>150</sup>, UPEC HlyA<sup>193</sup> and *A. actinomycetemcomitans* LtxA<sup>138</sup>.


